




EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica

2010

**EMAITZEN TXOSTENA ETA
ALDAGAIEN ANALISIA**

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA GAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA



Egilea: Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI):

Txostena egin dutenak: Amaia Arregi Martínez
Inmaculada Tambo Hernández

Aholkularitza eta gainbegiratzea: José Luis Tranche García
Eduardo Ubieta Muñuzuri

2011eko urtarrila

AURKIBIDEA**1. Sarrera**

a) Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak	5
b) Txostenaren helburua.....	6
c) Txostenaren edukia:.....	6
• Emaidzak kompetentzien arabera	
• Ikasleen banaketa hezkuntza mailen arabera	
• Emaidzen bilakaera	
• Aldagaien analisisa	
• Azalpen-eredua	

2. Proben eta aplikazio-prozesuaren deskribapena

a) Aplikazio-prozesua	7
b) Populazioaren deskribapena.....	7
c) Probako hizkuntza.....	11
d) Errendimendu-proben deskribapena.....	11
e) Finkatutako gaitasun mailak.....	12
f) Ikasleen galdera-sorta.....	13
• Indize sozioekonomikoa eta kulturala.....	14

3. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ebaluazioaren emaitzak oinarritzko kompetentzien arabera**3.A Ebaluatutako oinarritzko kompetentziak:**

• Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.....	19
Emaidza orokorrak.....	20
Emaidzak dimentsioen arabera.....	21
Emaidzak geruzen arabera.....	23
Emaidzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	24
Emaidzak hizkuntza-ereduen arabera.....	26
Emaidzak etxeko hizkuntzaren arabera.....	29
Emaidzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)..	31
ED.09 – ED.10 errendimenduan izandako bilakaera.....	34
Kompetentziaren ondorioak.....	36
• Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	39
Emaidza orokorrak.....	40
Emaidzak dimentsioen arabera.....	41
Emaidzak geruzen arabera.....	44
Emaidzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	45
Emaidzak etxeko hizkuntzaren arabera.....	46
Emaidzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera.....	48
Emaidzak alderatzea ISEK kontrolatuz.....	49
ED09 – ED10 emaitzen bilakaera.....	50
Kompetentziaren ondorioak.....	52
• Matematikarako kompetentzia	
Emaidza orokorrak.....	55
Emaidzak dimentsioen arabera.....	56
Emaidzak geruzen arabera.....	58

Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera	60
Emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera..	61
Emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera.....	65
Emaitzak alderatzea ISEK kontrolatuz	66
ED09 – ED10 emaitzen bilakaera.....	68
Konpetentziaren ondorioak.....	70
• Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	
Emaiza orokorrak.....	73
Emaitzak dimentsioen arabera.....	76
Emaitzak geruzen arabera.....	76
Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	78
Emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera..	79
Emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera.....	83
Emaitzak alderatzea ISEK kontrolatuz.....	84
Konpetentziaren ondorioak.....	86
3.B Geruzen emaitzak eta ezaugarriak ISEKindizearen arabera	89
A geruza publikoa.....	91
B geruza publikoa.....	93
D geruza publikoa.....	95
A itunpeko geruza.....	97
B itunpeko geruza.....	99
D itunpeko geruza.....	101
4. Aldagaien analisia. Emaitzetan duten eragina	105
a) Emaitzak ikasleen sexuaren arabera, 4 konpetentzietan.....	107
• Emaitzen bilakaera ED09 –ED10-n	108
b) Emaitzak ikasmilako egokitasunaren arabera.....	111
• Emaitzen bilakaera, egokitasunaren arabera.....	113
c) Emaitzak aitaren eta amaren ikasketa mailaren arabera.....	115
d) Emaitzak ikasleen familia-egituraren arabera.....	119
e) Emaitzak eskolatzeko hasierako adinaren arabera.....	121
• Emaitzen bilakaera eskolatzeko hasieraren arabera.....	122
f) Emaitzak ikasleen jatorriaren arabera.....	123
• Emaitzen bilakaera jatorriaren arabera.....	126
g) Ikasgelako kalifikazioaren eta ED10eko errendimenduaren arteko lotura.....	127
• Ikasgelako kalifikazioa eta ebaluazioko puntuazioa.....	127
• Ikasleen banaketa ikasgelako kalifikazioaren eta ebaluazioan lortutako puntuazioaren arabera.....	128
• Ikasgelako kalifikazioa eta ikastaldearen arteko lotura.....	129
• Bilakaera.....	131
h) HBBko ikasleen deskribapen-azterketa.....	133
5. Ikastetxeko emaitzen bilakaera	139
6. Ondorio orokorrak.....	149
7. Eranskina	
Gizarterako eta herritartasunerako Konpetentzia.....	153

1. SARRERA

Hezkuntzaren 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (LOE) eta 175/2006 Dekretuak (2010eko martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuak aldatu zuen), Euskal Autonomia Erkidegorako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duenak, honako hau xedatzen dute: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek, funts publikoen bidez lagundutako ikastetxeetan eskolatutakoek, oinarrizko konpetentzien ebaluazio diagnostikoa egin behar dute.

Arau hori betez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila 2008-09 ikasturtean hasi zen Ebaluazio diagnostikoa lehen aldiz aplikatzen eta joan den ikasturtean jarraitu zuen, 2010. urteari zegokion bigarren aplikazioarekin. Sailaren hiru zerbitzuek, hau da, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI), Hezkuntza Ikuskaritzak eta irakasleei laguntza emateko zerbitzuak (*Berritzegune*) elkarrekin garatutako ebaluazioa da.

Ez dago kontzeptuaren onarpen unibertsalik; hala ere, konpetentzia garrantzitsuztat, beharrezkotzat edo oinarrizkotzat hartu ohi dira edonorentzat eta gizartearentzat beharrezkoak eta onak direnak; beharrezko konpetentzia horiek "gizarteko kide aktibo gisa bizitza egokia eduki ahal izateko banako guztien beharrezko ezagutzen, trebezien eta jarrerren multzo" gisa ulertzeko adostasun komuna dago.

Ikuspegi honetatik, arlo edo jarduera batean trebea izateak arlo horrekin lotutako egoera eta arazo jakin batzuei aurre egin ahal izateko ezagutza garrantzitsuak aktibatze eta erabiltzeko gai izatea esan nahi du. Hau da, ezagutzez gain, hauek egiteko konpetentzia duela esan nahi du: eskuratutako ikaskuntzak modu fidagarrian aukeratzeko eta aplikatzeko, egoera zehatzetan erabiltzeko eta bere esperientzia pertsonaletik eta heziketa-esperientzietatik hurbil dauden egoeretan eta testuinguruan arazoak ebazteko.

Ebaluazio diagnostikoaren aurtengo edizioan (ED-2010), 2009ko edizioan ebaluatutako hiru oinarrizko konpetentziez gain, lehen aldiz, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* sartu da; horrek 2008-2009 ikasturtean egindako *Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren inguruko kulturako konpetentziaren* ebaluazioa ordezkatu du.

a) Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak

Ikastetxetik **kanpo egin beharreko ebaluazioa** da, eta horren ardura Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio.

Luzetarako ebaluazioa da eta ikasleen multzo beraren informazioa eskaintzen du derrigorrezko eskolatzeko-aldiko bi mailatan: Lehen Hezkuntzako 4. mailan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan. Horri esker, irakasleek bi momentu jakinetan ikasle bakoitzaren bilakaerari buruzko datuak eskura ditzakete.

Errolda mailako ebaluazioa da; bertan, funts publikoekin mantendutako Euskadiko ikastetxe guztietan aipatutako mailetan eskolatutako ikasle guztiek parte hartzen dute.

Helburu orokorrak:

- Ikastetxeak bizitzarako zenbat prestatzen duen barloatzea eta ikasleak gizarte modernoko biztanle gisa duten betebeharra beren gain hartzeko zenbateraino prestatua dauden barloatzea.
- Ikastetxeei irakas-jarduera hobetzen laguntzea.
- Administrazioari hezkuntza-politika bideratzeko informazio baliagarria ematea.

Helburu zehatzak:

- Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen hezkuntza-helburuen lorpen maila ezagutzea eta barloatzea.
- Hezkuntza-prozesuekin lotutako faktoreak eta aldagaiak, eta oinarrizko kompetentzien lorpenean eta garapenean eragiten duten testuinguruko faktoreak aztertzea.
- Ikastetxeei ikasleen arreta hobetzeraz eta egokiak diren oinarrizko kompetentziak lortzea bermatuz, eta hala baldin badagokio, aurreko ikasturteetan egindako jarduerak barloatu eta birbideratuz zuzendutako beharrezko neurriak eta programak antolatuzeko balio duten informazio garrantzitsua eskaintzea.
- Ikastetxeetan gogoeta-prozesuak sustatzea, betiere, beren antolaketaren, funtzionamenduaren eta emaitzen hobekuntzan erantzukizunak barloatu eta beren gain har ditzaten.
- Hezkuntza-administrazioari beharrezko informazioa, objektiboa eta garrantzitsua eskaintzea, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeraz zuzendutako erabakiak hartu ahal izateko.
- Familiei semearen/alabaren kompetentzien lorpen mailaren inguruko informazio garrantzitsua ematea.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztien eta Euskadiko ikasleen errendimendua hobetzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren babesteko zerbitzuen ahaleginen lankidetzaz eta integrazioa bultzatzea.

Ikastetxeetako emaitzen informazioak hiru zehaztapen maila ditu: **ikastetxearen datu orokorrak** ebaluatutako bi maila horietako bakoitzean, hezkuntza maila bakoitza osatzen duten **ikastalde**en datuak eta talde bakoitzeko ikasle guztien **banakako** datuak. Familia bakoitzak, ikastetxearen bidez, seme-alaben inguruko banakako txostena jasoko du.

b) Txostenaren helburua

Txosten honen azken helburua ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila osatzen duten talde bakoitzean lortutako emaitzei buruzko informazioa osatzea da. Azterketaren emaitzen azterketa zehatzagoa jarri nahi da ikastetxeen eskura, betiere, irakasleek, hezkuntza esku-hartzean, HOBEKUNTZA neurriak ezarri ahal izateko beste datu batzuk izan ditzaten.

c) Txostenaren edukia:

Txosten honek, ebaluatutako kompetentzietan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikasleek lortutako emaitzen azterketa biltzen du, baita banakako edo testuinguruko zenbait aldagaik horietan duten eragina ere. Ebaluazio diagnostikoaren bigarren edizioa denez, egonkor mantentzen diren hiru kompetentzietan emaitzen bilakaera ikusteko aukera ematen duen konparaziozko azterketa ere egin daiteke.

Informazioa atal hauetan egituratzen da:

- Ebaluatutako oinarrizko kompetentzia bakoitzaren emaitzak.
 - Kompetentzia bakoitzaren batez besteko puntuazioa
 - Ikasleak kompetentzia mailen arabera banatzea
 - 2009 eta 2010. urteetako ebaluazioetan emaitzek izan duten bilakaera.
- Geruzen emaitzak eta ezaugarriak ISEKen arabera
- Emaitzetan eragin berezia duten aldagaien azterketa.
- Ikastetxeen emaitzen bilakaera
- Emaitzetako aldean azalpen-eredua

2. PROBEN ETA APLIKAZIO PROZESUAREN DESKRIBAPENA

a) Aplikazio-prozesua

➤ Proben aplikazio pilotua

Probetako itemak konpetentzia bakoitzeko adituen taldeak prestatu zituen eta ISEI-IVEI arduratu zen koordinazio-lanez. Item horiek modu esperimentalean probatu ziren, eta ikasleek nahikoa ordezkari izan zuten. Item berrien aplikazio pilotua probak aplikatu ziren egunetan egin zen.

Proba pilotu horretan item berrien kalitatea egiaztatu zuten ikasleen jardueraren maila ugariak behar bezala neurtu ahal izateko; hau da, itemen zailtasun maila zein irekitako itemetako zuzenketa-irizpideen sendotasuna egiaztatu zituzten. Proba pilotu haren emaitzei esker, behin betiko proban sartu behar zituzten itemak hautatu ahal izan zituzten.

➤ 2010eko ebaluazioa aplikatzeko erabilitako prozedura

Aplikazioa Lehen Hezkuntzan 2010eko otsailaren 22 eta martxoaren 5 artean egin zen. Proben eta galdera sorten aplikazio-lanak ikastetxetik kanpoko langileek egin zituzten eta haien kalitate-kontrolaren ardura Hezkuntzako Ikuskaritzarena izan zen.

Ikastetxeetan probak bi egunez jarraian aplikatu zituzten. Horien iraupena, gutxi gorabehera, egunean hiru ordukoa izan zen guztira. Egun haietako bakoitzean, ikasleek errendimenduko bi probari erantzun zieten. Konpetentzia jakin baten inguruko proba batetik bestera 20 minutuko atsedenaldia izan zuten. Euskarazko eta Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari dagozkion bi probak egun ezberdinetan egin zituzten. Horrez gain, egun horietako batean, ikasleek beren buruari, familiari eta eskolari buruzko galdera-sorta osatu behar izan zuten.

Konpetentziak		Lehen Hezkuntzako 4. maila
Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	Euskara	60 minutu*
	Gaztelania	60 min.*
Matematikarako konpetentzia		45 min.
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia		45 min.

* Denbora-tarte horretan, hizkuntza-konpetentziako hiru dimentsioetako probak egin ziren: idatzizko ulermena eta idazmena, eta entzumena.

Hezkuntza maila bera osatzen zuten ikastetxeko talde guztiek probak egun, baldintza eta ordutegi beretan egin zituzten. Ikastetxe baitako ebaluaziorako barneko euskarri gisa, Zuzendaritzak, ebaluazio diagnostikoa egiteko Koordinazio Batzordearen bidez, aplikazioa garatzen lagundu eta jarduna erraztu zuen.

b) Populazioaren deskribapena

Euskadiko ebaluazio diagnostikoan, funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan eskolatutako **Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek** parte hartu zuten (jabetza publikokoak eta itunpekoak). Hau da ebaluazioaren bi edizioetako biztanleriaren banaketa:

	Lehen Hezkuntzako 4. maila	
	ED09	ED10
Ikastetxe kopurua	518	522
Talde kopurua	964	982
Ikasle kopurua	18.236	19.036


➤ Ikastetxe kopurua

Jarraian ageri diren tauletan, ikastetxe kopurua ikus dezakegu ebaluazioan esku hartu zutenean indarrean zuten edo zituzten hizkuntza-ereduen arabera:

Lehen Hezkuntzako 4. maila ED 2010.					
Ikastetxeak eta hizkuntza-ereduak					
Eredu 1 duten ikastetxeak	%	2 eredu dituzten ikastetxeak	%	3 eredu dituzten ikastetxeak	%
434	83,1	86	16,5	2	0,4
Guztira, 522					

Lehen Hezkuntzan, ikastetxeen % 83k (434 ikastetxe) hizkuntza-eredu bakarra zuen (A, B edo D); ikastetxeen % 16k (86 ikastetxe) bi eredutan eskaintzen zuten irakaskuntza (A eta B, edo A eta D, edo B eta D) eta 2 ikastetxek soilik (% 1 baino gutxiagok) zituzten hiru ereduak indarrean (A, B eta D).

1.Grafikoa. ED10-LH4. Ikastetxeak eta eredu kopurua. Ehunekoak




➤ Talde kopurua

Jarraian, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxeetako talde kopurua ageri da hizkuntza-ereduen arabera:

Lehen Hezkuntzako 4. maila ED 2010.					
Hizkuntza-eredu bakoitzeko talde kopurua					
A eredia	%	B eredia	%	D eredia	%
77	7,8	281	28,6	624	63,5
Guztira: 982					

2010eko ebaluazio diagnostikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, 77 taldek osatzen zuten A eredia (maila horretako talde guztiak aintzat hartuta, % 8k); B eredia, aldiz, 281 taldek osatzen zuten (% 29k), eta D eredian 624 talde zeuden (hau da guztizkoaren ia % 64).


2. Grafikoa. ED10-LH4. Ikastaldeak hizkuntza-eredu bakoitzengan. Ehunekoak



➤ **Ikasleen ehunekoa geruzen arabera**

Euskadiko ikasleak, taulan ageri den moduan, hezkuntza-sistema osatzen duten sei geruzatan (sarea eta hizkuntza-eredua) banatzen dira.

3. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleak geruza bakoitzean. Ehunekoak



➤ Aplikazioan parte hartu zuten ikasleak

Jarraian, Euskadiko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 4. mailan matrikulatuta dauden ikasleen inguruko datuak biltzen dituzten taulak ageri dira; beste nolabait esanda, maila horietan 2010. urteko ebaluazio diagnostikoa egiteko zentsua osatu zuten ikasleak dira.

Zutabeetan ageri diren datuak ulertu ahal izateko, alderdi hauek zehaztuko ditugu:

- Ikasleak, guztira: maila bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua zehazten du. Datu horiek ikastetxeetako zuzendaritzek eman zituzten. (1. zutabea)
- Ikasleak barne: eskakizunak betetzen zituztelako hasiera batean probetan sartuta zeuden ikasleak ziren. (2. zutabea)
- Puntuazioa kontuan hartu ez zaien ikasleak: probak egiteko baldintza guztiak betetzen dituzten ikasleak dira, baina ikastetxeko edo taldeko datu orokorren azterketa egiteko garaian haien emaitzak kontuan hartu ez direnak. Horretarako arrazoiak hauek izan daitezke: barloatutako alderdi zehatzean CEIren bat zuten, euskara salbuetsita zuten, edo nahiz eta probara joan, maiz joaten ez direnen taldekoak ziren; urtebeteko eskolatzea baino gutxiagoko etorkinak ziren, eta gainera, ez zuten aplikazio-hizkuntza ezagutzen; eskolatzearen osagarria zen programa bat ari ziren egiten. (3. zutabea)
- Aurkeztu ez diren ikasleak: proban sartuta dauden ikasleak dira; hori dela eta, ebaluazioa egin beharko zuketean, baina gorabehera ezberdinak direla eta, aplikazio-egunean ez ziren bertan izan. (4. zutabea)
- Proba egin zuten ikasleak: probak egin zituzten ikasleen behin betiko kopurua da. Haien puntuazioak kontuan hartu dira emaitza orokorretan. (5. eta 6. zutabeak)

Gutxi gorabehera, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien % 97k egin zituen probak ebaluatutako kompetentzietan.

Lehen Hezkuntzako 4. maila	(1) Ikasleak, guztira	(2) Ikasleak barne	(3) Puntuazio gabeko ikasleak	(4) Aurkeztu ez diren ikasleak	(5) Proba egin eta puntuazioan sartu diren ikasleak	(6) Proba egin eta puntuazioan sartu diren ikasleen %
Euskarazko hizkuntza-kompetentzia	19.036	18.403	633	630	17.773	96,6
Gaztelaniazko hizkuntza-kompetentzia		18.549	487	636	17.913	96,6
Matematikarako kompetentzia		18.541	495	574	17.967	96,9
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia		18.605	431	595	18.010	96,8

2009-2010 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. mailan zeuden ikasleen kopurua 19.036koa zen, ikastetxeek emandako zerrenden arabera.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan oinarrizko lau kompetentzietako proba guztiak egin eta puntuazioa batez bestekorako kontuan izan zaien ikasleak 17.364 izan dira. Gutxienez lau probatako bat egin duten ikasleen kopurua 18.313koa izan da.

Txosten honetan, 4 konpetentzia horietako bakoitzean emaitzen azterketa egiteko dagokion konpetenziaren proba egin zuten ikasleen kopurua hartu dugu erreferentziatzat (5. zutabea). Ez dituzte kontuan hartu konpetentzia horretan puntuaziorik lortu ez duten ikasleak.

Indize sozioekonomiko eta kulturalaren aldagaia kalkulatzeko, ikasleen galdera-sortan horri dagozkion itemak bete dituzten ikasleak hartu dira erreferentzia gisa.

c) Probako hizkuntza

Matematikarako konpetenziako eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetenziako probak euskaraz edo gaztelaniaz egin zitezkeen. Erabaki hori ikastetxeen esku utzi zen; haiek erabaki zuten probetan erabili behar zuten hizkuntza etxeko hizkuntza edo heziketa-hizkuntza izango zen.

Heziketa-hizkuntza aukeratu zutenean, erabaki hori eredu bereko talde guztiei aplikatu zitzairen. Aldiz, familia-hizkuntza aukeratu zutenean, taldeko ikasle bakoitzaren egoera banaka aztertu zuten; hau da, talde beraren baitan, ikasle batzuek probak euskaraz egin zituzten hura zelako familia-hizkuntza, eta beste ikasle batzuek, aldiz, probak gaztelaniaz egin zituzten arrazoi hori bera dela eta.

Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-konpetentziak zegokien hizkuntzan aplikatu eta erantzun zituzten.

Ikasleen galdera-sortak konpetentzia ez-linguistikoko errendimendu-probetan erabilitako irizpide berekin aplikatu zituzten.

Ikastetxeek 2010eko ebaluazio diagnostikoko probak egiteko Lehen Hezkuntzako 4. mailari dagozkion hizkuntza-eredu bakoitzean ikastetxeek aukeratu zuten hizkuntza –famiakoa edo heziketakoa- ageri da hurrengo taulan.

Konpetentzia ez-linguistikoetan erabilitako probako hizkuntzaren inguruko datuak ereduaren arabera

Probetarako aukeratutako hizkuntza	Lehen Hezkuntzako 4. maila ED 2010.		
	Probetako hizkuntza-ereduak eta hizkuntza		
	A eredia	B eredia	D eredia
Etxeko-hizkuntza	7	45	13
Irakas-hizkuntza	70	236	611
Guztira: 982 talde			

Lehen Hezkuntzako 4. mailako hiru ereduetako 65 taldetan, ikasleek ebaluazioa familia-hizkuntzan egitea erabaki zuten (euskaraz edo gaztelaniaz). Hiru ereduetako 917 taldek, aldiz, probak heziketa-hizkuntzan egin zituen. Hau da, talde guztien % 7k proba familia-hizkuntzan egin zuen; aldiz, % 93k konpetentzia horiekin lotutako ikasgaietako heziketa-hizkuntza aukeratu zuen. Ikastetxeek erabaki hori eredu osorako hartu zuten; hori zela eta, ikastetxe hartako eredu bereko talde guztiek bete behar zuten.

d) Errendimendu-proben deskribapena

2010. urteari dagokion ebaluazio diagnostikoaren helburua 175/2007 Dekretuan zehaztutako lau konpetentzia neurtzea da. Edizio honetan konpetentzia hauek ebaluatu ziren:

- Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
- Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
- Matematikarako konpetentzia

- Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia

Lehen hiru horiek maila guztietan aplikatuko dituzte; aldiz, laugarren tokian ageri den hori edizio berri bakoitzean ordezkaturako dute. 2011. urtean, Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziak ordezkaturako du. Horren proba pilotua ikasleen lagin batekin egin zuten 2010eko ebaluazioa aplikatzen zuten bitartean.

Ebaluatutako lau kompetentzia horietako bakoitza neurtzeko erabili zuten itemen kopurua hau izan zen:

Kompetentziak	Dimentsioak	LH 4 - ED 2010
		Item kopurua
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Entzumena	20
	Idatzizko ulermena eta idazmena	23
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Entzumena	22
	Idatzizko ulermena eta idazmena	23
Matematikarako kompetentzia	Kopurua	9
	Espazioa eta forma	6
	Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna	3
	Problemen ebazpena	6
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	Gizarte-errealitatea	10
	Herritartasuna	6
	Elkarbizitza	6

Proba horietan, lau erantzun mota eskaintzen zituzten itemak ageri ziren:

- Erantzun itxiaren itema aukera anitzeko formatuarekin. Bakarra hautatzeko hainbat aukera eskaintzen du.
- Item erdi-itxia. Bi proposamenen artean, aukera bakarra hautatu behar da.
- Eraikuntza laburreko itema. Erantzun laburra, marrazkia, matematikako eragiketa bat, hutsunea betetzea eta abar eskatzen du.
- Item irekia. Erantzunen aukera zabala onartzen dute eta zuzentzeko garaian subjektibotasunak saihesti ahal izateko, horretarako irizpide argiak prestatu eta zereginerako hainbat maila finkatzen da.

Kompetentzia guztietan, erantzun gehienak aukera anitzekoak ziren. Urriagoak ziren erantzun erdi-itxiak edo eraikuntza laburrekoak, eta hizkuntza-kompetentziako probetan soilik zegoen idatzizko azalpen luzeko erantzuna eskatzen zuen item irekia (Lehen Hezkuntzaren kasuan, 60 hitz).

Lehen bi item mota horiek aplikazio informatikoaren bidez zuzendu zituzten. Aplikazio hark aukera zuzenari zegokion puntuazioa ematen zuen. Azken bi itemak, aldiz, helburu horietarako kontratatutako eta prestakuntza espezifikoak zuten langileek zuzendu zituzten. Kasu horietan, gainera, ISEI-IVEIk jarraipen-lana egin zuen zuzenketen artean egon zitezkeen desadostasun mailak ekiditeko edo ahalik eta gehien murrizteko.

e) Finkatutako gaitasun mailak

Emaitzak kompetentziarekin lotutako hiru mailatan antolatuta aurkeztu dituzte: hasierako maila, erdi maila eta maila aurreratu. Maila horietako bakoitza ikasleek ariketan proposatutako egoerak ebatzi

ahal ditzaten behar dituzten ezagutzen, trebezien eta gaitasunen arabera zehaztu dute, eta proba bakoitza puntuazio-tarteen arabera zehaztuta dago.

Hiru kompetentzia maila daude zehaztuta:

- **Hasierako maila.** Era ugaritako ikasleak biltzen ditu: dagokion hezkuntza-ziklokoak diren trebeziak eta edukiak ikasten hasi direnak zein laguntza pixka batekin, maila ertainari dagozkion eskakizunei aurre egiteko gai izan daitezkeenak.
- **Erdi-maila** ikasleen ehuneko handiak eskura ditzakeen trebeziak jasotzen ditu. Ebaluatutako kompetentzia bakoitzeko zailtasun ertaineko trebeziak eta edukiak jasotzen ditu.
- **Maila aurreratua**, aldiz, probetan ebaluatutako trebezia eta eduki konplexuenak jasotzen ditu. Maila honetan, duela gutxi ikasketak horiek menderatzeko prozesua sendotu duten ikasleak eta maila horretan erabat finkatuta dauden beste batzuk egon daitezke.

Kompetentzia bakoitzaren baitan errendimenduko mailak ezarri ahal izateko, aurretik helburu berarekin nazioarteko beste ebaluazio batzuetan erabili izan duten prozedura estandarizaturak erabili dute. Maila bakoitzerako *mugak identifikatzeko* prozesu horretan probak prestatzen parte hartu zuten profesional guztiek parte hartu dute: ISEI-IVEIko langileak, Hezkuntza Ikuskaritzakoak, maila ugaritako irakasleak eta prestakuntza ko aholkulariak. Horiez gain, prozesuan parte hartzera espresuki gonbidatutako beste irakasle batzuek ere esku hartu dute. Ebaluatutako kompetentzia edo dimentsio bakoitzerako bi muga finkatu dituzte. Horiei esker, lorpeneko edo erdiespeneko hiru maila identifika ditzakegu: hasierako maila, maila ertaina eta maila aurreratua (ikus kompetentzia edota ebaluatutako dimentsio bakoitzeko errendimendu mailen deskribapen-etaulak).

➤ **Kompetentziak nola neurtu diren**

Emaitzak puntuazio-eskalaren bidez neurtzen dira. Tresna horri esker, balio numeriko bat esleitu eta ikasleen kompetentzia mailak bereiz daitezke. Puntuazio-eskala horren garrantzizko ezaugarria ez da komunitatearen batez bestekoari esleitu zaion balio espezifikoak, baizik eta ikasleen, taldeen eta ikastetxeen emaitzak kokatzeko (gorantz edo beherantz) erabili beharko litzatekeen marka finkatzeko aukera eskaintzen duela.

2009ko ebaluazio diagnostikoaren batez besteko puntuazioa 250 puntutan ezarri zen, 50eko desbideratze tipikoarekin. Edizio honetan, batez besteko hori mantendu egiten da lehen aldiz ebaluatu den gizarte eta herritartasunerako kompetentziarako. Lehen ebaluazioan ezarritako 250 puntuak kompetentzia bakoitzean segidako edizioetan lortutako batez bestekoak barloatzeko erreferentzia gisa balio dute.

f) Ikaslearen galdera-sorta

Errendimendu-probez gain, ikasleek familiari buruzko galdera sorta bat ere bete zuten. Beste galdera batzuek jatorria, etxeko hizkuntza... ezagutzeko aukera ematen dute. Era berean, ikastetxez kanpoko alderdiak, ikastetxeari buruzko alderdiak, ikasleak ikasketekiko duen jarrera edo jakin batzuekiko nahiak ere aztertu ziren.

Ikerketa eta azterketa ugarik agerian utzi duenez, aldagai horietako askok eragina izaten du ikaslearen ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuan. Hori dela eta, bildutako informaziotik abiatuta, eta emaitzekin elkarren arteko harremanak ezartzeko helburuarekin, hainbat aldagai ezarri dira txosten honetarako: sexua, mailaren egokitasuna, eskolatzearen hasiera-adina, ikasleen jatorria, hizkuntzak emaitzetan duen eragina eta abar.

➤ INDIZE SOZIOEKONOMIKOA ETA KULTURALA

Indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK) kalkulatzeko informazioa ikasleek galdera-sortan emandako erantzunetatik jasotzen da. Indize honetan, maila profesional familiarrekin, familiako ikasketen gehieneko mailarekin eta alde zuzenak oso garrantzitsutzat jotako ondasun materialak eta kulturalak (etxean dagoen liburu kopurua, eguneko prentsa eta aldizkari espezializatuak irakurtzea, eta ordenagailua eta Interneteko sarbidea izatea) edukitzearekin lotutako arloak barne hartzen dira.

Banakako datuetatik abiatuta kalkulatu da ikastetxe bakoitzeko ikasleen batez bestekoa. Balio horrek "0" hartzen du oinarritzat –Autonomia Erkidegoko batez bestekoa–, eta 1eko desbideratze tipikoa du. Populazio osoa 4 mailatan banatu da (baxua, ertain baxua, ertain altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.


Kontuan izan behar da maila horiek ez direla absolutuak, konparagarriak baizik, hezkuntza etapa bakoitzean ebaluatutako ikasleen populazioaren barruan. Hori dela eta, baliteke ikastetxe bat, ebaluatutako bi irakasmilak baldin baditu, irakasmilak bakoitzean ISEK maila ezberdin batean egotea; izan ere, datuak ebaluatutako irakasmilako ikasleei buruzkoak dira, ez ikastetxe osoko ikasleei buruzkoak. Beraz, ikastetxeko ISEK indizea aipatzen denean, Lehen Hezkuntzako 4. mailan ebaluatutako ikastaldeetako ikasleen batez besteko ISEK indizea ulertu behar da.

2010eko ebaluazio diagnostikoan LHko 4. mailako ikasleen lau ISEK mailen balioak honako hauek dira:

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ISEK indizearen balio-tartea ED 2010


ISEK maila	Gutxieneko balioa	Gehieneko balioa	Batez besteko balioa
Baxua	-2,97	-0,49	-0,67
Ertain baxua	-0,48	-0,15	-0,18
Ertain altua	-0,14	0,21	0,13
Altua	0,20	1,47	0,65

5. Grafikoa. ED10-LH4. Indize sozio-ekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) balioak



Hurrengo grafiko honetan, orain arte egindako bi ebaluazioetako ISEK indizearen maila desberdinen balioak aldera daitezke. Ikus daitekeen moduan, ISEK balioek gora egin dute aurreko Ebaluazioaren edizioarekin alderatuta.

5. Grafikoa. ED10-LH4. Indize sozioekonomiko eta kulturalaren balioak. ED09-ED10



Taula honetan, ebaluazioan kontuan hartu diren sei geruzetako bakoitzean ikastetxeko ISEK indizearen batez besteko balioa ageri da¹.

Geruza	ISEK indizearen batez besteko balioa		Geruza bakoitzak 2010 aplikazioan duen ehunekoa	Geruza bakoitzak bere hezkuntza-sarearen baitan duen ehunekoa	
A Publikoa	-1,35	Baxua	2,6	5,2	Sare publikoa
B Publikoa	-0,48	Ertain baxua	7,2	14,4	
D Publikoa	-0,14	Ertaina Altua	40,2	80,4	
Itunpeko A	0,62	Altua	5,3	10,6	Itunpeko sarea
Itunpeko B	0,19	Ertaina Altua	23,2	46,3	
Itunpekoko D	0,23	Altua	21,6	43,1	

2009ko proban gertatu zen moduan, A eredu publikoaren geruza dago ostera ere ISEKeko mailarik baxuenean. Itunpeko A eta D ereduaren geruzak daude indize horren mailarik altuenean.

Bestalde, 2009. urteko ebaluazioko datuekin alderatuta, ikus daiteke D ereduaren dagoela sare publikoaren % 80, joan den urtean baino % 1 gehiago. Itunpeko sarean, A ereduaren ehunekoak % 1 baino zertxobait gehiago egin du behera.

Hurrengo taulak 2010. urtean eta aurreko urtean, 2009. urtean, ebaluazio honetan geruza bakoitzean Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikastetxeko batez besteko ISEK balioa erakusten du. Balioak aldatu diren arren, geruza bakoitzean maila berberetan mantentzen dira.

¹ Geruza bat ISEK maila jakin batean egoteak ez du esan nahi geruza horretako ikastetxe guztiek derrigorrez ISEK maila hori izan behar dutenik. Gainera, datuak behar bezala barloatzeko oso garrantzitsua da geruza bakoitzak 2010eko aplikazioan eta bere hezkuntza-sarearen barnean nolako pisua duen (ikastetxeen ehunekoa) kontuan izatea. Datuak ikaslearen galdera sortatik atera dira.

LH 4. mailako ISEKen batez besteko balioa. ED09 –ED10

Geruza	ED 2010		ED 2009	
	A Publikoa	-1,35	Baxua	-1,03
B Publikoa	-0,48	Ertain baxua	-0,46	Ertain Baxua
D Publikoa	-0,14	Ertaina altua	-0,13	Ertaina Altua
Itunpeko A	0,62	Altua	0,53	Altua
Itunpeko B	0,19	Ertaina altua	0,16	Ertaina Altua
Itunpeko D	0,23	Altua	0,21	Altua

3. LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO IKASLEEN EBALUAZIOKO EMAITZAK

3 A. EBALUATUTAKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

Definizioa

Hizkuntza euskaraz erabiltzeko trebetasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentipenak, gertakariak eta iritziak ahozko zein idatzizko diskurtsoen bidez adierazteko eta interpretatzeko trebetasuna eta, baita ere, gizarte eta kultura testuinguru posible guztietan hizkuntzaren bidez elkarreragitekoa.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia bost dimentsiotan dago egituratuta eta bost horietatik hurrengo hiru hauek ebaluatu dira:

- **Irakurmena euskaraz**

Askotariko testuetan oinarriturik galderak egiten zaizkie ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai diren, testuari koherentzia emateko bertako informazio ezberdinak lotzen dituzten, eta, azkenik, testuaren xedea eta igorlearen helburua identifikatzen dituzten barloatzeko.

- **Entzumena euskaraz**

Ahozko testuei buruzko galderen bidez ebaluatu da eta hurrengo hauetarako gaitasuna neurtu da: testuaren esanahi orokorra identifikatzeko, testuaren helburua antzemateko, behar den informazioa identifikatzeko eta hautatzeko, edo testua kritikoki interpretatzeko gaitasuna.

- **Idazmena euskaraz**

Euskarazko idazlan baten bidez, emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testuaren kohesioa eta koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia neurtu dira.

Dimensio hori barloatzeko, LH 4ko ikasleei 60 hitzeko idazlana eskatu zitzaion. 12 hitzetik gorako idazlan guztiak zuzendu dira eta honako alderdi hauek barloatu dira:

- Gaiaren egokitasuna eta garapena:
 - Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
 - Egoerarekiko hizkuntza-erregistro egokia erabili den ala ez.
 - Aditz-pertsonari eutsi dion.
- Testuaren koherentzia eta kohesioa:
 - Informazioaren aurrerapenari eutsi dion (ordena azalpenean, errepikapenak, inkoherentziak...)
 - Eskatutako testuaren egitura errespetatzen den eta alderdiak ondo bereizita ageri diren.
 - Eskatutako testuaren hizkuntza-baliabideak eta hizkuntzarenak ez diren baliabideak erabiltzen dituen.
- Lexikoa, gramatika eta ortografia:
 - Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoak erabiltzea).
 - Erabilitako esaldi motak.
 - Ortografia-akats larriak eta puntuazio-akatsak.

- Oraingo ebaluazio diagnostikoan ebaluatu ez diren dimentsioak hauek dira: mintzamina eta ahozko elkarreragina.

• Emaidza orokorrak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian


Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen batez besteko emaitza 254 puntukoa da, ebaluazio diagnostikoaren lehen ediziorako ezarritako batez bestekoaren gaineratik 4 puntu, 250 puntutan ezarri baitzen. Hurrengo taulak kompetentzia honetan sartutako ikasle kopurua erakusten du, baita lortu diren gehieneko eta gutxieneko puntuazioak ere, bai kompetentzia orokorrean, bai ebaluazioa egin den hiru dimentsioetan. Kompetentzia honetako puntuazio orokorreko gehieneko puntuazioa 371 puntukoa da, eta gutxienekoa 106 puntukoa.

Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Kopurua	Txikiena	Handiena	Batez bestekoa	Desb. tip.
Puntuazio orokorra	17.773	106	371	254	43,97

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren hiru kompetentzia mailetako bakoitzean (hasierakoa, erdikoa eta aurreratua).

Datuak orokorki aztertzen baditugu, LHko 4. mailako ikasleen % 27k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen ia % 44 kompetentziako erdiko mailan dago, eta % 29k kompetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du.

Ikasleen % 73 Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren maila ertainean eta aurreratuan dago.



Ondoko taulak gaineratik deskribatzen du ebaluazio honetan definitu diren errendimendu maila bakoitzean (hasierakoa, erdiko maila eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailen deskribapen-taula

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Maila honetako ikasleek nolabaiteko zailtasunak dituzte testuak euskaraz ulertzeko. Ahozko eta idatzizko testu hurbiletan (elkarrizketak, jakinarazpen laburrak) informazio garrantzitsua (datuak, batez ere) identifikatzeko gai dira. Era berean, ikasleek testu laburretan eta argietan zentzu orokorra eta ideia nagusiak identifikatzen dituzte. Zenbait kasutan, eta irudien laguntzarekin, edukia interpretatzen dute, inferentzia zuzenak egiten dituzte eta ohiko erabilerako testuen generoa	Hasierako mailan deskribatutako zereginaz gain, erdiko mailan dauden ikasleek trebeziak egiten dituzte ulermen-ariketak (ahozkoa eta idatzizkoa). Ahozko eta idatzizko hainbat testutan, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai dira. Maila honetako ikasleek inferentziak egiten dituzte eta edukia beren ideiekin bat etorriaz interpretatzen dute. Dagokien eskola mailako hiztegia eta ohiko adierazpenak ezagutzen dituzte, eta era berean, igorlea eta testuaren generoa identifikatzen dituzte. Bestalde, maila honetako ikasleek	Hasierako eta erdiko mailan deskribatutako zereginaz gain, maila aurreratuan dauden ikasleek zereginak konplexuenak ere ebazten dituzte eta zailtasunik handieneko testuak erabiltzeko gai dira. Helburua ezagutzen dute eta hainbat arloretako testuetan (familiarak, akademikoak, komunikabideak) eduki zehatzak identifikatzen dituzte. Era berean, maila honetako ikasleek ondo egiten dituzte zuzeneko eta zeharkako inferentziak, testuak laburtzen dituzte eta erabiltzeko

ezagutzen dute. Bestalde, maila honetako ikasleek testuak osatu gabe idazten dituzte euskaraz, eta batzuetan ez dute eskatutako komunikazio-helburua lortzen. Batzuetan, testuetan oso egituratuta ez dauden eta erroreak dituzten datuak eskaintzen dituzte.	testu sinpleak eta beren interesetik hurbil daudenak idazten dituzte (narrazioak, esate baterako). Testuaren helburua kontuan hartzen dute, erregistro egokia aukeratzen dute, informazioa oinarritzko moduan egituratzen dute eta beren eskola mailako gramatikako, ortografiako eta lexikoko arau gehienak errespetatzen dituzte.	hiztegia ezagutzen dute. Maila honetako ikasleek, idatzizko testuak egiteko, testuaren helburua kontuan hartzen dute, eta erregistro egokia eta hizkuntza-baliabide anitzak erabiltzen dituzte. Lortu nahi den helbururako garrantzitsua den informazioa aukeratzeko gai dira eta gramatika-, ortografia- eta lexiko-arauak errespetatzen dituzte.
--	---	---


• Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak dimentsioen arabera

Jarraian, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ebaluatu diren hiru dimentsioen analisia eta kompetentzia mailen arabera ikasleen banaketa erakusten da.

Euskarazko hizkuntza-komunikazioaren dimentsioak	Kopurua	Txikiena	Handiena	Batez bestekoa	Desb. tip.
Entzumena	17.773	83	367	247	43
Irakurmena		113	373	258	51
Idazmena		146	374	250	50

Grafikoan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ebaluatutako dimentsioetan Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen banaketa ikus daiteke.

7. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera *euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan*



Hasierako mailako ehunekoa antzekoa da hiru dimentsioetan, % 29 ingurukoa.

Maila aurreratuan, irakurmenak du ehunekorik altuena, % 35koa, hain zuzen ere, eta idazmenaren dimentsioaren nahiko antzekoa da, % 32koa. Entzumena, maila aurreratuan, % 18ra iristen da, eta erdiko mailan ikasleen % 50era iristen da.

Ondoko taulak ebaluzio honetan definitu diren errendimendu maila bakoitzean (hasierakoa, erdi-maila eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du.

Hiru dimentsioetan, **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako** errendimendu mailen deskribapen-taula

Dimentsioak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Entzumena	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira...</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testu laburrak entzun ostean informazio zehatza identifikatzen dute. ✓ Batzuetan, testuaren ideiak erlazionatzen dituzte eta edukiari buruzko inferentziak egiten dituzte. ✓ Batzuetan, oso ohikoa den testu baten generoa (ipuina) identifikatzen dute. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira...</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren zentzu orokorra identifikatzen dute. ✓ Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzen dituzte. ✓ Testuaren edukiari buruzko inferentziak egiten dituzte. ✓ Batzuetan, testu-generoa (ipuina, albiste laburra) identifikatzen dute. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira...</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazio garrantzitsua kokatzen dute. ✓ Testuak entzun ostean, informazioa laburtzen dute (elkarrizketa, ipuina, albiste). ✓ Hainbat arloretako ahozko testuaren generoa eta hiztegia identifikatzen dute.
Irakurmena	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira...</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Idatzizko testu sinpleen (elkarrizketa informala, jakinarazpena) informazio zehatza identifikatzen dute. ✓ Ohiko testuaren zentzu orokorra identifikatzen dute. ✓ Batzuetan, haurrentzako aldizkari batetik datozen testuaren informazio-edukia laburtzen dute. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira...</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Hainbat testuaren (jakinarazpena, haurrentzako aldizkarian argitaratutako elkarrizketa, literatura-testu laburra) informazio garrantzitsua aukeratzen dute. ✓ Testuaren igorlea ezagutzen dute eta edukiari buruzko inferentziak egiten dituzte. ✓ Beren eskola mailako lexikoa ezagutzen dute. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira...</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Irakurketaren helburua identifikatzen dute (nobela, eskolako aldizkari digitaleko albiste). ✓ Testu laburren ideien arteko lotura ezagutzen dute. ✓ Zuzeneko eta zeharkako inferentziak egiten dituzte. ✓ Testu biografiko laburraren edukia laburtzen dute (haurrentzako aldizkari batetik eratorrita).
Idazmena	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira...</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Proposatutako helburua lortzeko zailtasunak dituzte. ✓ Batzuetan, gaien zerrendak idazten dituzte, baina ez dituzte ideiak garatzen. ✓ Edukiak errepikatzen dituzte eta ez dute narrazioaren egitura errespetatzen. ✓ Hiztegi mugatua, osatu gabeko esaldiak eta akastunak erabiltzen dituzte. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira...</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Beren bizipenetatik hurbil dagoen testu bat idazteko egokia den informazioa eta erregistroa aukeratzen dute. ✓ Eskatutako egoera batzuk bakarrik aipatzen dituzte eta ez dituzte guztiz garatzen. ✓ Batzuetan, akatsak egiten dituzte, baina akats horiek ez dute komunikazioa zailtzen. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira...</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Planteatutako helburua lortzeko testu egokiak eta zuzenak idazten dituzte (norbere esperientziari buruzko narrazioa). ✓ Eskatutako gaia eta egitura planteatu eta garatzen dituzte. ✓ Ortografia-, gramatika- eta sintaxi-arauak jarraitzen dituzte. ✓ Hiztegi egokia eta errepikapenik gabea erabiltzen dute.

Hauek dira dimentsioen arabera erabilitako testuak:

- Entzumena: elkarrizketa, ipuina, albiste
- Irakurmena: elkarrizketa informala, jakinarazpena, elkarrizketa, testu-zatia, ibilbidea, albiste laburra.
- Idazmena: haurtzaroko gertaeraren bati buruzko kontaketa


- **Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzien emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)**

Ondoko taulan eta grafikoan, ebaluazioa honetan geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lotutako puntuazioak ageri dira. Horrekin batera, geruza bakoitzeko batez besteko puntuazioan sartu diren ikasle kopurua ageri da.

Euskarazko komunikaziorako kompetentziako emaitzak geruzen arabera

Geruza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A publikoa	393	173	1,18
B publikoa	1.257	237	1,19
D publikoa	7.148	261	0,47
Itunpeko A	940	203	1,21
Itunpeko B	4.152	250	0,62
Itunpeko D	3.883	271	0,62
Guztira: 17.773			

8. Grafikoa. ED10-LH4. Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak geruzen arabera



Geruzen arteko aldeak esanguratsuak dira

Jarraian, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* geruza bakoitzean lortutako puntuazioen aldean adierazgarritasuna adierazten duen taula dator.

Hurrengo taulan ikus daiteke *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako* kompetentziako hiru dimentsioetako geruzen arteko puntuazio-aldeak adierazgarriak diren.

Neurriek estatistikoki duten garrantzia aztertu ostean, honako hau esan daiteke:


- Itunpeko A eredu eta A eredu publikoko *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako* kompetentziako emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira. Itunpeko A eredu geruzaren eta A eredu publikoaren arteko aldea ere esanguratsua da, itunpekoaren hobe izanik.

- Itunpeko D ereduak eta D eredu publikoak gainerako geruzek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte. Era berean, itunpeko D ereduan emaitzak nabarmen altuagoak dira D eredu publikoan baino.

Horixe bera gertatzen zen 2009. urteko ebaluazio diagnostikoan ere.

Ondoko grafikoan, geruza bakoitzean *Euskarazko hizkuntza*-komunikaziorako kompetentzian ezarritako hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira.

9. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean *euskarazko Hizkuntza*-komunikaziorako kompetentzian



Geruzak errendimendu mailen arabera aztertzeak agerian jartzen ditu *Euskarazko hizkuntza*-komunikaziorako kompetentziaren hasierako maila gainditzeko ez duten A geruza publikoko (% 98) eta itunpeko A geruzako (% 78) ikasleen ehuneko altuak.


B geruza publikoan, ikasleen % 43 ez da kompetentzia honetako hasierako maila gainditzera iristen.

D geruza publiko eta itunduek biltzen dute ikasleen ehunekorik altuena maila aurreratuan (% 33 D eredu publikoan eta % 43 itunpeko D ereduan).

- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera**


Jarraian, *Euskarazko hizkuntza*-komunikaziorako kompetentzian ebaluatu diren hiru dimentsioetako emaitzak grafikoki adierazten dira geruzen arabera. Lehen grafikoan, ebaluatutako hiru dimentsioetako bakoitzean geruzen arabera lortutako puntuazioa ikusten da, eta agerikoa denez, geruza bakoitzaren baitako puntuazioa nahiko antzekoa da.

10. Grafikoa. ED10-LH4. Emaitzak euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan geruzen arabera



Hurrengo grafikoan, informazio berbera biltzen da, baina dimentsioen arabera dago aztertuta. Ikus daitekeen moduan, geruzen arteko aldeak oso garrantzitsuak dira dimentsio guztietan.

11. Grafikoa. ED10-LH4. Emaitzak euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako geruzetan dimentsioen arabera




Ikus daitekeen moduan, itunpeko D eredu geruzak eta D eredu publikokoak dira Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ebaluatutako dimentsio guztietan emaitza onenak lortu dituztenak. Hizkuntza-eredua oso garrantzitsua da Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren garapenean.

- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziaren emaitzak hizkuntza-ereduen arabera**

Euskarazko hizkuntza-komunikazioan, ikasleak ikasketak jaso dituen hizkuntza-ereduak eragin handia du emaitzetan. Eragin hori orain arte egindako ikerlan eta ebaluazio guztietan egiaztatu da, eta askoz handiagoa da ebaluatutako gainerako kompetentzietan baino.

Ondoko grafikoan ageri dira *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako* kompetentzian hizkuntza-eredu bakoitzean lortutako puntuazioak. Ereduen arteko emaitzen alde guztiek esanduratsuak dira.


12. Grafikoa. ED10-LH4. Errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian hizkuntza-ereduen arabera



Hizkuntza-ereduen araberako antolaketak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian lortutako emaitzei eragiten die. Grafikoak erakusten du D ereduko ikasleek 17 punturekin gainditu dituztela B ereduko emaitzak, eta 70 punturekin A eredukoak. Bestalde, B eta D ereduen artean aldea 17 puntukoa da eta adierazgarria da.

Hurrengo grafikoan, hizkuntza-ereduen arabera azterketa bateko maila bakoitzean kokatzen diren ikasleen ehunekoak ageri dira. A ereduko ikasleen ehunekoak oso handiak dira hasierako mailan eta oso txikiak maila aurreratuan, eta horrek eragin nabarmena izan behar du emaitza orokorretan.


13. Grafikoa. Errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian hizkuntza-ereduen arabera



Kompetentzia honetan, hizkuntza-ereduen arteko ikasleen ehunekoen barriadura agerikoa da:


- A ereduko ikasleen % 84 hasierako mailan dago eta % 3 ere ez da maila aurreratura iristen.
- B ereduan, % 32k ez du hasierako maila gainditzen, baina % 21ek maila aurreratu lortzen du. Ikasleen ia % 50ek erdiko maila lortzen du.
- D ereduan, % 18 hasierako mailan dago eta % 37 maila aurreratura iristen da.

Ondoko grafikoan hiru hizkuntza-ereduetako errendimendua ageri da kompetentziako hiru dimentsioetako bakoitzean.




A ereduko emaitzen aldeak, dimentsio guztietan, nabarmen baxuagoak dira.


Ondoko grafikoetan hiru hizkuntza-ereduetako ikasleen banaketa ikus daiteke Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ebaluatutako hiru dimentsioetan.



16. Grafikoa. ED10-LH4. B ereduko ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera *euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako* kompetentziako dimentsioetan




17. Grafikoa. ED10-LH4. D ereduko ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera *euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako* kompetentziako dimentsioetan



A ereduan, ikasleen % 81 hasierako mailan dago idazmenean, eta % 84, entzumenean. Ehuneko horiek asko murrizten dira B ereduan (% 35 idazmenean eta % 33 entzumenean). D ereduan hasierako mailako ikasleen ehunekoa % 20koa da hiru dimentsioetan.

Informazioa osatzeko, hizkuntza-eredu bakoitzaren barneko portaera aztertu da *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ebaluatu diren dimentsioetako emaitzen orekari dagokionez.

18. Grafikoa. ED10-LH4. Hizkuntza-eredu bakoitzeko errendimendua *euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako* kompetentziako dimentsioen arabera




Ereduen arteko emaitzetan aldea dagoen arren, bakoitzaren baitako hiru dimentsioetako puntuazioak oso antzekoak dira. A eta B ereduetan, irakurmenaren emaitza nabarmen altuagoa da. D ereduaren baitan, dimentsioen arteko aldeak nabariak dira.

Hiru ereduetan, puntuaziorik altuena *Irakurmenean* lortu dute.

A eta B ereduetan, ikasleek puntuazio berbera lortu dute *Entzumenean* eta *Irakurmenean*.

• Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziaren emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera

Ikasleen etxeko hizkuntza aztertzean, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek kompetentzia honetan 273 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat dutenek 247 puntuko errendimendua lortu dute. Puntuazioan ageri den aldea adierazgarria da.




Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia proban parte hartu duten ikasleak etxeko hizkuntzaren arabera

Euskara	Euskara ez dena	Ez daki/Ez du erantzuten
Kopurua	Kopurua	Kopurua
4.782	12.734	257

Jarraian, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako errendimendu mailetan kokatzen den ikasleen ehunekoak ageri da etxeko hizkuntzaren arabera.


20. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan *euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* etxeko hizkuntzaren arabera



Etxeko hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza bat duten ikasleen ehunekorik altuenak hasierako mailan biltzen dira. Maila aurreratuko ehunekorik altuena etxeko hizkuntza euskara duten ikasleei dagokie, ia % 46ra iristen da. Etxeko hizkuntza gaztelania edo beste bat denean, ehunekoa erdira murrizten da, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* maila horretan % 23 bakarrik baitago.

Aurreko ebaluazio batzuetan ondorioztatutakoaren arabera, etxeko hizkuntzak eta eskolatzeko hizkuntza-ereduak nabarmen eragin dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* emaitzetan. Hurrengo grafikoa, D ereduiko ikasleen banaketa ikus daiteke etxeko hizkuntzaren arabera.

21. Grafikoa. ED10-LH4. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia*. D ereduiko ikasleen ehunekoa errendimendu mailetan etxeko hizkuntzaren arabera




D ereduiko ikasleen artean alde nabaria dago ehunekoaren banaketan ikasleen etxeko hizkuntza euskara edo beste hizkuntza bat denean, eta etxeko hizkuntzaren arabera, ehunekoak kompetentziako hiru mailetan aldatzen dira. Etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleen kasuan (gehienetan gaztelania), hasierako mailan ehunekoa ia bikoiztu egiten da. Maila aurreratuan dago etxeko hizkuntza euskara duten D ereduiko ikasleen % 48, eta maila horretan dago etxeko hizkuntza besteren bat duten ikasleen % 30.

- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)**

Lehen Hezkuntzako 4. mailako populazio osoa 4 mailatan banatu da (baxua, ertain baxua, ertain altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.

Ondoko grafikoan euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lortu den batez besteko errendimendua ageri da ikasleen ISEKek ezarritako lau mailen arabera

22. Grafikoa. ED10-LH4. Errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ISEK mailaren arabera



Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lotura esanguratsua ikusten da ISEK maila baxuaren, ertain-baxuaren eta ertain-altuaren eta errendimenduaren artean. ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua orduan eta hobea izango da, eta aldeak esanguratsuak dira kasu guztietan. Salbuespena dago maila ertain altuko (260 puntu) eta maila altuko (259) emaitzen artean, eta arrazoia hau izan liteke: itunpeko A ereduaren geruzako ikasleen ehunekoa oso handia da ISEK maila altuan, baina ikasle horiek oso puntuazio apala lortu dute konpetentzia honetan (230 puntu; eta batez bestekoa 254koa da). Egoera hori bera gertatu zen 2009ko ebaluazioan ere.

Emaitzak hizkuntza-ereduen arabera aztertzen direnean, banan-banan ohiko portaera dutela ikusten da, hots, ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, puntuazioak orduan eta altuagoak izaten direla.


A eredian maila ertain-baxua eta ertain-altua batu dira, bietan ikasle kopuru baxua osatzen delako. Bien batuketa 182ra iristen da.

A ereduko ikasleak ISEK mailen arabera

ISEK maila	Ikasle kopurua
Maila baxua	406
Maila ertain baxua	86
Maila ertain altua	96
Maila altua	745


Aztertu diren A ereduko ISEK hiru mailen artean *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* lortutako puntuazioetan alde adierazgarriak daude.

23. Grafikoa. ED10-LH4. A ereduko errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ISEK mailen arabera




B ereduan, lau ISEK mailetan puntuazioen artean dauden aldeak esanguratsuak dira. Zenbat eta ISEK maila handiagoa, orduan eta puntuazio hobea.

24. Grafikoa. ED10-LH4. B ereduko errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ISEK mailen arabera




D ereduan, lau ISEK mailetan puntuazioen artean dauden aldeak esanguratsuak dira.

25. Grafikoa. ED10-LH4. D ereduko errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ISEK mailen arabera



Jarraian, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren hiru mailetan dagoen ikasleen ehunekoa grafikoki erakusten da lau ISEK tarteetan arabera.


26. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian errendimendu maila bakoitzean ISEK mailen arabera



Ikasleen maila sozioekonomikoa eta kulturala gorantz doan heinean, errendimenduko maila aurreratuan dagoen populazioaren kopuruak ere gora egitea da ohikoena; hori gertatzen da maila baxutik maila ertain altura doazen mailen artean. Beraz, ez da oso ohikoa ISEK maila altuko ikasleen ehuneko bera edo txikiagoa egotea maila aurreratuan maila ertain-altuari dagokionean baino.

Hurrengo grafikoak geruza bakoitzeko ikasleen banaketa erakusten du ISEK mailaren arabera.

27. Grafikoa. ED-LH4. Ikasleen ehunekoa geruza bakoitzean ikastetxeko ISEK mailen arabera




Itunpeko A geruzan ikasleen % 79 ISEK maila altuan dago: ehuneko altu horrekin, erraz ondoriozta daiteke *euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* tarte horretan ikasleek lortzen dituzten emaitza baxuak (194 puntu, batez bestekoa 254 puntukoa denean) erabakigarriak direla ISEK maila altuko puntuazioak maila ertain altukoak baino nabarmen baxuagoak zergatik diren azaltzeko.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziaren errendimenduan izandako bilakaera: ED2009 –ED2010

- Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako emaitza orokorretan izandako bilakaera

Lehen ebaluazio diagnostikoan, ED09an, 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen kompetentzia guztietarako. Edizio honetan, ED10ean, ikasle bakoitzak lortutakoa da batez bestekoa, 254 puntukoa *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*. Aurreko urtearekin alderatuta lortu den 4 puntuko aldea adierazgarria da.

28. Grafikoa. ED10-LH4. *Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia. Emaitzen bilakaera*




- Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera

Grafikoan ikus daitekeen moduan, 2010eko ebaluazioan maila aurreratuan kokatzen den ikasleen ehunekoak % 1 egin du behera 2009. urtearekin alderatuta. Maila baxuagoa 6 puntu baxuagoa da, hori da arlo positiboa. Erdiko mailako ehunekoa 2009ko ebaluazioan baino 7 puntu altuagoa da.

Bi urteri dagozkien datuek informazio eskasa ematen dute eta ebaluazioko hurrengo edizioetan biltzen denarekin kontrastatu beharko da tarteko mailako ikasleek gora egiteko joera hori mantentzen den ikusteko, betiere, hasierako mailako ehunekoaren kalterako.


29. Grafikoa. ED10-LH4. *Ikasleen banaketaren bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako errendimendu mailen arabera*



- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera ereduaren arabera**

Bi ebaluazioetan emaitzen bilakaera aztertzen denean, hizkuntza-eredu guztietan nolabaiteko hobekuntza nabari da. A ereduak erakusten du alderik handiena; izan ere, 2010eko emaitzek 8 puntutan gainditzen dituzte 2009koak; hala ere, eredu bakoitzaren baitako alde guztiak adierazgarriak dira. Egindako bi ebaluazioetan, D ereduko errendimenduak soilik gainditzen du Euskadiko batez bestekoa.

30. Grafikoa. ED10-LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera hizkuntza-ereduen arabera




- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian D ereduko ikasleen banaketaren bilakaera etxeko hizkuntzaren arabera.**

Etxeko hizkuntzaren arabera errendimendu maila bakoitzean kokatzen den D ereduko ikasleen ehunekoak aintzat hartuta bilakaera aztertzen denean, ikus dezakegu etxeko hizkuntza euskara ez den beste bat dutenen kasuan, hasierako mailak % 5 egin duela behera, baina era berean, maila aurreratuan dauden ehunekoak ere behera egin du (% 3).

Ikasleen etxeko hizkuntza euskara denean, maila aurreratuko ehunekoak % 7 egin du behera, maila ertainaren mesedetan; izan ere, hasierako mailak lehengo ehunekoari eutsi dio.

31. Grafikoa. ED10-LH4. Errendimendu mailetan, etxeko hizkuntzaren arabera, D ereduko ikasleen banaketa bilakaera



EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAREN AZTERKETATIK ERATORRITAKO ONDORIOAK

1. Ikasleen banaketa hiru errendimendu mailetan.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu maila bakoitzean ikasleen duten banaketa antzekoa da hasierako mailan (% 27) eta maila aurreratuan (% 29). Gutxi gorabehera, % 44 erdiko mailan kokatzen da.

Konpetentzia osatzen duten dimentsioen arabera azterketan, hasierako mailan antzeko ehunekoa nabari da hiru dimentsioetan, % 29 inguru. Maila aurreratuan, irakurmenak du ehunekorik altuena, % 35; idazmenaren oso antzekoa, % 32. Entzumenean, % 18k soilik lortu du maila aurreratua, eta ikasleen % 50 baino zertxobait gehiago dago erdiko mailan.

Geruzen eta errendimendu mailen arabera azterketak agerian jarri ditu Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren hasierako maila gaintitu ez duten A geruza publikoko (% 98) eta itunpeko A ereduko (% 78) ikasleen ehuneko altuak (% 98). B geruza publikoan, ikasleen % 43 ez da konpetentzia honen hasierako maila gaintitzera iristen. D geruza publikoak eta itunduak maila aurreratuan biltzen dute ikasleen ehunekorik altuena (% 33 D publikoan eta % 43 itunpeko D eredian).

2. Emaitzak geruzen arabera (sarea eta eredia)

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lortutako emaitzetako aldearen garrantziari erantzunez, geruzen arabera hau ikus daiteke:

- Itunpeko A ereduko eta A eredu publikoko emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira. Itunpeko A ereduko geruzaren eta A eredu publikoaren arteko aldea ere nabaria da, itunpekoaren alde.
- Itunpeko D ereduak eta D eredu publikoak gainerako geruzek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte. Era berean, itunpeko D eredian emaitzak nabarmen altuagoak dira D eredu publikoan baino.
- Hizkuntza-eredua funtsezkoa da *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* garapenean.

3. Emaitzak hizkuntza-ereduen arabera

D ereduko ikasleek (264 puntu) soilik gaintitzen dute Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren batez besteko orokorra (254 puntu). B eredian, batez bestekoa 247 puntukoa da, eta A eredian, berriz, 194 puntukoa.

4. Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek etxeko hizkuntza gaztelania edo besteren bat duten ikasleek baino emaitza askoz hobekak lortu dituzte. Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen % 46k errendimenduko maila aurreratua lortu dute konpetentzia honetan.

5. Emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, hizkuntza-ereduen arabera aztertzen denean, lotura handia dago ISEKen mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

Emaizta orokorrak eta ISEKen mailak aztertzen direnean, ikus daiteke maila altuko ikasleek ISEK maila ertain altuko ikasleek baino emaitza baxuagoak lortzen dituztela. Itunpeko A ereduko ikasleen ehuneko altu batek ISEK altua izan arren, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* emaitzak baxuak direlako gertatzen da hori.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren errendimenduan izandako bilakaera: ED2009 –ED2010

7. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitza orokorretan izandako bilakaera

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian 2010eko ebaluazio diagnostikoan ikasleek lortutako batez bestekoa 254 puntukoa da. Aurreko edizioarekin alderatuta % 4ko aldea izatea adierazgarria da.

8. Ikasleen banaketaren bilakaera kompetentzia mailen arabera

2010eko ebaluazioan maila aurreratuan kokatzen den ikasleen ehunekoak (% 29) % 1 egin du behera 2009ko urtearekin alderatuta. Maila baxuak (% 27) % 6 egin du behera eta hori positiboa da. Erdiko mailan dagoen ikasleen ehunekoak (% 44) 2009ko ebaluazioan baino % 7 altuagoa da.

9. Emaizten bilakaera hizkuntza-ereduen arabera

Hobekuntza txiki bat antzematen da hizkuntza-eredu guztien emaitzetan. Hala ere, A ereduak du alderik handiena; izan ere, 2010eko emaitzek 8 puntuko aldearekin gainditu dituzte 2009koak. Eredu bakoitzaren baitan, alde guztiak nabarmen handiagoak dira 2010. urteko ebaluazioan.

Egindako bi ebaluazioetan, D ereduaren errendimenduak soilik gainditzten du Euskadiko batez bestekoa.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia

Definizioa

Gaztelaniaz hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkarreragiteko.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia 5 dimentsiotan dago egituratuta eta bost horietatik hurrengo hiru hauek ebaluatu dira:

- **Irakurmena gaztelaniaz**

Era askotariko testuetan oinarriturik galderak egiten zaizkie ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai diren, testuari koherentzia emateko bertako informazio ezberdinak lotzen dituzten, eta, azkenik, testuaren xedea eta igorlearen helburua identifikatzen dituzten barloatzeko.

- **Entzumena gaztelaniaz**

Mota desberdinetako testuen bidez ebaluatu da eta hurrengo hauetarako gaitasuna neurtu da: testuaren esanahi orokorra identifikatzeko, testuaren helburua antzemateko, behar den informazioa identifikatzeko eta hautatzeko, edo testua kritikoki interpretatzeko gaitasuna.

- **Idazmena gaztelaniaz**

Gaztelaniazko idazlan baten bidez, emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testuaren kohesioa eta koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia neurtu dira.

Dimentsio hori barloatzeko, Lehen Hezkuntzako ikasleei 60 hitzeko idazlana eskatu zitzaizen. 12 hitzetik gorako idazlan guztiak zuzendu dira eta honako alderdi hauek barloatu dira:

- Gaiaren egokitasuna eta garapena:
 - Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
 - Egoerarekiko hizkuntza-erregistro egokia erabili den ala ez.
 - Aditz-pertsonari eutsi dion.
- Testuaren koherentzia eta kohesioa:
 - Informazioaren aurrerapenari eutsi dion (ordena azalpenean, errepikapenak, inkoherentziak...)
 - Eskatutako testuaren egitura errespetatzen den eta alderdiak ondo bereizita ageri diren.
 - Eskatutako testuaren hizkuntza-baliabideak eta hizkuntzarenak ez diren baliabideak erabiltzen dituen.
- Lexikoa, gramatika eta ortografia:
 - Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoak erabiltzea).
 - Erabilitako esaldi motak.
 - Ortografia-akats larriak eta puntuazio-akatsak.

- Oraingo ebaluazio diagnostikoan ebaluatu ez diren dimentsioak hauek dira: mintzamena eta ahozko elkarreragina.

Emaitza orokorrak

- **Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako batez besteko emaitzak**


2010eko ebaluazioan *Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek lortutako batez besteko emaitza 256 puntukoa da. Gehieneko puntuazioa 411 puntukoa izan da eta gutxienekoa 65 puntukoa.

Hurrengo taulan, kontuan hartu diren ikasle kopurua eta kompetentzia horretako gutxieneko eta gehieneko puntuazioak ikus daitezke.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Kopurua	Txikiena	Handiena	Batez bestekoa	Desb. tip.
Puntuazio orokorra	17.913	65	411	256	59

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren hiru kompetentzia mailetako bakoitzean.

32. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoak errendimendi mailen arabera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia*



Datuak orokorki aztertzen baditugu, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 20k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen ia % 46 kompetentziako erdiko mailan dago, eta % 34k kompetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren errendimendu maila bakoitzean (hasierakoa, erdiko maila eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Hortik abiatuta, talde bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta daiteke.

Kompetentzia mailen deskribapena *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak osatu gabe eta zati batean bakarrik gauzatzea ahalbidetzen diote, eta gehienetan ez du komunikazio-helburua betetzen. Hizkuntzaren funtzionamendua partzialki bakarrik menderatzen du, eta gutxitan ezagutzen eta erabiltzen ditu hizkuntza-elementuak egoki.</p> <p>Entzumenari eta irakurmenari dagokienez, ahozko zein idatzizko testu sinple baten zentzu orokorra antzemateko gai da, baldin eta modu argian aurkezten bazaio, ez baita gai zentzua ondorioztatzeko. Testuko ideia nagusia eta testuaren xedea ezagutzeko gai da, baita informazio zehatza eta esplizitua identifikatzeko ere, datuak, bereziki. Adin horretako ohiko hitz batzuen esanahia ere ezagutzen du.</p> <p>Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, testu sinpleak idazteko gai da; hala ere, zailtasunak ditu emandako komunikazio egoerari dagokion hizkuntza-erregistroa erabiltzeko. Batzuetan testu motaren oinarriko ezaugarriak erabiltzen ditu, eta eskatzen zaizkion zenbait datu ematen ditu; testu mota ez du erabiltzen xedea lortzeko behar den besteko osotasunaz eta eraginkortasunaz. Ideien antolamenduaren eta garapenaren aldetik gabeziak erakusten ditu, baita testuaren kohesioan ere. Hizkuntza-baliabideak neurri batean bakarrik menderatzen ditu eta hainbat akats egiten ditu hiztegian, gramatikan eta ortografian.</p>	<p>Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak egoki gauzatzea ahalbidetzen diote eta gehienetan komunikazio-helburua betetzen du. Hizkuntzaren funtzionamendua menderatzen du, eta hizkuntza-elementuak adinari dagokion moduan ezagutzen eta erabiltzen ditu.</p> <p>Entzumenari eta irakurmenari dagokienez, hasierako mailan deskribatutakoaz gain, testuko ideia ezberdinak bereizteko gai da, baita eskatutako informazio gehiena (datuak, ideiak...) aurkitzeko ere. Irakasmailari dagozkion maiztasun handiko hitzen edo esapideen esanahia ezagutzen du; zenbait ondorioztatze sinple egiteko gai da.</p> <p>Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, testuak komunikazio-xedea kontuan izanik, erregistro egokia erabiltzaile eta testu motaren oinarriko ezaugarriak errespetatuta idazteko gai da. Ideiak nolabaiteko koherentziarekin aurkezten ditu testuaren xedea lortzeko. Testu-kohesioari laguntzen dioten hizkuntza-baliabide batzuk erabiltzen ditu. Arau gramatikal, lexiko eta ortografikoak neurri handian betetzen ditu.</p>	<p>Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak eraginkortasun maila altuarekin gauzatzea ahalbidetzen diote eta gehienetan komunikazio-helburua betetzen du. Hizkuntzaren funtzionamendua menderatzen du, eta hizkuntza-elementuak adinari dagokion moduan ezagutzen eta erabiltzen ditu.</p> <p>Entzumenari eta irakurmenari dagokienez, hasierako eta erdiko mailan deskribatutakoaz gain, testuko ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai da, baita informazio zehatzak aurkitzeko eta testuaren pasarteren bat laburtzeko ere. Halaber, informazioa eta ezagupen pertsonala erlazionatzeko gai da. Informazio inplizitu edo anbiguorik gehiena identifikatzen du, eta bere irakasmilan maiztasun handikoak ez diren hitzen esanahia ezagutzen du.</p> <p>Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, xedea argi erakusten duten testuak idazteko gai da, erregistro egokia erabiltzen du eta testu motaren oinarriko ezaugarriak errespetatzen ditu. Ideiak koherentziaz aurkezten eta garatzen ditu testuaren xedea lortzeko. Ideiak adinari dagozkion etorriarekin, zuzentasun ortografiko eta gramatikalarekin adierazteko gai da.</p>


● **Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak dimentsioen arabera**

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ebaluatu diren hiru dimentsioetan lortutako batez besteko emaitzak aztertzen baditugu, honako hau ikusten da: Entzumenean puntuaziorik handiena 404 puntukoa izan da, eta txikiena, 76 puntukoa. Irakurmenean puntuaziorik handiena 385 puntukoa izan da eta txikiena, 76 puntukoa. Idazmenean puntuaziorik handiena 373 puntukoa izan da, eta txikiena, 156 puntukoa.

<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	Kopurua	Txikiena	Handiena	Batez bestekoa	Desb. tip.
Entzumena	17.913	76	404	259	58
Irakurmena		76	385	252	56
Idazmena		156	373	250	50

Ondoko grafikoa ikasleen banaketa ageri da konpetentzia mailen arabera eta *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ebaluatu diren hiru dimentsioetan.

33. Grafikoa. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean *gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* dimentsioen arabera ED10-LH4.



Hiru dimentsioek antzeko jokaera erakusten dute ezarritako hiru mailetan; hala ere, *Idazmenean* dago erdiko mailako ikasle-ehunekorik handiena.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren konpetentzia maila bakoitzean (hasierakoa, erdiko eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Hortik abiatuta, talde bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta daiteke.

***Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* errendimendu mailen deskribapena hiru dimentsioetan**

	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Entzumena	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Zentzu orokorra identifikatu; informazio zehatza antzeman eta identifikatu; datuak bereizi; informazio garrantzitsua bereizi eta hedapen-testuaren helburua ezagutu. ✓ Komunikabideetako narrazio batean erabilitako hiztegia ezagutu. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testu-generoa ezagutu, informazio zehatza identifikatu, informazio garrantzitsua bereizi eta komunikabideen narrazio bateko informazio zehatzak erlazionatu. ✓ Eskatutako informazio zehatzak kokatu, proposatutako helburuei erantzuteko beharrezkoak diren informazioak aukeratu, testuaren helburua ezagutu, testu batean edukia interpretatu eta erlazionatu, eta testuaren edukia kontatutako elkarrizketa batean eta hedapen-testu batean norbere ezagutzekin lotuta interpretatu. ✓ Hurbileko eta familiareko gaiak lantzen dituen zuzeneko elkarrizketan informazio zehatzak ezagutu, identifikatu eta erlazionatu. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Kontatutako elkarrizketa baten testuaren eta hedapen-testu baten edukiari buruzko inferentziak egin.

Irakurmena	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Komunikabideetako informazio-testu batean hiztegia ezagutu eta informazio zehatza identifikatu. ✓ Literatura-erabilerako nobela baten pasartean igorlea antzeman, informazio zehatza eta gai nagusia identifikatu. ✓ Informazio oso garrantzitsua bereizi; testu mota eta testuaren xedea erlazionatu, identifikatu eta bereizi; komunikabide eta kontakizun arloko informazio-testu batean helburua eta testu mota bereizi. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Eskatzen zaizkion informazio zehatzak aurkitu; finkatutako helburua betetzeko eman zaion informazioa erabili; komunikabideetako informazio-testu batean edukia bere ezagupen pertsonalekiko interpretatu. ✓ Nobela baten pasarte bateko denbora-segidak ordenatu. ✓ Kontakizun baten elementu inplizituak berriz osatu 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Komunikabide idatzietako eta kontakizun bateko informazio-testu baten xedea identifikatu. ✓ Informazio zehatz konplexua hautatu; literatura-erabilerako nobela baten pasarte baten eta hedapen-testu baten edukia buruzko inferentzia ez-zuzenak egin.
Idazmena	<p>Ikasleek maila honetan sortutako testuek ezaugarri hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testua eskatutako helburuari nekez egokitzen zaio. ✓ Datu urriak eman eta garatzen ditu. ✓ Erregistro desegokia erabiltzen du. ✓ Errepikapenak ditu eta garapenik gabeko informazioa du. ✓ Ideia desordenatuak eskaintzen ditu. ✓ Testu biografiko baten antolaketa-egitura osatugabea aurkezten du. ✓ Hiztegian, gramatikan eta ortografian errore asko txertatzen ditu. 	<p>Ikasleek maila honetan sortutako testuek ezaugarri hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testua eskatutako helburuari egokitzen zaio. ✓ Eskatutako datu batzuk eskaini eta garatzen ditu. ✓ Erregistro formala erabiltzen du, nahiz eta batzuetan tonua desegokia izan. ✓ Informazioaren aurrerapen egokia eskaintzen du. ✓ Ideiak mailaz maila ordenatzen ditu. ✓ Testu biografiko baten oinarritzko antolaketa-egitura aurkezten du. ✓ Hitzak edo adierazpenak ez ditu alferrik errepikatzen. ✓ Lexiko egokia erabiltzen du. ✓ Oro har, ortografia-arauak eta gramatika-arauak (bere eskola-adinekoak) errespetatzen ditu. 	<p>Ikasleek maila honetan sortutako testuek ezaugarri hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testua eskatutako helburura egokitzen da. ✓ Eskatutako datuak eskaini eta garatzen ditu. ✓ Erregistro egokia erabili eta mantentzen du. ✓ Informazioan modu egokian aurrera egiten du. ✓ Ideiak ordena logikoarekin azaltzen ditu. ✓ Testu biografiko baten oinarritzko antolaketa-egitura aurkezten du. ✓ Informazioaren argitasuna eskaintzen duen testu-antolatzailearen bat erabiltzen du. ✓ Ez ditu hitzak edo adierazpenak errepikatzen ✓ Lexiko zehatza erabiltzen du. ✓ Oro har, ortografia-arauak eta gramatika-arauak (bere eskola-adinekoak) errespetatzen ditu.

Hauek dira dimentsioen arabera erabilitako testuak:

- Entzumena: hedapen-testua, komunikabideen narrazioa, kontatutako elkarrizketa.
- Irakurmena: komunikabideen informazio-testua, literatura-erabilerako nobela baten pasartea, hedapen-testua, kontakizuna.
- Idazmena: gutxienez 60 hitz dituen familiarreko baten biografia.


• **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako batez besteko emaitzak geruzen arabera**

Ondoko taulan eta grafikoa, ebaluazioa honetan geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lotutako puntuazioak ageri dira. Horrekin batera, geruza bakoitzeko puntuazioan sartu diren ikasle kopurua ageri da.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko emaitzak geruzen arabera

Geruzak	Kopurua	Batez bestekoa	D.T.
A Publikoa	437	215	2,74
B Publikoa	1260	250	1,71
D Publikoa	7206	248	0,68
Itunpeko A	946	278	1,81
Itunpeko B	4177	271	0,91
Itunpeko D	3887	254	0,91
GUZTIRA 17.913			

34. Grafikoa. ED10-LH4. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzien errendimendua geruzen arabera



Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan izan ezik


Neurriek estatistikoki duten garrantzia aztertu ostean, honako hau esan daiteke:

- A geruza publikoak gainerako geruzek baino emaitza baxuagoak ditu.
- B eta D geruza publikoen arteko puntuazio-aldea ez da adierazgarria.
- Itunpeko A geruzak gainerako geruzek (publikoak eta itunpekoak) baino emaitza hobekak lortu ditu.
- Itunpeko B eta D geruzen emaitzak edozein geruza publikokoak baino altuagoak dira. Itunpeko geruzen artean, D ereduak lortu ditu emaitza baxuenak.

Puntuazioen esanahia 2009ko ebaluaziokoaren berdina da. B eta D geruza publikoen emaitzetako aldea estatistikoki begiratuta ez da adierazgarria.

Ondoko grafikoan, *Gaztelaniazko Hizkuntza*-komunikaziorako kompetentzian finkatutako hiru errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira geruza bakoitzean.

35. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoak errendimendu-maila bakoitzean gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian geruzen arabera




Ikasleek geruzen arabera kompetentzia mailetan duten banaketa aztertuz, hau nabarmen daiteke:

- Geruza publikoek Euskadiko ehuneko orokorra gainditzen dute Hasierako mailari dagokionez.
- Erdiko mailako ehunekoa geruza guztietan % 40 eta % 50 artean dago.
- Maila aurreratuan itunpeko A eta B geruzek nabarmen gainditzen dute batez bestekoaren ehunekoa (% 33,8). A geruza publikoak (% 14,4) du ehunekorik baxuena aipatutako mailan.

• **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera**

Kompetentzia honetan hiru dimentsioek duten garrantzia aintzat hartuta, hurrengo grafikoan, Euskadiko hezkuntza-sistema osatzen duten 6 geruzetan Gaztelaniazko hizkuntza-dimentsio bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak ikus daitezke.


36. Grafikoa. ED10-LH4. Dimentsioetako errendimendua geruzen arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian



3 dimentsioetan lortutako puntuazioak nahiko homogeenak dira geruza bakoitzaren baitan; horrek honako hau esan nahi du: 3 dimentsioei emandako garrantziaren baliokidetasunean probak berak koherentzia izateaz gain, ikastetxeek ere modu orekatuan irakasten dituzte aipatutako ebaluatutako dimentsioak.

Hurrengo grafikoan, hizkuntza-komunikazioaren dimentsioetan puntuazioek duten aldea ikusten da geruzen arabera.

37. Grafikoa. ED10-LH4. Geruzetako errendimendua dimentsioen arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian



Hainbat geruzaren artean puntuazio-alderaketa ezartzen denean, alde handia nabarmendu daiteke baten eta besteen emaitzen artean. Itunpeko A geruzak lortu ditu Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian emaitzarik onenak hiru dimentsiotan; aldiz, A geruza publikoan kontrakoa gertatzen da.

Puntuazioetako aldean adierazgarritasunari dagokionez, honako hau ikusten da:

- B geruza publikoko eta itunpeko D ereduko entzumenean lortutako emaitzetako aldea ez da adierazgarria. Geruzen arteko alde guztiak adierazgarriak dira.
- D eta B sare publikoko geruzetan irakurmeneko emaitzetan dagoen aldea ez da adierazgarria. Geruzen arteko gainerako aldeak adierazgarriak dira.
- Idazmeneko emaitzetako aldea ez da adierazgarria B eta D geruza publikoen artean. Geruzen arteko gainerako aldeak adierazgarriak dira.

• **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera**


Ikasleen etxeko hizkuntza aztertzean, etxean euskara erabiltzen duten ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* proban 245 puntu lortu dituztela ikusten da, eta etxeko hizkuntza euskara ez dutenek (gehienek gaztelania) 260 puntuko errendimendua lortu dutela. Aldea esanguratsua da.

Errendimendua etxeko hizkuntzaren arabera

Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	A.T.
Euskara	4.751	245	0,82
Euskara ez dena	12.686	260	0,53


*Taula honetan ez da aintzat hartu konpetenziaren ebaluazioan parte hartu duten ikasleen % 2,7 (476 ikasle), galdera-sortako galdera horretan "Ez daki/Ez du erantzun" erantzun duelako

38. Grafikoa. ED10-LH4. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetenzian errendimendua etxeko hizkuntzaren arabera



Jarraian, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetenziako* hiru errendimendu mailetan kokatzen den ikasleen ehunekoa ageri da, etxeko hizkuntzaren arabera.

39. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu mailetan gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetenzian etxeko hizkuntzaren arabera




Maila aurreratuan, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoa % 26koa da; hala ere, maila horretan, etxeko hizkuntza euskara ez den (gehienek gaztelania) ikasleen ehunekoa % 37ra iritsi da. Banaketa mailaka alderatzean, etxeko hizkuntzaren arabera, ikus daiteke etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehuneko handiagoa dagoela hasierako mailan eta gutxiago maila aurreratuan.

- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetenziaren emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)**

Lehen Hezkuntzako 4. mailako populazio osoa ISEKeko 4 mailatan banatu da (baxua, ertain baxua, ertain altua eta altua). Haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.

Ondoko grafikoan *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* lortu den batez besteko errendimendua ageri da ezarritako lau ISEK mailen arabera.


40. Grafikoa. ED10-LH4. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia errendimendua ISEK mailaren arabera



Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, hizkuntza-ereduen arabera aztertzen denean, lotura handia dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarrian, ISEK mailen arabera ageri da konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa.

41. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia ISEK mailen arabera




ISEK maila altuenean, ikasleen % 89 konpetentzia honetako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da; aldiz, ISEK maila baxuenekoen artean dago ikasleen % 71

Konpetentzia honetako maila aurreratua aztertzen badugu, ISEK maila altuan ikasleen % 44 biltzen den bitartean, ISEK maila baxuan erdiak, % 26, daudela ikusten da.

- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lortutako eta esperotako emaitzen arteko alderaketa, ISEKen arabera**

Hasierako analisiak geruza bakoitzak *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lortutako emaitzak erakusten ditu (barra urdinean adierazita). Grafikoan, horrez gain, indize sozioekonomiko eta kulturalaren aldagaiaren eragina indargabetuko balitz, geruza bakoitzak lortuko lituzkeen puntuazioak (laranjak) erakusten dira.

42 Grafikoa. ED10-LH4. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia batez besteko puntuazioa eta ISEK indizea kontrolatu ondorengo puntuazioa



Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan izan ezik

Ikus daitekeen moduan, A eta D eredu publikoko geruzek eta itunpeko D ereduok puntuazioa hobetu egin dute; bien bitartean, itunpeko A eta B ereduak puntuazioan okerrera egin dute ISEK aldagaiaren efektua kontrolatu denean.

Aldeen adierazgarritasuna aztertu ostean, ondorio gisa esan daiteke indize sozio-ekonomikoa eta kulturalaren eragina ezeztatuko balitz, hurrengo hau gertatuko litzatekeela:


- Itunpeko B eta D geruzen artean ez litzateke alde handirik izango.
- Gainerako geruzen artean aldeak adierazgarriak dira, baita B eta D publikoen artean ere; zuzeneko puntuazioetan ez zen hala.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian errendimenduan izan den bilakaera: ED2009 –ED2010

- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitza orokorren bilakaera**

Lehen ebaluazio diagnostikoan, ED09an, 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen kompetentzia guztietarako. Edizio honetan, ED10ean, ikasle bakoitzak lortutakoa da batez bestekoa, 256 puntukoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*. Aurreko urtearekin alderatuta lortu den 6 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.


43. Grafikoa. ED10.LH4. Batez besteko emaitzen bilakaera *Gaztelaniazko Hizkuntza-Komunikaziorako kompetentzian*



- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera**

Grafikoa ikus daitekeen moduan, 2010eko ebaluazioan maila aurreratuan kokatzen den ikasleen ehunekoak % 7 egin du gora 2009. urtearekin alderatuta. Hasierako mailako ehunekoak ere % 2 egin du gora, hori da arlo negatiboa.

44. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen banaketaren bilakaera *gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailen arabera*




- Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzen bilakaera geruzen arabera**

Grafikoan, geruza bakoitzak *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* orain arte egindako bi ebaluazioetan lortutako emaitzak islatzen dira.

A eredu publikoaren geruzan izan ezik, geruza guztietan puntuazioak zenbait puntua egin du gora. Bi ebaluazioetako emaitzen arteko aldea adierazgarria da geruza guztietan, lehen aipatu dugun A eredu publikoan izan ezik, berdin mantentzen baita.

45. Grafikoa. ED10-LH4. Emaitzen bilakaera geruzen arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian



GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIEN EMAITZEN AZTERKETATIK ABIATUTAKO ONDORIOAK

1. Ikasleen banaketa konpetentziako hiru errendimendu mailetan.

Hau da ikasleen banaketa errendimendu-mailetakoko bakoitzean: Lehen Hezkuntzako ikasleen % 20k Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hasierako mailari dagozkion trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen % 46 inguru konpetentziako erdiko mailan dago, eta ikasleen % 27k konpetentziako maila aurreratuari dagozkion zeregin konplexuagoak gauzatzea lortu du.

2. Ikasleen banaketa Konpetentzian ebaluatutako dimentsioen arabera

Ikasleen % 50 inguru erdiko errendimendu mailan dago ebaluatutako hiru dimentsioetan. *Idazmenean*, ikasleen % 29k maila aurreratua lortzen du, eta ikasleen erdiak baino gehiago, % 53, erdiko mailan daude. *Irakurmenean*, % 31k maila aurreratua lortu du eta ikasleen ia erdia (% 49) erdiko mailan dago. *Entzumenean*, ikasleen % 35 maila aurreratuan dago eta % 48 erdiko mailan dago.

3. Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian itunpeko A geruzetako emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen altuagoak dira. A eredu publikoko emaitzak, berriz, nabarmen baxuagoak dira. B eta D eredu publikoen artean ez dago alde adierazgarririk. Itunpeko D ereduaren puntuazioa sare bereko B-ko puntuazioa baino baxuagoa da.

Konpetentzia mailaren arabera banaketan, hasierako mailan, itunpeko hiru geruzak batez bestekoaren behetik (% 20) kokatzen dira, eta B eta D geruza publikoak zertxobait gainera. Maila aurreratuan dago itunpeko A geruzako ikasleen % 48 eta itunpeko B ereduak % 45. B geruza publikoa eta itunpeko D geruza batez besteko ehuneko orokorrera (% 34) hurbiltzen dira eta D geruza publikoa horren behetik geratzen da (% 28).

4. Emaitzak ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera

Etxeko hizkuntza euskara ez duten (gehienek gaztelania) ikasleek 260 puntu lortu dituzte Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian; etxeko hizkuntza euskara dutenena baino puntuazio nabarmen handiagoa, horiek 245 puntuko batez bestekoa lortu baitute.

5. Emaitzak indize sozialaren, ekonomikoaren eta kulturalaren arabera (ISEK)

Indize soziala, ekonomikoa eta kulturala (ISEK) ikasleen emaitzetan eragina duen aldagaia da. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lotura adierazgarria dago ISEK mailaren eta maila guztietako errendimenduaren artean; zenbat eta ISEK altuagoa, orduan eta emaitza hobek.

ISEK maila altuenean, ikasleen % 89 konpetentzia honetako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da; aldiz, ISEK maila baxuenekoen artean dago ikasleen % 71.

Geruzetan ISEK aldagaiaren efektua kontrolatzen denean, itunpeko B eta D ereduaren kasuan geruzen artean aldeak adierazgarriak izango lirakekeela ikus daiteke.

6. Matematikarako kompetenziaren errendimenduaren bilakaera: ED2009 –ED2010

Ikasleek 2010. urteko edizioan lortutako puntuazioa % 6 altuagoa da eta aldea joan den urtean baino nabarmen handiagoa da.

Errendimendu mailen arabera ikasleen banaketak adierazten du ikasle ehuneko handiagoa dagoela maila aurreratuan, ia % 7 gehiago, baina hasierako mailan ere ikasleen ehunekoa % 2 altuagoa da.

Geruzen arabera, guztiek egin dute hobera 2010ean, A eredu publikoak izan ezik; azken horrek ebaluazioan aurreko edizioaren emaitza mantentzen du.

Matematikarako kompetentzia

Definizioa

Matematikarako kompetentzia zenbakiak, haien oinarriko eragiketak, sinboloak eta adierazpen eta arrazoitze matematikoko formak erabiltzeko eta lotzeko gaitasuna da, bai informazio mota ugariak sortzeko eta interpretatzeko, bai errealitateko kuantitatibo eta espazialei buruzko ezagutza zabaltzeko, baita eguneroko bizitzarekin eta laneko munduarekin lotutako arazoak konpontzeko ere.

Matematikarako kompetentzia 4 bloke edo dimentsio handitan egituratu da:

- Kopurua
- Espazioa eta forma
- Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna
- Problemen ebazpena

Ebaluazio honetan, *Matematikarako kompetentzia* orokortasunean neurtzen da, eta gainera, dimentsio bakoitzean emaitzak zehazten dira; hala ere, proba osatzen duten item kopurua ez da nahikoa emaitzak fidagarriak direla bermatzeko.

Emaitza orokorrak


• Matematikarako kompetentziako batez besteko emaitzak

Matematikarako kompetentziako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen batez besteko emaitza 248 puntutan ezarri da. Hurrengo taulan, kompetentzia honetan aintzat hartu diren ikasle kopurua ikus daiteke, baita lortutako gehieneko (396 puntu) eta gutxieneko (97 puntu) puntuazioa ere.

Matematikarako kompetentzia	Kopurua	Txikiena	Handiena	Batez bestekoa	Desb. tip.
Puntuazio orokorra	17.967	97	396	248	51

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren kompetentzia mailetako bakoitzean.

46. Grafikoa. ED10.LH4. Ikasleen ehunekoak errendimendu mailaren arabera *Matematikarako kompetentzian*



Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 15ek hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen % 50 inguru kompetentziako erdiko mailan dago, eta ikasleen % 33 inguruk *Matematikarako kompetentziako* maila aurreratuari dagozkion trebezia konplexuagoak menderatzen ditu.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren kompetentzia maila bakoitzean (hasierakoa, erdiko maila eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Hortik abiatuta, talde bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta daiteke.

Matematikarako kompetentziako mailen deskribapen-taula

Hasierako maila	Maila ertaina	Maila aurreratua
<p>Maila honetan dagoen ikasleak zenbakiak irakurtzeko, idazteko, konparatzeko eta ordenatzeko zenbakien oinarritzko ezagupenak erabiltzen ditu. Eragiketa bateko problema oso sinpleak ebazten ditu batuketa, kenketa eta biderketa erabiliz, baina sarritan arazoak izaten ditu eragiketa bat baino gehiago eskatzen duten problemak ebazteko. Objektu ezagunen luzera-neurrien estimazioak egiten ditu eta espazioan kokagune ezberdinak antzematen ditu. Kasu gehienetan, egoera sinpleetan tauletako eta grafikoetako taulak elkartzeko gai da.</p>	<p>Maila honetako ikaslea, hasierako mailan deskribatutako trebetasunaz gain, batuketak, kenketak edo/eta biderketak egitea eskatzen duten problemak aise eta estrategia desberdinak erabiliz ebazteko gai da. Igarkizunak eta logika eta eragiketa-arrazoiketako problema sinpleak ebazteko gai da. Batze- eta biderkatze-egoeren inguruko problemak bi eragiketa ezberdin erabiliz ebazten ditu. Ohiko egoeretan magnitudeei eta neurriei buruzko informazioak interpretatzen ditu, eta neurriei buruzko problemak unitate desberdinekin ebazten ditu (dirua, pisua, luzera, edukiera, denbora). Espazio-adierazpenaren oinarritzko sistemak erabiltzen ditu espazio fisikoari dagozkion informazioak interpretatzeko eta lantzeko; arrazoiketa espazialeko problema sinpleak ebazten ditu. Figura geometrikoak elkarren artean bereizten dituzten ezaugarri batzuk identifikatzen ditu. Tauletako eta grafikoetako informazioa lotzen du eta problemak ebazteko erabiltzen du. Matematika-gai desberdinen arteko loturak egiteko gai da, eta horri esker, nolabaiteko konplexutasuna duten ariketak eta problemak segurtasunez ebaz ditzake.</p>	<p>Maila honetan dagoen ikasleak, aurreko mailetako kompetentziez gain, arrazoiketa landuagoak erabiltzen ditu oinarritzko lau eragiketarako batzuk (zatiketa barne) ebaztea edo magnitude bateko unitateak bihurtzea eskatzen duten problema originalak eta matematika-egoera konplexuagoak ebazteko. Oro har, egoera-arazoei aurre egiteko eta ebazteko segurtasuna du, eta baita egindako kalkuluak eta emaitza matematikoki adierazteko ere.</p>

• **Emaitzak Matematikarako kompetentziako dimentsioen arabera**


Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek ebaluatutako Matematikarako kompetentziako lau dimentsioetan lortutako batez besteko emaitzak aztertuz, egoera hau ageri da: Kopuruan,

gehieneko puntuazioa 362 puntukoa izan da eta gutxienekoa 140 puntukoa. *Espazioan eta Forman*, gehieneko puntuazioa 311 puntukoa izan da eta gutxienekoa 140 puntukoa. *Aldaketa, erlazioa eta Ziurgabetasunean*, gehieneko puntuazioa 360 puntukoa izan da eta gutxienekoa 121 puntukoa. *Azkenik, Problemen ebazpenean*, gehieneko puntuazioa 371 puntukoa izan da eta gutxienekoa 164 puntukoa.

<i>Matematikarako kompetentzia</i>	Kopurua	Txikiena	Handiena	Batez bestekoa	Desb. tip.
Kopurua	17.967	141	362	250	50
Espazioa eta forma		144	311	250	50
Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna		122	359	250	50
Problemen ebazpena		166	371	250	50

Jarraian, ikasleen banaketa ageri da kompetentzia mailen arabera eta *Matematikarako kompetentzian* ebaluatu diren lau dimentsioetan.

47. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehuneko errendimendu-mailetan matematikarako kompetentzian dimentsioen arabera



Dimentsio guztiek jokaera antzekoa erakusten dute errendimendu mailen arabeko banaketari dagokionez. Erdiko mailak biltzen du ikasleen % 50 lau dimentsioetan, eta maila aurreratuak, kasu guztietan, % 33 gainditzen du.

Kompetentzia mailen adierazleak taula honetan deskribatzen dira:

Hasierako maila Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira, oro har:	Erdi-maila Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira, oro har:	Maila aurreratua Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira, oro har:
<ul style="list-style-type: none"> ♦ Posizioak, mugimenduak eta ibilbide sinpleak identifikatzen ditu espazio erreal batean edo oso kale-plano sinple (laukiduna) batean. ♦ Sarrera bikoitzeko koadro baten eta barra- edo linea-grafiko baten oinarriko elementuak identifikatu eta interpretatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Hainbat testu numerikotan (prezioak dituzten erakuslehoak, publizitate-liburuxkak, albisteak...) ageri diren zenbaki arrunten eta ohiko zatikien balioa interpretatzen du. ♦ Asmakizun txikiak, joko numerikoak eta arrazonomendu numerikoko eta logikoko problemak ebazten ditu. ♦ Ebazteko metodori egokiena aukeratzen du eta oinarriko moduan adierazten du kalkuluak egiteko jarraitu duen prozesua. ♦ Ohiko testuinguruetan neurtzeko 	<ul style="list-style-type: none"> ♦ Asmakizun txikiak, joko numerikoak eta nolabaiteko zailtasuna duten arrazonomendu numerikoko eta logikoko problemak ebazten ditu. ♦ Ohiko testuinguruetan neurtzeko problemak ebazten ditu unitate desberdinekin (dirua, pisua, luzerak, edukierak, orduak, minutuak eta segundoak), magnitude bereko unitate ohikoaren artean bihurtetarako erabiliz. ♦ Kale-plano eta plano errazen gaineko distantziak kalkulatzeko

	<p>problema ebazten ditu unitate desberdinekin (dirua, pisua, luzerak, edukierak, orduak, minutuak eta segundoak).</p> <ul style="list-style-type: none"> ♦ Ohiko testuinguruetan (testu numeriko errazak), magnitudeei eta neurri buruzko informazioak eta mezuak zentzuz interpretatzen ditu. ♦ Espazio-arrazonamenduko oinarritzko problema ebazten ditu. ♦ Kale-plano eta plano errazen (laukidunak) gaineko distantziak kalkulatzeko eta neurtzen ditu. ♦ Irudi laua edo espazio-irudia ezagutzen du, horren ezaugarrien ahozko deskribapenetik abiatuta. ♦ Problema ebazten ditu eguneroko egoeretatik ateratako sektoreen grafikoetan aurkeztutako datuen interpretaziotik abiatuta (kirol-sailkapenak, temperatura-etaulak...). ♦ Aldaketa eta konbinazioko entzumen-egoera konplexuei (pentsamendu itzulgarria...) buruzko eragiketen problema ebazten ditu. ♦ Biderketa-egoerei buruzko problema ebazten ditu eragiketa batekin (eskalakoak) edo bi eragiketarekin (neurketen errepikapenak). ♦ Konbinazioen eta kontaketa sistematikoaren problema errazak ebazten ditu. 	<p>neurtzen ditu, erreferentzia metrikoak erabiliz.</p> <ul style="list-style-type: none"> ♦ Forma eta gorputz geometrikoen elementu bereziak (aldeak, aurpegiak, angeluak, erlazioak...) deskribatzen ditu hiztegi geometriko egokia erabiliz. ♦ Esanahi, erlazio, arrazonamendu eta estrategia desberdinak jokoan jartzen ditu problemaren datu numerikoak argi identifikatzeko eta problema ebaz dezaketeko eragiketak ezagutzeko. ♦ Alderaketa eta berdinketako egoera konplexuei (pentsamendu itzulgarria) buruzko eragiketa bateko problema ebazten ditu. ♦ Beharrezkoak baino datu gehiago dituen problema batetik abiatuta, beharrezko datuak berriz eman eta/edo erabiltzen ditu eta problema ebazten du.
--	---	--


• Matematikarako kompetentziaren emaitzak geruzen arabera

Ondoko taulan eta grafikoan, ebaluazioa honetan geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lotutako puntuazioak ageri dira. Horrekin batera, geruza bakoitzeko puntuazioan sartu diren ikasle kopurua ageri da.

Matematikarako kompetentziaren emaitzak geruzen arabera

Geruzak	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A Publikoa	435	214	2,10
B Publikoa	1282	237	1,41
D Publikoa	7210	244	0,60
Itunpeko A	960	258	1,66
Itunpeko B	4195	253	0,75
Itunpeko D	3885	254	0,80
GUZTIRA 17.967			

48. Grafikoa. ED10-LH4. Errendimendua *matematikarako kompetentzian* geruzen arabera




Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan izan ezik

Puntuazioen artean aldeak dauden arren, alde horiek ez dira beti estatistika-ikuspegitik adierazgarriak izaten. Matematikarako kompetentziako batez besteko emaitzetan aldeak aztertu ostean, adierazgarritasunaren ikuspegitik honako hau ondorioztatzen da:

- A eredu publikoko emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira.
- Itunpeko A ereduaren geruzak gainerako geruzenak baino nabarmen altuagoak diren puntuazioak lortu ditu.
- Itunpeko B eta D ereduaren artean ez dago alde adierazgarririk.
- Hizkuntza-eredu bakoitzean, sare publikoari dagozkien geruzek itunpeko sarekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte.

Ondoko grafikoan, geruza bakoitzean *Matematikarako kompetentzian* finkatutako hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira.

49. Grafikoa. ED10-LH4. *Matematikarako kompetentzian* ikasleen ehunekoa errendimendu maila bakoitzean geruzen arabera




Geruzetako ikasleen banaketa hiru konpetentzia mailetan aztertzean honako hau nabarmendu behar da:

- Hasierako mailan itunpeko hiru geruzetako ikasleen ehunekoak batez bestekoa (% 15) baino txikiagoak dira: itunpeko A (% 11,2), itunpeko B (% 11,3) eta itunpeko D (% 12,1). Bestalde, hiru geruza publikoek, hasierako mailan, batez bestekoa baino ehuneko altuagoa dute, eta zehazki, A geruza publikoak errendimendu maila horretako ikasle-ehuneko altua du (% 34,5).
- Maila aurreratuan, itunpeko hiru geruzek batez bestekoa baino ehuneko altuagoa dutela ikusten da (% 32,5): Itunpeko D-k % 36,2; itunpeko B-k, % 35,6, eta itunpeko A-k, berriz, % 41,5. Hiru geruza publikoek, maila aurreratuan, batez bestekoak baino ehunekoak baxuagoa dute.

• Matematikarako konpetentziaren emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

Ondoko grafikoan, Euskadiko hezkuntza-sistema osatzen duten 6 geruzetan *Matematikarako konpetentziaren* dimentsio bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak ikus daitezke.


50. Grafikoa. ED10-LH4. *Matematikarako konpetentzian* geruzen errendimendua dimentsioen arabera



Lau dimentsioetan lortutako puntuazioak nahiko homogeneoak dira geruza bakoitzaren baitan; horrek honako hau esan nahi du: lau dimentsioei emandako garrantziaren baliokidetasunean probak berak koherentzia izateaz gain, ikastetxeek ere modu orekatuan irakasten dituzte aipatutako ebaluatutako dimentsioak.

Hurrengo grafikoan, *Matematikarako konpetentziaren* dimentsioetan puntuazioek duten aldea ikusten da geruzen arabera.

51. Grafikoa. ED10-LH4. *Matematikarako kompetentziako dimentsioetako errendimendua geruzen arabera*



Ikus daitekeen moduan, A geruza publikoak lortu ditu emaitza baxuenak lau dimentsioetan; aldiz, itunpeko A ereduak erdietsi ditu emaitzarik onenak, *Aldaketa eta erlazioen* dimentsioan izan ezik; hala ere, dimentsio horretan ia-ia berdindu egin du itunpeko D geruza, horrek lortu baitu puntuaziorik altuena.

Puntuazioetako aldean adierazgarritasunari dagokionez, honako hau ikusten da:

- Itunpeko B eta D geruzen artean estatistikoki ez dago alde adierazgarririk dimentsioetan.
 - Itunpeko A geruzak gainerako geruzek baino puntuazio altuagoak lortzen dituzte *Kopurua eta Problemen ebazpena* dimentsioetan.
 - *Aldaketak eta erlazioak* dimentsioan, itunpeko D geruzak lortu du puntuaziorik altuena, baina geruza publikoekin alderatuta soilik da aldea estatistikoki adierazgarria.
 - A geruza publikoak gainerako geruzetakoak baino nabarmen baxuagoak diren puntuazioak lortu ditu.
 - B geruza publikoak nabarmen gaintu du A geruza publikoa dimentsio guztietan, eta hala eta guztiz ere, D geruza publikoak eta itunpeko hiru geruzek baino puntuazio nabarmen baxuagoak eskuratu ditu.
- **Matematikarako kompetentziako emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera**

Ikastetxeek bi aukera zituzten ikasleek *Matematikarako kompetentziako* proba zein hizkuntzatan egin behar zuten erabakitzeko: euskara eta gaztelania. A eta D ereduak ia ikasle guztiek heziketa-hizkuntzan (gaztelania eta euskara, hurrenez hurren) egin dute proba. B erudian, berriz, ehuneko txiki batek euskara aukeratu zuen, eta ehuneko altuagoa izan zen itunpeko sarearen kasuan sare publikoaren kasuan baino.


PROBAKO HIZKUNTZAREN ARABERA

Proba euskaraz egin zuten ikasleek 247 puntu lortu zituzten, eta gaztelaniaz egin zutenek 249 puntuko errendimendua lortu zuten. Aldea adierazgarria da, baina datuak berez ez du informazio adierazgarririk eskaintzen, eta, beraz, analisi sakonagoa egin ahal izateko beste aldagai batzuekin alderatu beharko da.

Probako hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
Euskara	11.621	247	0,47
Gaztelania	6.346	249	0,63

Ikasleek proba egin duten hizkuntzaren arabera lortutako puntuazioen arteko aldea adierazgarria da.

52. Grafikoa. Matematikarako kompetentzian errendimendua probako hizkuntzaren arabera



Geruza bakoitzean proba euskaraz eta gaztelaniaz egin duten ikasleen ehunekoa erakusten du taula honek.

Matematikarako kompetentzia proba egiteko erabili den hizkuntza, geruzen arabera

Geruza	Euskara		Gaztelania	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A Publikoa	0	0	435	6,8
B Publikoa	237	2,0	1045	16,5
D Publikoa	7158	61,6	52	0,8
Itunpeko A	0	0	960	15,1
Itunpeko B	376	3,2	3819	60,2
Itunpeko D	3850	33,1	35	0,5
GUZTIRA:	11621 (% 64,7)		6346 (% 35,3)	

D ereduko ia ikasle guztiek proba euskaraz egin dute. B ereduetako ikasleen % 76k baino gehiagok gaztelaniaz egin du. A ereduko ikasleen % 100ek proba gaztelaniaz egin du.


ETXEKO HIZKUNTZAREN ARABERA

Ikasleen etxeko hizkuntzaren analisiak erakusten du familian euskaraz hitz egiten duten ikasleek *Matematikarako kompetentzian* 257 puntu lortu dituztela, eta familian gaztelaniaz hitz egiten dutenek 245 puntu. Aldea adierazgarria da.

Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
Euskara	4764	257	0,73
Euskara ez den beste hizkuntza bat	12735	245	0,44

(*) Taula honetan ez dago sartuta kompetentzia honen ebaluazioan parte hartu duen eta galdera-sortako galdera honi "Ez daki- ez du erantzuten" erantzun dion ikasleen % 2,6.

53. Grafikoa. Matematikarako kompetentzian errendimendua etxeko hizkuntzaren arabera



Jarraian ageri den taulak geruza bakoitzean etxeko hizkuntzaren araberako ikasleen banaketa erakusten du

Ikasleak eta etxeko hizkuntza geruzen arabera *Matematikarako kompetentzian*

Geruza	Euskara		Gaztelania	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A Publikoa	5	0,1	407	3,2
B Publikoa	67	1,4	1174	9,2
D Publikoa	2437	51,1	4576	35,9
Itunpeko A	22	0,5	913	7,2
Itunpeko B	374	7,8	3717	29,2
Itunpeko D	1859	39,0	1948	15,3
GUZTIRA:	4.764		12.735	

Jarraian, B eta D ereduak emaitzak aztertu dira bi aldagaietan: probako hizkuntza eta ikaslearen etxeko hizkuntza.

B EREDUA

B ereduan sare publikoko ikasleen % 18,5ek eta itunpeko sareko ikasleen % 9k proba euskaraz egin zuen. Beraz, ehuneko handi batek proba gaztelaniaz egin zuen.


Probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat datozenean, *Matematikarako kompetentziako* emaitzak nabarmen altuagoak dira hizkuntza-aldaketa (euskara-gaztelania) dagoenean baino. Beste zenbait egoeratan ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko. Adibidez, B ereduan etxeko hizkuntza euskara zuten ikasleen artean 172k bakarrik egin zuten proba euskaraz, eta euskaldunak izanik 269k egin zuten gaztelaniaz.

Probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza gaztelania denean emaitzak nabarmen altuagoak dira. Kontuan izan behar da B ereduetan *Matematikarako kompetentziarako* irakas-hizkuntza gehienetan gaztelania izaten dela.

B ereduko ikasleen errendimendua etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera

Probako hizkuntza / Etxeko hizkuntza	Batez bestekoa	Ikasle kop.	A.T.
Gaztelania/Gaztelania	252	4.466	0,73
Euskara/Gaztelania	229	425	2,34

54. Grafikoa. ED10-LH4. B ereduko emaitzak *Matematikarako kompetentzian* probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera



Datuak ikusirik, esan daiteke *Matematikarako kompetentzian* B ereduan etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen artean, emaitza hobekien lortu dituztela proba gaztelaniaz egin dutenek euskaraz egin dutenek baino. Emaitzek hipotesi hau egiaztatzen dute: emaitzak hobekien dira proba etxeko hizkuntzan egiten denean.

D EREDUA

D ereduan ikasle gehienek *Matematikarako kompetentziako* proba irakas-hizkuntzan egin zuten, hots, euskaraz.


Eredu honetan, probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat datozenean, hots, euskara denean, emaitzak nabarmen hobekien dira etxeko hizkuntza gaztelania eta probako hizkuntza euskara direnean baino.

Etxeko hizkuntza gaztelania duten 79 ikaslek proba gaztelaniaz egin dute, baina ikasle horien emaitzak ez dira kontuan hartu, kopurua ez baita nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko.

D ereduko ikasleen errendimendua etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera

Probako hizkuntza / Etxeko hizkuntza	Batez bestekoa	Ikasle kop.	AT
Euskara/Euskara	258	4.294	0,77
Euskara/Gaztelania	241	6.445	0,62

55. Grafikoa. ED10-LH4. D ereduko emaitzak *Matematikarako kompetentzian* probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera




D ereduan ere badirudi hainbat ikerlanetan aipatu den hipotesia egiaztatzen dela: probako emaitzak hobeak dira etxeko hizkuntza mantentzen denean.

- **Matematikarako kompetentziako emaitzak ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera**

Populazio osoa 4 mailatan banatu da (baxua, ertain baxua, ertain altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.

Ondoko grafikoan lau ISEK mailetan lortutako batez besteko puntuazioa ageri da.


56. Grafikoa. ED10-LH4. Errendimendua *Matematikarako kompetentzian* eta ISEK maila



Matematikarako konpetentzian lotura adierazgarria dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua orduan eta hobeagoa izan da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarraian konpetentzia-mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira ISEK maila bakoitzaren arabera

57.Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan *Matematikarako konpetentzian* ISEK mailen arabera




ISEK maila altuenean, ikasleen % 91 konpetentzia honetako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da; bien bitartean, ISEK maila baxuenekoen artean dago ikasleen % 74.

Konpetentziako maila aurreratuan ISEK maila altuko ikasleen % 41,5 biltzen da, eta ISEK maila baxuko ikasleen % 18,2. Erdiko ISEK mailetan (ertain-altua eta ertain-baxua), errendimenduko erdiko mailan ikasleen ehunekoetan ez dago alde handirik, eta hasierako mailetan eta maila aurreratuetan, ikasleen ehunekoan dagoen aldea % 5 ingurukoa da.

- Matematikarako konpetentzian lortutako eta esperotako emaitzen arteko alderaketa, ISEKen arabera**

Hasierako analisiak geruza bakoitzak *Matematikarako konpetentzian* lortutako emaitzak erakusten ditu (barra urdinean adierazirik). Grafikoa, horrez gain, indize sozioekonomiko eta kulturalaren aldagaiaren eragina indargabetuko balitz, geruza bakoitzak lortuko lituzkeen puntuazioak (laranjak) erakusten dira.

58. Grafikoa. ED10-LH4. *Matematikarako konpetentziako batezbesteko puntuazioa eta ISEC kontrolatu ondorengo puntuazioa*



Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan izan ezik

Aldeen adierazgarritasuna aztertu ostean, ondorio gisa esan daiteke indize sozio-ekonomikoa eta kulturalaren eragina ezeztatuko balitz, hurrengo hau gertatuko litzatekeela:


- Itunpeko B eta D geruzen artean ez litzateke alderik izango; izan ere, ISEKen efektuarekin kontrolatzen denean ez da puntuazioa jaisten.
- Geruza publikoek ISEK kentzean puntuazioa hobetuko luketen arren, beren arteko aldeak handiak izaten jarraituko lukete.

Matematikarako kompetenziaren errendimenduaren bilakaera ED2009 - ED2010 ebaluazioen artean

- Matematikarako kompetenziako emaitza orokorren bilakaera**

Lehen ebaluazio diagnostikoan, ED09an, 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen kompetentzia guztietarako. Edizio honetan, ED10ean, ikasle bakoitzak lortutakoa da batez bestekoa, 248 puntukoa, *Matematikarako kompetentzian*. Aurreko urtearekin alderatuta lortu den 2 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.


59. Grafikoa. ED10-LH4. *Matematikarako kompetentzian* batez besteko emaitzen bilakaera



- Matematikarako kompetentzian ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera**

Hurrengo grafiko honetan ikus daitekeen moduan, 2010eko ebaluazioan maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoak % 3,3 egin behera 2009ko datuekin alderatuz; orain, ehunekoa maila ertainean dago. Hasierako mailako ehunekoa % 15ean mantentzen da. Hau da, 2010ean hasierako maila gainditzea lortzen duten ikasleen ehunekoa 2009ko probako ehunekoaren antzekoa da. Hala eta guztiz ere, maila aurreratutik erdiko mailara pasatu gara eta horrek okertzea gertatu dela esan nahi du.


60. Grafikoa. ED10.LH4. Ikasleen ehunekoak errendimendu mailaren arabera *Matematikarako kompetentzian*



- **Matematikarako kompetentziako emaitzen bilakaera geruzen arabera**

A eta B geruzak publikoetan eta itunpeko B ereduaren 2009an lortutako puntuazioak 2010eko edizioan lortutakoak baino nabarmen altuagoak dira. Bestalde, D eredu publikoko geruzak eta itunpeko A eta D ereduak emaitza berberak dituzte bi ebaluazioetan; izan ere, puntuazioetako aldeak ez dute estatistika-adierazgarritasunik.

8. Grafikoa. ED10-LH4. Emaitzen bilakaera geruzen arabera
Matematikarako kompetentzian



MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAKO EMAITZEN AZTERKETATIK ATERATAKO ONDORIOAK

1. Ikasleen banaketa hiru errendimendu mailetan.

Hau da ikasleen banaketa errendimendu-mailetakako bakoitzean: Lehen Hezkuntzako ikasleen % 15ek Matematikarako konpetentziako hasierako mailari dagozkion trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen % 52 inguru konpetentziako erdiko mailan dago, eta ikasleen %32k konpetentziako maila aurreratuari dagozkion zeregin konplexuagoak gauzatzea lortu du.

Matematikarako konpetentziaren emaitzak dimentsioen arabera aztertuz, errendimendu mailen araberrako banaketarekin lotuta, horiek guztiek antzeko jokaera dutela antzematen da. Erdiko mailak ikasleen % 50 inguru biltzen du eta maila aurreratuak, kasu guztietan, % 33 gainditzen du.

2. Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Geruzen araberrako banaketan, hasierako mailan, itunpeko sareko hiru erduiek erdiko mailako ehunekoak duten ikasle kopuru gutxiago dute (% 15); era berean, maila aurreratuan ikasleen ehunekorik altuenak dituzten geruzak daude (% 36 baino gehiago).

D eta B eredu publikoetako geruzek, erdiko mailan, biztanleria osoko batez bestekoaren antzeko ehunekoak dituzte; hala eta guztiz ere, hasierako mailan ehuneko altuagoak eta maila aurreratuan ehuneko baxuagoak dituzte. A geruza publikoak, erdiko mailan, biztanleriaren batez bestekoa baino ehuneko altuxeagoa du; hasierako mailan, bikoitza baino gehiago, eta maila aurreratuan, berriz, hiru aldiz gutxiago.

Matematikarako konpetentziako batez besteko emaitzetan aldeak aztertu ostean, adierazgarritasunaren ikuspegitik honako hau ondorioztatzen da:

- A eredu publikoko emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira.
- Itunpeko A ereduaren geruzak gainerako geruzenak baino nabarmen altuagoak diren puntuazioak lortu ditu.
- Itunpeko B eta D ereduaren artean ez dago alde adierazgarririk.
- Hizkuntza-eredu bakoitzean, sare publikoari dagozkien geruzek itunpeko sarekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte.

3. Emaitzak probako hizkuntzaren eta ikaslearen etxeko hizkuntzaren arabera

Emaitzak ikusirik, esan daiteke B ereduaren Matematikarako konpetentzian etxeko hizkuntza gaztelania duten eta proba etxeko hizkuntzan egiten duten ikasleek puntuazio nabarmen altuagoak lortu dituztela etxeko hizkuntza gaztelania duten eta proba euskaraz egiten duten ikasleek baino.

Era berean, D ereduaren etxeko hizkuntza eta probakoa euskara denean emaitzak nabarmen altuagoak dira hizkuntza-aldaketa (euskara/gaztelania) dagoenean baino.

Badirudi hipotesi hau egiaztatzen dela: emaitzak hobeak izaten dira proban etxeko hizkuntza mantentzen denean.

4. Emaitzak indize sozialaren, ekonomikoaren eta kulturalaren arabera (ISEK)

ISEK indize sozioekonomiko eta kulturalaren aldagaiak eragin nabaria izaten du ikasleen emaitzetan. Matematikarako kompetentzian lotura zuzena dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean maila guztietan: ISEK indizea zenbat eta altuagoa izan, emaitzak orduan eta hobek dira. Aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

ISEK maila altuko ikasleen % 91 kompetentziako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da, eta ISEK maila baxuko ikasleen % 74 dago maila horietan.

Kompetentziako maila aurreratuan ISEK maila altuko ikasleen % 41,5 biltzen da, eta ISEK maila baxuko ikasleen % 18,2. Erdiko ISEK mailetan (ertain-altua eta ertain-baxua), errendimenduko erdiko mailan ikasleen ehunekoetan ez dago alde handirik, eta hasierako mailetan eta maila aurreratuetan, ikasleen ehunekoan dagoen aldea % 5 ingurukoa da.

ISEK indizearen aldagaiaren eragina kontrolatzen denean, honako hau ikusten da geruzetan:

- Geruza publikoek ISEK kentzean puntuazioa hobetuko luketen arren, beren arteko aldeak handiak izaten jarraituko lukete.
- Itunpeko B eta D geruzetan bi egoera ageri dira: batetik, puntuazioa jaitsi egiten da ISEKen efektua kontrolatzen denean, eta bestetik, bien artean alde adierazgarria desagertu egiten da.
- Gainerako kasu guztietan, geruzen arteko aldea adierazgarria da.

5. Matematikarako kompetentziaren errendimenduaren bilakaera: ED2009 –ED2010

ED10 Ebaluazio diagnostikoan Matematikarako kompetentzian ikasleek lortutako batez bestekoa ED09ko edizioan lortutako baino % 2 baxuagoa da eta alde hori adierazgarria da.

Errendimendu mailen araberrako ikasleen banaketari dagokionez, hasierako mailan ikasleen ehunekoak mantendu egiten da eta maila aurreratuko ikasleen kopurua murriztu egiten da erdiko mailakoen alde (% 50, gutxi gorabehera).

Geruza guztiek batez besteko altuagoa lortu zuten ED09ko ebaluazioan, baina alde hori A eta B eredu publikoetan eta itunpeko B eremuan soilik da adierazgarria.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia

Definizioa

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia gisa hartzen da gizarteari (ikuspegi ugaritatik ulertuta) buruzko ezagutzak erabiltzeko gaitasuna, fenomeno eta arazo sozialak interpretatzeko testuinguru eta eskala espazial aldakorretan, erantzunak sortzeko eta erabakiak hartzeko, baita beste lagun eta talde batzuekin arauen arabera elkarrengaitzeko ere.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia hiru dimentsiotan banatu da:

- **Errealitate soziala**

Historia, geografia, soziologia, ekonomia eta egungo gizartea nolakoa den eta nola funtzionatzen duen azaltzen laguntzen duten beste gizarte zientzia batzuekin lotutako oinarritzko kontzeptuak, trebeziak eta jokaera gehienak biltzen ditu, baita arazo nagusiak, erronkak eta zailtasunak zein diren ere.

- **Herritartasuna**

Gizarte demokratiko batean eskubideekin eta eginbeharrekin lotutako arlorak ebaluatzen ditu. Dimentsioaren planteamendua ikasleen hurbileneko arloetatik (familia, lagunak edo ikastetxea) abiatzen da eta testuinguru zabalagoetara hedatzen da; horietan, globalizazioaren efektuak erakusten dira, eta gainera, guztietan, giza eskubideen eta haurtzaroaren unibertsaltasuna nabarmentzen da.

- **Elkarbizitza**

Dimentsio hau gatazken azterketan eta ebazpenean oinarritzen da, komunitatearen ongizateari laguntzeko helburuarekin pertsonen elkarbizitza zuzentzen duten balioen eta arauen sistemen eraikuntzan. Gainera, balio etikoetan oinarritutako identitatearen garapena ere badu helburuen artean; horietatik abiatuta hartu beharko ditu erabakiak eta bere ekintzen erantzule izango da.

Emaitza orokorraz gain, dimentsio bakoitzean lortutako emaitzak erakusten dira².

Emaitza orokorrak

- **Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako batez besteko emaitzak.**

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia lehen aldiz ebaluatu denez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen batez besteko emaitza 250 puntutan ezarri da. Ondoko taulan kompetentzia honen ebaluazioa egitean kontuan hartu diren ikasleen kopurua ageri da, lortutako gehieneko puntuazioarekin (382 puntu) eta gutxieneko puntuazioekin batera (93 puntu).


² Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako proba osatzen duten item kopurua ez da hiru dimentsioetako emaitzen fidagarritasuna bermatzeko nahikoa.

Lehen Hezkuntzako 4. maila ED 2010

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	Kopurua	Txikiena	Handiena	Batez bestekoa	Desb. tip.
Puntuazio orokorra	18.010	93	382	250	50

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren hiru kompetentzia mailetako bakoitzean.

22. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoak errendimendu mailen arabera Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian



Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 18k Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen % 52 inguru kompetentziako erdiko mailan dago, eta ikasleen % 30ek kompetentziako maila aurreratuari dagozkion trebezia konplexuagoak menderatzen ditu.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren kompetentzia maila bakoitzean (hasierakoa, erdiko maila eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Hortik abiatuta, ikasle bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta daiteke.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako errendimendu mailetako gaitasunen deskribapena.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <p>Familiari, gizarteari eta kulturari buruzko oinarritzko ezaugarri batzuk deskribatzen hasi dira; zerbitzu publiko batzuk eta bere inguruko instituzioak ezagutzen dituzte. Gainera, lanbide ohikoenak eta komunikazio sozialeko zenbait bitarteko identifikatzen dituzte.</p> <p>Gizarte demokratikoko zenbait eskubide eta eginbehar identifikatzen dituzte eta adierazpen kulturalatan (musika, jaiak eta abar) parte hartzen dute; gainera, batzarretan, botazioetan eta eztabaidetan parte hartzen dute.</p> <p>Beste pertsona batekin elkarrizketa mantentzeko gai dira, eta gatazka pertsonal baten aurrean, bidezkoak eta bidegabeak diren irtenbideak bereizten dituzte. Sentimenduak, emozioak eta balio pertsonalak identifikatzen dituzte.</p>	<p>Maila honetan kokatzen dira hasierako mailan deskribatutako trebeziez gain, beste hauek ere egiten dituztenak:</p> <p>Eguneroko inguruneke ekintzak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, politikoak, zientifikoak eta abar) bereizi eta sailkatzen dituzte eta horien jatorriaren gaineko gogoeta egiten dute. Pertsonen oinarritzko beharrak ezagutzen dituzte, baita horiek betetzen dituzten jarduera ekonomikoak ere.</p> <p>Udaletxeko eta beste erakunde batzuetako oinarritzko funtzioak identifikatzen dituzte. Gizartean parte hartzeko zenbait bide ezagutzen dituzte, bereizketari uko egiten diote, eta bidegabekeria-egoeren eta pertsona jakin batzuen konpromisoaren aurrean solidaritatea barloatzen dute. Eskubide unibertsalak balioekin erlazionatzen dituzte eta aldean aurrean errespetua erakusten dute.</p>	<p>Maila honetan kokatzen dira hasierako mailan eta erdiko mailan deskribatutako trebeziez gain, hauek ere egiten dituztenak:</p> <p>Eguneroko bizitzako arloetan aldaketa-prozesuak identifikatzen dituzte. Badakite zenbait zerbitzu publiko erabiltzen (liburutegia, kiroldegia, anbulatorioa eta abar). Zenbait ondasunen prozesuak (jatorria, eraldaketa eta merkaturatzea) identifika ditzakete, eta etxean eta etxetik kanpo egiten diren jarduera ekonomikoak eta lanak barloatzen dituzte, baita kontsumo arduratsua ere.</p> <p>Funtzionamendu demokratikoari buruzko gogoeta egiten dute eta zenbait politikari lokal, autonomiko eta estatuko ezagutzen dituzte. Beren ingurunean eta beste leku batzuetan eskubide unibertsalak betetzen ez diren egoerak antzematen dituzte. Ezarpenak</p>

<p>Hurbileko eremuetan elkarbizitzako oinarritzako arauak ezagutzen dituzte eta ez-betetze egoerak identifikatzen dituzte. Arauak proposa ditzakete ikastetxean elkarbizitza arautzeko. Ikasle hauek ikastetxearen eta horren zainketa gainera interesatuta daude.</p>	<p>Elkarrizketak mantentzeko trebezia dute, akordioetara iritsi ohi dira eta eguneroko gatazka bati konponbidea emateko negoziatzen badakite; gatazka bateko biktimak identifikatzen dituzte eta beste pertsona batzuen ekimenak aztertzen dituzte. Hurbileko arloetan (ikastetxea, familia, haurren aisialdiko taldeak) elkarbizitza-arauak proposatzen dituzte eta, abantailak aintzat hartzeaz gain, betetzen ez diren egoerak aztertu ohi dituzte.</p>	<p>baztertzen dituzte eta parte-hartze anitza barloatzen dute eguneroko gaiak lantzeko. Era berean, zenbait arloetan parte hartzeko gogoia (familia, aisialdiko denbora eta ikastetxea) erakusten dute, eta bertako edo beste kulturetako zenbait adierazpen kulturalekin gozaten dute.</p> <p>Besteen lekuan jartzen dira eta beren esperientzia arloko arazoei irtenbideak eskaintzen dizkiete; gainera, kausak eta ondorioak identifikatzen dituzte. Pentsatzen duenaren eta egiten duenaren arteko koherentzia ezagutzen dute. Iritziak eta desioak argudio sinpleekin adierazten dituzte. Aldeek identitatea erakitzeke duten balio aberatsa ezagutzen dute. Ezarritako arauak errespetatzen dituzte.</p>
--	--	--

Konpetentzia mailen adierazleak taula honetan deskribatzen dira:

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Oro har, ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Etxeko zereginetan desberdin banatzen diren egoerak identifikatzen ditu. ✓ Iragarki sexistak identifikatzen ditu. ✓ Ikastetxean, elkarbizitza-egoera desberdinetako jarrera demokratikoak ezagutzen ditu. ✓ "Eskubidea" izatearen esanahia ezagutzen du eta "eginbeharretik" bereizten du. ✓ Beretik desberdinak diren adierazpen kulturalak eta hizkuntza-adierazpenak aintzat hartzen ditu. ✓ Ikasgelako arauekin lotuta, ikasleen jarrerak eta jokabideak barloatzen ditu. ✓ Ikasgelan araudi bat egoteak duen garrantzia eta horren funtzionamendua ezagutzen ditu. ✓ Egoera zail baten aurrean erabaki egokiak hartzen ditu. ✓ Gatazka baten protagonisten aurrean erantzulea edo errunduna identifikatzen ditu. 	<p>Oro har, ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Erabilera nagusiak eta inguruko oinarritzako zerbitzuen funtzionamendua ezagutzen ditu. ✓ Telebistaren eta bideo-jokoen erabilera arduratsuak adierazten ditu. ✓ Telebista, ordenagailua eta bideo-jokoak gehiegi kontsumitzearen gainera efektu negatiboren bat (heziketakoa, gizarte-bazterketakoa eta abar) barloatzen du, eta baliabide horiek zuzen kontsumitzearen ondorio positibo batzuk (heziketakoak, aisialdikoak, ikaskuntzakoak...) aintzat hartzen ditu. ✓ Hezkuntza-kanpaina bateko mezua interpretatzen du. ✓ Zerbitzu publiko bateko beste erabiltzaile batzuen eskubideekiko errespetuaren inguruko ondorioak ateratzen ditu. ✓ Herritarrak diren aldetik, bete beharreko zereginak eta beren eskubideak bereizten ditu. ✓ Badaki hauteskundeetan zer ordezkareri mota aukeratu diren. ✓ Ikasleen eskubideak eta eginbeharra deskribatzen ditu. 	<p>Oro har, ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Zerbitzu publiko baten antolaketa eta hark eskaintzen dituen prestazioak erlazionatzen ditu. ✓ Emakumeak diskriminatzen diren laneko eta aisialdiko egoerak adierazten ditu. ✓ Arazoa aztertzeke garaian zenbait indarkeriazko jokaeraren arrazoiak identifikatzen ditu. ✓ Elkarbizitza-arauen helburua identifikatzen du eta horiek bere esperientzia pertsonaleko egoerekin lotzen ditu.


- **Emaitzak Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako dimentsioen arabera**

Aurretik adierazi den moduan, *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia* lehen aldiz ebaluatu denez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen batez besteko emaitza 250 puntutan ezarri da. Ondoko taulan kompetentzia honen ebaluazioa egitean kontuan hartu diren ikasleen kopurua ageri da, baita dimentsio bakoitzean lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioa ere.

Emaitzak dimentsioen arabera					
	Kopurua	Txikiena	Handiena	Batez bestekoa	Desb. tip.
Elkarbizitza	18010	120	326	250	50
Herritartasuna		135	336	250	50
Errealitate soziala		121	360	250	50

Jarraian, ikasleen banaketa grafikoki ageri da kompetentzia mailen arabera eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzietan* ebaluatu diren hiru dimentsioetan.

63. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehuneko errendimendu-maila bakoitzean *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* dimentsioen arabera



Hiru dimentsioek antzeko jokaera dute hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoari dagokionez, % 19, eta *Herritartasuna* eta *Gizarte-errealitatea* dimentsioetan, beste bi mailetako ehunekoak antzekoak dira. Elkarbizitza dimentsioak du maila aurreratuan ikasle kopuru handiena, ia % 44.


- **Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako emaitzak geruzen arabera**

Ondoko taulan eta grafikoen, ebaluazioa honetan geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lortutako puntuazioak ageri dira. Horrekin batera, geruza bakoitzeko puntuazioan sartu diren ikasle kopurua ageri da.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako emaitzak geruzen arabera

Geruzak	Kopurua	Batez bestekoa	A.T.
A Publikoa	459	240	2,24
B Publikoa	1.280	239	1,48
D Publikoa	7.228	244	0,57
Itunpeko A	964	275	1,43
Itunpeko B	4.177	254	0,81
Itunpeko D	3.902	255	0,77
GUZTIRA:	18.010		

Puntuazioen artean aldeak dauden arren, alde horiek ez dira beti estatistika-ikuspegitik adierazgarriak izaten. Grafikoan, geruza bakoitzeko ikasleek lortutako batez besteko emaitzak, eta puntuazio baten eta bestearen arteko aldeen adierazgarritasuna ikus daiteke. Koadroan, estatistika-adierazgarritasunik gabeko puntuazioak dituzten geruzak biltzen dira.

64. Grafikoa. ED10-LH4. Gizarterako eta herritartasunerako Konpetentzien errendimendua geruzen arabera


Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan izan ezik

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako batez besteko emaitzetan aldeak azertu ostean, adierazgarritasunaren ikuspegitik honako hau ondorioztatzen da:

- A, B eta D eredu publikoetako emaitzek beren artean ez dute alde estatistikorik, baina gainerako geruzenak baino nabarmen baxuagoak dira.
- Itunpeko B eta D geruzen artean ere ez dago alde adierazgarririk, baina horiek itunpeko A geruzakoak baino baxuagoak dira.
- Itunpeko A ereduaren geruzak gainerako geruzenak baino nabarmen puntuazio altuagoak lortu ditu.

Ondoko grafikoan, geruza bakoitzean *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* finkatutako hiru errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira.

65. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*




Geruzetako ikasleen banaketa hiru konpetentzia mailetan aztertzean honako hau nabarmendu behar da:

- Hasierako mailan, itunpeko hiru geruzek batez bestekoa baino ikasle ehuneko baxuagoa dute. Bestalde, B geruza publikoko hasierako mailako ehunekoa altua da. Maila aurreratuan, itunpeko A, B eta D geruzek batez bestekoa baino ehuneko altuagoa dutela ikusten da (% 30,5): Itunpeko D geruzak, % 33,2; itunpeko B geruzak, % 34,3, eta itunpeko A geruzak, ikasleen % 50eko ehunekoa baino gehiago.

• **Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera**

Ondoko grafikoan, Euskadiko hezkuntza-sistema osatzen duten 6 geruzetan *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren* dimentsio bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak ikus daitezke.


66. Grafikoa. ED10-LH4. Emaitzak *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako dimentsioetan geruza bakoitzean*



3 dimentsioetan lortutako puntuazioak nahiko homogeenak dira geruza bakoitzaren baitan.

Hurrengo grafikoan, *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren* dimentsioetan puntuazioek duten aldea ikusten da geruzen arabera.

67. Grafikoa. ED10-LH4. Dimentsioetako emaitzak *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* geruzen arabera



Puntuazioetako aldean adierazgarritasunari dagokionez, honako hau ikusten da:

- *Errealitate soziala* dimentsioko aldeak adierazgarriak dira geruza guztietan, A geruza publikoan izan ezik, B eta D geruza publikoei dagokienez.
- *Herritartasuna* dimentsioan lortutako emaitzetan, alde guztiak adierazgarriak dira, A eta B geruza publikoenak izan ezik.
- *Elkarbizitza* dimentsioko emaitzetan dagoen aldea adierazgarria da geruza guztietan, A geruza publikoan izan ezik, B eta D publikoei dagokienez.

• **Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera**


Ikastetxeek bi aukera zituzten ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren* proba zein hizkuntzatan egin behar zuten erabakitzeko: euskara eta gaztelania. A eta D ereduak ia ikasle guztiek heziketa-hizkuntzan (gaztelania eta euskara, hurrenez hurren) egin dute proba. B erudian, berriz, ikasleen % 50 edo % 60k euskara aukeratu zuten, eta ehunekoa altuagoa izan zen sare publikoaren kasuan itunpekoaren kasuan baino.

PROBAKO HIZKUNTZAREN ARABERA

Proba euskaraz egin zuten ikasleek 245 puntu lortu zituzten, eta gaztelaniaz egin zutenek 267 puntuko errendimendua lortu zuten. Aldea adierazgarria da, baina datuak berez ez du informazio adierazgarririk eskaintzen, eta, beraz, analisi sakonagoa egin ahal izateko beste aldagai batzuekin alderatu beharko da.

Errendimendua probako hizkuntzaren arabera

Probako hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	A.T.
Euskara	13.910	245	0,42
Gaztelania	4.100	267	0,77

68. Grafikoa. ED10-LH4. Errendimendua *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* probako hizkuntzaren arabera

Geruza bakoitzean proba euskaraz eta gaztelaniaz egin duten ikasleen ehunekoa erakusten du taula honek.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako probako hizkuntza geruzen arabera

Geruza	Euskara		Gaztelania	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A publikoa	-	-	459	100
B publikoa	732	57,2	548	42,8
D publikoa	7.180	99,3	48	0,7
Itunpeko A	1	0,1	963	99,9
Itunpeko B	2.153	51,5	2.024	48,5
Itunpeko D	3.844	98,5	58	1,5
GUZTIRA: 18.010	13.910		4.100	

D ereduetao ikasleen ia % 100ek, bai itunpekoek, bai publikoetakoek, *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako* proba euskaraz egin du eta B ereduiko % 50ek baino gehiagok ere hizkuntza honetan egin du.


ETXEKO HIZKUNTZAREN ARABERA

Ikasleen etxeko hizkuntza aztertu ondoren ikusten da etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako* proban 256 puntu lortu zituztela, eta gaztelania edo beste hizkuntzen bat dutenek, 248. Aldea adierazgarria da, baina lehen aipatu bezala, analisi sakonagoa egin ahal izateko datua beste aldagai batzuekin alderatu behar da.

Errendimendua etxeko hizkuntzaren arabera

Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	A.T.
Euskara	4.806	256	0,68
Euskara ez dena	12.958	248	0,45
Ez daki/Ez du erantzuten	246	221	3,22

69. Grafikoa. ED10-LH4. Errendimendua *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* etxeko hizkuntzaren arabera



Jarraian ageri den taulak geruza bakoitzean etxeko hizkuntzaren araberrako ikasleen banaketa erakusten du:

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako ikasleen etxeko hizkuntza, geruzen arabera

Geruza	Euskara		Euskara ez dena	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A Publikoa	6	1,3	443	98,7
B Publikoa	66	5,2	1.193	94,8
D Publikoa	2.461	34,6	4.662	65,4
Itunpeko A	23	2,4	924	97,6
Itunpeko B	378	9,1	3.751	90,9
Itunpeko D	1.872	48,5	1.985	51,5
GUZTIRA: 16.839	4.806		12.958	

246 ikaslek ez diote galdera honi erantzun.

Nabarmendu beharrekoa da itunpeko D geruzako ikasleen ia % 49ren etxeko hizkuntza euskara dela.

Jarraian, B eta D eredu-tako emaitzak aztertu dira bi aldagaietan: probako hizkuntza eta ikaslearen etxeko hizkuntza.

B EREDUA

B ereduan sare publikoko ikasleen % 57k eta itunpeko sareko ikasleen % 52k konpetentzia honetako proba euskaraz egin zuten.


Probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat datozenean, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* emaitzak nabarmen altuagoak dira hizkuntza-aldaketa (euskara-gaztelania) dagoenean baino.

Gainerako egoeretan (euskara/euskara eta gaztelania/euskara) ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko.

B ereduko ikasleen errendimendua etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera

Probako hizkuntza / Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	A.T.
Gaztelania/Gaztelania	2.437	269	0,99
Euskara/Gaztelania	2.507	233	1,01

70. Grafikoa. ED10-LH4. B ereduko emaitzak *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera



Kasu honetan, lehen aipatutako hipotesia baieztatzen da, hau da, probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat datozenean emaitzak hobekak izaten direla. Probako hizkuntza eta etxekoa, aldiz, ezberdinak direnean, puntuazioak nabarmen apalagoak izaten dira.

D EREDUA


D ereduko ikasle gehienek irakas-hizkuntzan, hots, euskaraz, egin zuten *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* proba.

Puntuazioek adierazten dute probako hizkuntza etxeko hizkuntza denean emaitzak nabarmen hobekak izaten direla. Etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen artean 103k gaztelaniaz egin zuten proba, baina ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko eta ez dira aintzat hartu

D ereduko ikasleen errendimendua etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera

Probako hizkuntza / Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	A.T.
Euskara/Euskara	4.330	257	0,71
Euskara/Gaztelania	6.544	243	0,60

71. Grafikoa. ED10-LH4. D ereduko emaitzak Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera



D ereduaren kasuan ere emaitzen arteko aldea estatistikoki adierazgarria da etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza euskara denean, betiere, etxeko hizkuntza gaztelania duten eta proba euskaraz egin duten ikasleekin alderatuta.


Badirudi hipotesia baieztatu egiten dela B ereduan eta D ereduan, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza berdinak ez direnean emaitzen adierazgarritasunari dagokionez.

- Gizarterako eta herritartasunerako kompetenziaren emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)**

Populazio osoa 4 mailatan banatu da (baxua, ertain baxua, ertain altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.

Ondoko grafikoan lau ISEK mailetan lortutako batez besteko puntuazioa ageri da.


72. Grafikoa. ED10-LH4. Errendimendua Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian eta ISEK mailaren arabera



Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian, lotura handia dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarraian, ISEK maila bakoitzean hiru kompetentzia mailetan dagoen ikasleen ehunekoa ageri da.

73. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* ISEK mailen arabera



ISEK maila altuenean, ikasleen % 89 kompetentzia honetako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da; aldiz, ISEK maila baxuenekoen artean dago ikasleen ia % 73.

Kompetentzia honetako maila aurreratua aztertzen badugu, ikus dezakegu ISEK maila altuan ikasleen % 38 biltzen dela, eta ISEK maila baxuan, berriz, % 21.

Kompetentzia honetako edukiaren eta emaitzen azterketa zehatzagoa nahi izanez gero, ikusi Eranskina.


- Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian lortutako eta esperotako emaitzen alderaketa ISEK mailaren arabera**

2009. urteko ebaluazioan, ikasleek ISEK maila kalkulatzeko galdera-sortako galderari erantzun ez bazioten, bakoitzari bere ikastetxeko ISEK atxikitzen zitzaion. 2010. urteko ebaluazio honetan, aipatutako indizea kalkulatzeko balio duten galderak erantzun zituzten ikasleak soilik hartu dira kontuan.

Ikasleen indize sozioekonomiko eta kulturala kontrolatzen denean, zenbait geruzatako emaitzen arteko aldeak desagertu egiten dira.

ISEKen kalkuluarekin lotutako galderari soilik erantzun dieten ikasleak soilik kontuan hartuta, *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*, barra urdin ilunez daude adierazita. Grafikoan, horrez gain, indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren aldagaiaren eragina indargabetuko balitz, geruza bakoitzak lortuko lituzkeen puntuazioak (barra laranja adierazita) erakusten dira. Bestela esanda, ikasle guztiek abiapuntu bera (ISEK indize bera) izango balute, geruza bakoitzak lortuko lituzkeen emaitzak kalkulatu dira.

74. Grafikoa. ED10-LH4. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian batez besteko puntuazioa eta ISEK indizea kontrolatu ondorengo puntuazioa



Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan

Ikus daitekeen moduan, A eredu publikoko geruzek eta itunpeko A ereduko geruzek puntuazioan behera egin dute ISEK indizearen efektua kontrolatu denean. B eta D eredu publikoko geruzek gora egin dute eta itunpeko B eta D ereduaren geruzak ez du puntuazioa aldatu.

Geruzen arteko aldean adierazgarritasuna aztertu ostean, ondorio gisa esan daiteke indize sozio-ekonomikoa eta kulturalaren eragina ezeztatuko balitz, hurrengo hau gertatuko litzatekeela:

- Itunpeko B eta D ereduaren artean ez litzateke alderik izango.
- Gainerako geruza guztien artean, aldeak adierazgarriak izango lirateke.

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIAREN AZTERKETATIK ATERATAKO ONDORIOAK

1. Ikasleen banaketa hiru errendimendu mailetan.

Hau da ikasleen banaketa errendimendu-mailetakoko bakoitzean: Lehen Hezkuntzako ikasleen % 18k Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako hasierako mailari dagozkion trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen % 52 inguru konpetentziako erdiko mailan dago, eta ikasleen % 30ek konpetentziako maila aurreratuari dagozkion zeregin konplexuagoak gauzatzea lortu du.

Dimentsioen arabera konpetentzien banaketari dagokionez, *Herritartasunean* eta *Errealitate sozialean*, % 19 hasierako mailan dago; % 50, erdiko mailan, eta % 30, maila aurreratuan. *Elkarbizitzako* dimentsioan, % 44 inguruko lortzen du maila aurreratua, erdiko mailaren kalterako.

2. Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Geruzen arabera banaketan, itunpeko A, B eta D ereduak, hasierako mailan, batez besteko ehuneko orokorrak baino ikasle gutxiago dituzte (% 18), eta era berean, eredu horiek dute maila aurreratuan ikasle-ehuneko altuena (% 30).

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako batez besteko emaitzetan aldeak aztertu ostean, adierazgarritasunaren ikuspegitik honako hau ondorioztatzen da:

- A, B eta D eredu publikoetako emaitzek beren artean ez dute alde estatistikorik, baina itunpeko geruzenak baino nabarmen baxuagoak dira.
- Itunpeko A ereduaren geruzak gainerako geruzenak baino nabarmen puntuazio altuagoak lortu ditu.

3. Emaitzak probako hizkuntzaren eta ikaslearen etxeko hizkuntzaren arabera

Emaitzak ikusirik, esan daiteke B ereduan *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* etxeko hizkuntza gaztelania duten eta proba etxeko hizkuntzan egin duten ikasleek puntuazio nabarmen altuagoa lortu dutela etxeko hizkuntza gaztelania duten eta proba euskaraz egin duten ikasleek baino.

Era berean, D ereduan etxeko hizkuntza eta probakoa euskara denean emaitzak nabarmen altuagoak dira proba euskaraz egin eta etxeko hizkuntza beste bat denean baino.

Badirudi berriro ere hipotesi hau egiaztatzen dela: emaitzak hobeak izaten dira proban etxeko hizkuntza mantentzen denean.

4. Emaitzak indize sozialaren, ekonomikoaren eta kulturalaren arabera (ISEK)

ISEK indize sozioekonomiko eta kulturalaren aldagaiak eragin nabaria izaten du ikasleen emaitzetan. *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lotura zuzena dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean maila guztietan: ISEK indizea zenbat eta altuagoa izan, emaitzak orduan eta hobeak dira. Aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

ISEK maila altuko ikasleen % 89 konpetentziako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da, eta ISEK maila baxuko ikasleen % 73 dago maila horietan.

Konpetentzia honetako maila aurreratua aztertzen badugu, ikus dezakegu ISEK maila altuan ikasleen ia % 38 biltzen dela, eta ISEK maila baxuan, berriz, % 21.

ISEK indizearen aldagaiaren eragina kontrolatzen denean, honako hau ikusten da geruzetan:

- Itunpeko B eta D ereduaren artean ez dago alderik.
- Gainerako geruza guztien arteko aldeak adierazgarriak dira.

3. B.GERUZEN EMAITZAK ETA EZAUGARRIAK ISEK INDIZEAREN ARABERA

Arestian aipatu denez, oso estu lotuta daude ikasle edo ikastetxe batek ebaluazio honetan lortutako emaitza eta bere maila sozioekonomikoa eta kulturala. Hala eta guztiz ere, Txosten honen A atalean ikusi ahal izan denez, ezaugarri horrek ez ditu ezeztatzen geruzen arteko ezberdintasun guztiak, bere azaltzeko gaitasuna, handia bada ere, mugatua delako.

Badira emaitzetan eragin zuzena duten beste zenbait faktore eta aldagai; besteak beste, ikastetxearen irakas-jardueraren “balio erantsia” izenekoa. Balio horrek erakusten du ikastetxe edo ikastalde jakin batek lortutako benetako emaitzen eta bere ezaugarri sozialak, ekonomikoak eta kulturalak kontuan izanik espero zitezkeen emaitzen arteko aldea. Ikastetxe batek bere ikasleen maila ekonomikoa eta kulturala kontuan izanik espero zitezkeenak baino emaitza hobek lortu ote ditzakeen argitu nahi da.


Balio horrek ikastetxeen zenbait gaitasun adierazten ditu, besteak beste, ikasleei beren ingurua kontuan izanik espero baino garapen-aukera handiagoak eskaintzeko gaitasuna, edo ikastetxea ikasle guztiek garapen-aukera berdinak edukitzeari begira antolatzeko gaitasuna.

Ondoren, barreiadura-grafiko bat ageri da. Grafikoak, alde batetik, ikastetxeetako maila sozioekonomikoa eta kulturala, ardatz horizontalean adierazirik, eta bestetik *Matematikarako konpetentziako* puntuazioa³, ardatz bertikalean adierazirik, erlazionatzen ditu. Grafikoan bi aldagai horien gurutzatzea erakusten da, bi lerro etenekin batera: bata *Matematikarako konpetentziako* batez besteko puntuazioa adierazten du, eta besteak etapa horretan ebaluatutako populazio osoaren batez besteko indize sozio-ekonomikoa eta kulturala adierazten du. Grafikoan ageri den lerro diagonalak bi aldagaien arteko erlazioa adierazten du. Ikastetxe edo ikastalde bat bere ezaugarri sozioekonomikoa eta kulturalaren arabera dagokion puntuaren gainetik edo azpitik dagoen adieraziko luke.

Hurrengo grafikoan, 2010eko proban parte hartu duten L. Hezkuntzako 4. mailako 522 ikastetxeak ageri dira. Puntu bakoitzak ikastetxeko geruza bat adierazten du –sarea eta hizkuntza-eredua–. Puntuen kolorea ikastetxeko batez besteko ISEKi dagokiona da –baxua, ertain baxua, ertain altua edo altua–. Bestela esanda, ikastetxe batean ebaluatutako ikastalde guztiak hizkuntza-eredu berekoak balira, ikastetxea puntu bakar batez adierazita egongo litzateke eta puntua ikastetxeko ISEK mailaren kolorekoa litzateke. Hala ere, ikastetxe batean ebaluatu diren ikastaldeak hizkuntza-eredu ezberdinetakoak badira, kasu horietan geruza bakoitza puntu batez adierazita egongo litzateke grafikoan eta guztiek kolore berbera izango lukete, ikastetxeko ISEK mailaren kolorekoa, betiere.

³ *Matematikarako konpetentzia* erabiltzen da; izan ere, egindako analisisen arabera, konpetentzia horretako emaitzek gainerako konpetentzietako emaitzekiko korrelazio mailarik altuena erakusten dute. Gainera, hizkuntza-konpetentzia ez denez, hizkuntza-eredua, etxeko hizkuntza edo antzeko alderdiek hein txikiagoan eragiten diote.

75. Grafikoa. ED10-LH4. ISEK indizearen eta Matematikarako kompetentziako emaitzen arteko erlazioa



Grafikoa aztertu ondoren, hiru ondorio nagusi atera daitezke:

1. Ikastetxeko ISEK mailaren eta emaitzen arteko erlazioa baieztatzen da. Grafikoak argi erakusten du joera hori diagonalaren edo erregresio-zuzenaren makurduraren bidez: makurdura zenbat eta handiagoa izan, ISEK mailaren eta emaitzen arteko erlazioa estuagoa da. Horrekin batera ikus daiteke emaitzen barreiadura handiagoa dela ISEK maila baxuko ikastetxeetan gainerako mailetako ikastetxeetan baino. Maila horietan kontzentrazioa handiagoa izaten da.

2. Ikastetxe gehienak ISEK mailaren arabera espero zitezkeen emaitzetatik hurbil daude. Diagonaletik gora dauden ikastetxeek espero baino emaitza hobekak lortu dituzte. Alderantziz gertatzen da diagonaletik behera dauden ikastetxeekin. Ebaluatutako ikastetxeen % 86k lortutako batez besteko puntuazioaren eta ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera espero zitezkeen emaitzaren arteko aldea 25 puntukoa baino txikiagoa da, eta % 64k lortutakoa, 15 puntukoa baino txikiagoa.

3. Ikastetxeek, heziketa-ekintzaren bidez, ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturalaren ezaugarriak gainditzea lor dezakete. Grafikoan argi ikusten da ISEK maila bereko ikastetxe batzuek oso emaitza ezberdinak lortu dituztela, eta puntuazio-aldea 80 puntutara irits daitekeela. Horrek adierazten du ikastetxearen irakaslan eta antolamendua giltzarria dela ikasleen ISEK mailak ikastetxearekiko izan ditzakeen mugak gainditzeko ala ez gainditzeko. Gainera, hori ISEK maila guztietan gertatzen da: ikastetxea edonolakoa izanik ere, bere esku-hartzeak onerako ala okerrerako eragina izan dezake.


A EREDU PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten A eredu publikoko ikastetxeak LH 4. mailako ikasleen zentsuaren % 3 dira eta ikastetxe publikoen % 6. Sexuari dagokionez, % 51,3 mutilak ziren eta % 48,7 neskak; ikasle gehienek (% 82,8) gaztelaniaz hitz egiten dute etxean, familia euskalduneko ikasleak % 1 da, eta % 16,1ek ez daki edo ez du erantzun galdera horri.


Adin egokia ez duten ikasleen ehunekorik handiena (% 33,4) geruza honetan biltzen da, arrazoia berandu eskolatzea edo irakasmailaren bat errepikatzea delarik.

76. Grafikoa. ED10-LH4. A publikoa.
Ikasleen ehunekoa etxeko
hizkuntzaren arabera



■ Euskara ■ Euskara ez dena ■ ED/EE

77. Grafikoa. ED10-LH4. A publikoa.
Ikasleen ehunekoa adinaren eta
ikasmailaren egokitasunaren arabera




■ Adin egokiko ikasleak ■ Adin egokia ez duten ikasleak

Azkenik, ikasleen % 82,2 indize sozio-ekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator; ISEK maila altuko ikasle gutxien duen geruza da (% 1,8).

Grafikoan ikus daitekeenez, emaitzen barreiadura handia duen geruza da. Ikastetxe edo ikastalde kopuru dezentea diagonalaren inguruan dago, eta horrek esan nahi du ISEK mailaren arabera espero zitekeen emaitza lortu dutela. Beste ikastetxe batzuk, berriz, diagonaletik urrun daude, gaineratik edo azpitik. Ikusgarria da nola ISEK maila bereko ikastetxe batzuek oso emaitza ezberdinak lortzen dituzten, aldea 113 puntuko izatera hel daitekeelarik.


78. Grafikoa. ED10-LH4. A PUBLIKOA
ISEK indizea eta *Matematikarako kompetenziako* emaitzen arteko erlazioa



Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak

Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean, kompetentzia edo errendimendu mailen arabera ehunekoak grafikoan ageri dira:

79. Grafikoa. ED10-LH4. A publikoa. Ikasleen ehunekoak kompetenzietako errendimendu-mailen arabera



A geruza publikoan, ez dago *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako* maila aurreratua lortu duen ikaslerik; aldiz, beste 3 kompetenzietan maila aurreratuan dagoen populazioaren ehunekoak % 10 eta % 22 artekoak da. Erdiko mailan dagoen biztanleriaren ehunekoak % 40 eta % 57 artekoak da, euskarazko kompetentzian izan ezik; bertan, ikasleen % 97k hasierako mailako trebeziak soilik ditu.


B EREDU PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten B eredu publikoko ikastetxeak LH 4. mailako ikasleen zentsuaren % 7,4 dira eta ikastetxe publikoen % 6. Sexuari dagokionez, % 50,5 mutilak ziren eta % 49,5 neskak; ikasle gehienek (% 86,4) gaztelaniaz edo beste hizkuntza batez hitz egiten dute etxean, familia euskalduneko ikasleak % 4,9a da, eta % 8,7k ez daki edo ez du erantzun galdera horri.


Adin egokia ez duten ikasleen ehunekorik handienetakoa da (% 16,1) geruza honetan biltzen da, arazoia berandu eskolatzea edo irakasmailaren bat errepikatzea delarik.

80. Grafikoa. ED10-LH4. B publikoa. Ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera



■ Euskara ■ Euskara ez dena ■ ED/EE

81. Grafikoa. ED10-LH4. B publikoa. Ikasleen ehunekoa adinaren eta irakasmailaren egokitasunaren arabera




■ Adin egokiko ikasleak ■ Adin egokia ez duten ikasleak

Azkenik, ikasleen % 46,3 indize sozio-ekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator; ISEK maila altuko ikasleak % 12,3 dira.

Grafikoan ikus daitekeenez, emaitzen barreiadura handia duen geruza da. Ikastetxe edo ikastalde kopuru dezentea diagonalaren inguruan dago, eta horrek esan nahi du ISEK mailaren arabera espero zitekeen emaitza lortu dutela. Beste ikastetxe batzuk, berriz, diagonaletik urrun daude, gaineratik edo azpitik. Ikusgarria da nola ISEK maila bereko ikastetxe batzuek oso emaitza ezberdinak lortzen dituzten, aldea 95 puntuko izatera hel daitekeelarik.


82. Grafikoa. ED10-LH4. B PUBLIKOA
ISEK indizea eta Matematikarako kompetentziako emaitzen arteko erlazioa



Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak

Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean, errendimendu mailen arabera erakusten diren ikasleen ehunekoak grafikokoan ageri dira:

83. Grafikoa. ED10-LH4. B publikoa. Ikasleen ehunekoak kompetentzietako errendimendu-mailen arabera



B ereduko geruza publikoan ikasleen % 17k soilik lortu dute maila aurreratua *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*; aldiz, beste 3 kompetentzietan maila aurreratua lortu dutenen kopurua % 24 eta % 31 artekoa izan da. Erdiko errendimendu maila lortu dutenen ikasleen ehunekoak, berriz, % 41 eta % 53 artekoa da.


D EREDU PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten D eredu publikoko ikastetxeak LH 4. mailako ikasleen zentsuaren % 39,9 dira eta ikastetxe publikoen % 79,3. Sexuari dagokionez, % 52,9 mutilak ziren eta % 47,1 neskak; ikasleek (% 61,9) gaztelaniaz edo beste hizkuntza batez hitz egiten dute etxean, familia euskalduneko ikasleak % 32,5 da, eta % 5,6ak ez daki edo ez du erantzun galdera horri.


Adin egokia ez duten ikasleen % 10,2 geruza honetan biltzen da, arrazoia berandu eskolatzea edo irakasmilaren bat errepikatzea delarik.

84. Grafikoa. ED10-LH4. D publikoa.
Ikasleen ehunekoa etxeko
hizkuntzaren arabera



■ Euskara ■ Euskara ez dena ■ ED/EE

85. Grafikoa. ED10-LH4. D publikoa.
Ikasleen ehunekoa adinaren eta
ikasmilaren egokitasunaren arabera




■ Adin egokiko ikasleak ■ Adin egokia ez duten ikasleak

Azkenik, ikasleen % 18,9 indize sozio-ekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator; ISEK maila altuko ikasleak % 15,2 dira.

Grafikoan ikus daitekeenez, emaitzen barreiadura handia duen geruza da. Ikastetxe edo ikastalde kopuru dezentea diagonalaren inguruan dago, eta horrek esan nahi du ISEK mailaren arabera espero zitekeen emaitza lortu dutela. Beste ikastetxe batzuk, berriz, diagonaletik urrun daude, gaineratik edo azpitik. Ikusgarria da nola ISEK maila bereko ikastetxe batzuek oso emaitza ezberdinak lortzen dituzten, aldea 108 puntuko izatera hel daitekeelarik.


86. Grafikoa. ED10-LH4. D PUBLIKOA
ISEK indizea eta Matematikarako kompetenziako emaitzen arteko erlazioa



Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean, errendimendu mailen arabera erakusten diren ikasleen ehunekoak grafikokoan ageri dira:

87. Grafikoa. ED10-LH4. D publikoa. Ikasleen ehunekoak kompetentziako errendimendu-mailen arabera




D geruzan publikoan, % 26 eta % 33 artean maila aurreratuan dagoen ikasleak daude kompetentzia guztietan. Erdiko errendimendu maila lortu duten ikaslearen ehunekoa % 46 eta % 54 artekoa da.

ITUNPEKO A EREDUA

Geruzaren ezaugarriak


Ebaluazioan parte hartu duten Itunpeko A ereduko ikastetxeak LH 4. mailako ikasleen zentsuaren % 5,3 dira eta itunpeko ikastetxeen % 10,7. Sexuari dagokionez, % 52,7 mutilak ziren eta % 47,3 neskek; ikasleek (% 92,7) gaztelaniaz edo beste hizkuntza batez hitz egiten dute etxean, familia euskalduneko ikasleak % 2,3 da, eta % 5ak ez daki edo ez du erantzun galdera horri.

88. Grafikoa. ED10-LH4. Itunpeko A. Ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera



■ Euskara ■ Euskara ez dena ■ ED/EE

89. Grafikoa. ED10-LH4. Itunpeko A. Ikasleen ehunekoa adinaren eta ikasmailaren egokitasunaren arabera




■ Adin egokiko ikasleak ■ Adin egokia ez duten ikasleak

Adin egokia ez duten ikasleen % 10,2 geruza honetan biltzen da, arrazoia berandu eskolatzea edo irakasmailaren bat errepikatzea delarik.

Azkenik, ikasleen % 18,9 indize sozio-ekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator; ISEK maila altuko ikasleak % 15,2 dira.

Grafikoan ikus daitekeenez, emaitzen barreiadura handia duen geruza da. Ikastetxe edo ikastalde kopuru dezentea diagonalaren inguruan dago, eta horrek esan nahi du ISEK mailaren arabera espero zitekeen emaitza lortu dutela. Beste ikastetxe batzuk, berriz, diagonaletik urrun daude, gaintetik edo azpitik. Ikusgarria da nola ISEK maila bereko ikastetxe batzuek oso emaitza ezberdinak lortzen dituzten, aldea 60 puntuko izatera hel daitekeelarik.


90. Grafikoa. ED10-LH4. ITUNPEKO A
ISEK indizea eta Matematikarako kompetentziako emaitzen arteko erlazioa



Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak

Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean, errendimendu mailen arabera erakutsitako ehunekoak grafikoa ageri dira:

91. Grafikoa. ED10-LH4. Itunpeko A. Ikasleen ehunekoak kompetentziako errendimendu-mailen arabera



Geruza honetan, hau nabarmendu behar da: *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* biztanleriaren % 3 soilik dago maila aurreratuan, eta beste hiru kompetentzietan maila aurreratuan dauden ehunekoak % 41 eta % 51 artekoak da.


ITUNPEKO B EREDUA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten Itunpeko B ereduko ikastetxeak LH 4. mailako ikasleen zentsuaren % 23,1 dira eta itunpeko ikastetxeen % 46,5. Sexuari dagokionez, % 50,5 mutilak ziren eta % 49,5 neskak; ikasleek (% 86,5) gaztelaniaz edo beste hizkuntza batez hitz egiten dute etxean, familia euskalduneko ikasleak % 8,7 da, eta % 4,9ak ez daki edo ez du erantzun galdera horri.


Adin egokia ez duten ikasleen % 8,1 geruza honetan biltzen da, arrazoia berandu eskolatzeari edo irakasmilaren bat errepikatzea delarik.

92. Grafikoa. ED10-LH4. Itunpeko B. Ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera



■ Euskara ■ Euskara ez dena ■ ED/EE

93. Grafikoa. ED10-LH4. Itunpeko B. Ikasleen ehunekoa adinaren eta ikasmilaren egokitasunaren arabera




■ Adin egokiko ikasleak ■ Adin egokia ez duten ikasleak

Azkenik, ikasleen % 8,9 indize sozio-ekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator, itunpeko A ereduan gertatzen den moduan. ISEK maila altuko ikasleak % 46,8 dira, itunpeko A eta D ereduek bakarrik gainditzen dute ehunekoa.

Grafikoan ikus daitekeenez, emaitzen barreiadura handia duen geruza da. Ikastetxe edo ikastalde kopuru dezentea diagonalaren inguruan dago, eta horrek esan nahi du ISEK mailaren arabera espero zitekeen emaitza lortu dutela. Beste ikastetxe batzuk, berriz, diagonaletik urrun daude, gainetik edo azpitik. Ikusgarria da nola ISEK maila bereko ikastetxe batzuek oso emaitza ezberdinak lortzen dituzten, aldea 91 puntuko izatera hel daitekeelarik.


94. Grafikoa. ED10-LH4. ITUNPEKO B
ISEK indizea eta Matematikarako kompetenziako emaitzen arteko erlazioa



Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak

Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean, errendimendu mailen arabera ehunekoak grafikoa ageri dira:

95. Grafikoa. ED10-LH4. Itunpeko B. Ikasleen ehunekoak kompetenzietako errendimendu-mailen arabera



Geruza honetan, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* % 44 maila aurreratuan kokatzen da, eta *euskarazkoan* % 22 soilik dago maila horretan. Hizkuntzarenak ez diren kompetenzietan, ikasleen % 35 inguru mailarik altuenean dago. Ikasleen % 42 eta % 53 artean errendimenduko erdiko mailan dago kompetentzia guztietan.


ITUNPEKO D EREDUA

Geruzaren ezaugarriak

Ebaluazioan parte hartu duten Itunpeko D ereduko ikastetxeak LH 4. mailako ikasleen zentsuaren % 21,2 dira eta itunpeko ikastetxeen % 42,8. Sexuari dagokionez, % 51,2 mutilak ziren eta % 48,8 neskak; ikasleek (% 49,6) gaztelaniaz edo beste hizkuntza batez hitz egiten dute etxean. Eredu honetan familia euskalduneko ikasleak % 46,4 da, ehuneko altuena eredu guztien artean, eta % 4ak ez daki edo ez du erantzun galdera horri.


Adin egokia ez duten ikasleen % 5,1 geruza honetan biltzen da, arrazoia berandu eskolatzea edo irakasmailaren bat errepikatzea delarik.

96. Grafikoa. ED10-LH4. Itunpeko D. Ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera



■ Euskara ■ Euskara ez dena ■ ED/EE

97. Grafikoa. ED10-LH4. Itunpeko D. Ikasleen ehunekoa adinaren eta irakasmailaren egokitasunaren arabera




■ Adin egokiko ikasleak ■ Adin egokia ez duten ikasleak

Azkenik, ikasleen % 8,9 indize sozio-ekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator, itunpeko A ereduaren gertatzen den moduan. ISEK maila altuko ikasleak % 46,8 dira, itunpeko A eta D ereduak bakarrik gainditzen dute ehunekoa.

Grafikoan ikus daitekeenez, emaitzen barreiadura handia duen geruza da. Ikastetxe edo ikastalde kopuru dezentea diagonalaren inguruan dago, eta horrek esan nahi du ISEK mailaren arabera espero zitekeen emaitza lortu dutela. Beste ikastetxe batzuk, berriz, diagonaletik urrun daude, gaineratik edo azpitik. Ikusgarria da nola ISEK maila bereko ikastetxe batzuek oso emaitza ezberdinak lortzen dituzten, aldea 71 puntuko izatera hel daitekeelarik.


98. Grafikoa. ED10-LH4. ITUNPEKO D
ISEK indizea eta Matematikarako konpetenziako emaitzen arteko erlazioa



Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Ebaluatutako konpetentzia bakoitzean, konpetentzia mailen araberrako ehunekoak grafikoan ageri dira:

99. Grafikoa. ED10-LH4. Itunpeko D. Ikasleen ehunekoak konpetenzietako errendimendu-mailen arabera



Geruza honetan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, ikasleen % 43 maila aurreratuan dago eta ebaluatu diren gainerako hiru konpetenzietan, ikasleen % 32 baino gehiago dago maila honetan. Errendimenduko erdiko mailan dagoen ikasleen ehunekoa % 43 eta % 53 artekoa da.

4. ALDAGAIEN AZTERKETA. LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO IKASLEEN EMAITZETAN DUTEN ERAGINA

4. ALDAGAIEN AZTERKETA

Ebaluatutako oinarrizko konpetentzietako ikasleen errendimendua hainbat faktorek eragiten dute: ez ikasgelako prozesu didaktikoez edo ikastetxeko eta heziketa-sistemaren kudeaketa-ezaugarriek, baita ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonal eta familiartekoez ere.

Familiarekin eta ikaslearen ezaugarri pertsonalekin lotutako faktoreak ikastetxearen kanpoko eraginak dira eta heziketa-prozesuak baldintzatzen dituzten input moduan hartu behar dira. Hala eta guztiz ere, ez da erraza esku-hartzen duten faktore guztiak ezagutzea, ezta benetan zenbaterainoko eragina duten jakitea ere; gainera, askotan, zaila da aldagaiaren eta errendimenduaren arteko kausa-efektua harremana egiaztatzea.

Ikasle bakoitza familia batekoa da eta ahalmen sozioekonomiko eta kultural jakin bat du, jatorri bat eta egitura- eta hizkuntza-ezaugarri zehatz batzuk ditu, baliabide material eta ondasun kultural jakin batzuekin. Ikasleen galdera-sortak txosten honetarako azterketa egiteko egokia den informazio guztia bildu nahi du: eskolaz kanpoko arlorak, familiakoak, ikasketa-aurreikuspenena eta abar. Horiek guztiak biltzen dira bertan, baita ikaslearen sexuari buruzko ezaugarriak, egiten ari den heziketa-mailaren eta adinaren arteko egokitzapena, ikaskuntzan hasi zeneko adina eta abar ere.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan garrantzitsuak izan daitezkeen arlorak aztertzeko, banaka hartutako aldagai jakin batzuen eragina aztertzeaz gain, indizeak sortu dira balio estandarizatuarekin, eta horiek ikasleek galdera-sortan erantzun dituzten zenbait galdera biltzen dituzte. Indize horien bidez, banakako edo testuinguruko egoera jakin batzuen deskribapenez eta emaitzetan duen eraginaren azterketaz gain, errendimenduaren eta elkartutako aldagaien artean egon daitezkeen loturaren azterketa ere eskaintzen da, baita elkartutako aldagai horiek aldatzeko gaitasuna duten eta zer neurritan egiten duten ere.

Balio guztiak posible diren eta tipifikatuta dauden (batez bestekoa 0 da eta desbideratzea 1ekoa) aldagai jarraitu baten forma hartzen duen maila sozioekonomikoari eta kulturalari (ISEK) buruzko indizea sortuz neurtu da arlo sozioekonomiko eta kulturalen eragina.

Azterketa aldagaien eta konpetentzietan errendimenduarekin duten loturaren arabera egiteko, dagokion konpetentziako proba egin eta bere puntuazioa errendimendu orokorrerako hartu den ikasleak soilik hartu dira kontuan; gainera, ikasle horiek ikasleari aurkeztutako galdera-sortan kasu bakoitzean egokiak diren galderei erantzun die.

Ebaluazio honetan, aldagairik adierazgarrienak eta 2009ko ebaluazioaren aurreko edizioarekin alderaketa ezartzea ahalbidetzen dutenak aukeratu dira azterketarako.

Hauak dira txosten honetan aztertu diren aldagaiak:

Familiako eta norbanakoaren aldagaiak	Ikastetxearen aldagaiak
<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleen sexua ● Adinaren eta ikasmilaren arteko egokitasuna ● Etxeko hizkuntza ● Familiaren egitura ● Eskolatzearen hasiera ● Familiaren jatorria ● Norberaren ezaugarriak (n.e.e.) ● Indize sozioekonomiko eta kulturalak <ul style="list-style-type: none"> - Indize sozioekonomiko eta laboral - Familiako ikasketak - Liburuak izatea - Etxean ordenagailua eta Internet izatea - Eguneroko prentsa eta aldizkari espezializatuak irakurtzea 	<ul style="list-style-type: none"> ● Geruza: Hizkuntza-eredua eta heziketa-sarea ● Ikasgelako kalifikazioen eta ebaluazio diagnostikoko emaitzen arteko korrelazioa.

2010eko ebaluazio hau aztertzeko aukeratu den aldagai bakoitzean, azterketa-metodologia hau jarraitu da:

1. Aldagaiaren zentzua eta garrantzia definitzen da, baita beste ebaluazio batzuetan –baldin badago- azterketarekin duen lotura eta datuak lortzeko erabili den iturria ere.
2. Lortutako erantzunen zuzeneko maiztasunak aztertzen dira, eta ondoren, ikuspegi estatistikotik zentzua izango duten taldeetan kategorizatzen dira.
3. Aldagaien definitutako kategoriekin ebaluatutako oinarrizko lau kompetentzietako errendimendu mailak batzen dira eta aldeak adierazgarriak diren ikusten da.
4. Ahal den kasuetan, 2009ko ebaluazioan lortutako emaitzekin alderatzen da.
5. Azkenik, egindako azterketatik abiatuta, zenbait ondorio eskaintzen dira.

Kompetentzietako bakoitzean emaitzen analisisa egiteko, kompetentzia horretan proba egin duten eta puntuazio probako emaitza orokorretan kontuan hartu zaien ikasle kopurua hartu da kontuan.

Familiako aldagai, aldagai pertsonal eta bestelako aldagaiekin lotutako datuak kalkulatzeko, ikaslearen galdera-sortan kasu bakoitzean egoki den informazioari dagokion itemak erantzun dituzten ikasleak hartu dira erreferentzia gisa.

a) EMAITZAK IKASLEEN SEXUAREN ARABERA

Nesken errendimendua handiagoa da mutilena baino ebaluatutako bi Hizkuntza-kompetentzietan, baita Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian ere. Matematikarako kompetentzian mutilek nabarmen puntuazio altuagoa lortu dute.

Ikasleen sexuaren araberako emaitzetan, neskek mutilek baino askoz ere emaitza hobeak lortu dituzte *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, bai euskaraz, bai gaztelaniaz, baita *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* ere. Hala eta guztiz ere, *Matematikarako kompetentzian*, mutilen errendimendua neskena baino nabarmen altuagoa da.

Hurrengo taulak Lehen Hezkuntzako 4. mailako neska-mutilek ebaluatutako kompetentzia bakoitzean lortutako puntuazioa erakusten du, baita emaitzen adierazgarritasuna ere. Itzaldura ilunak emaitzak aztertutako kompetentziaren batez bestekoa baino altuagoak direla esan nahi du.


Ebaluatutako kompetentzietan lortutako puntuazioak ikaslearen sexuaren eta aldean adierazgarritasuna % 95ean

Kompetentziak	Neskak	Mutilak	Aldea	Adierazgarritasuna
Matematikarako kompetentzia	245	251	6	bai
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	258	253	5	bai
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	259	249	10	bai
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	256	245	11	bai

BAI: % 95eko alde adierazgarria

Aurreko datuetan ikus daitekeen moduan, alderik handiena *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziari* eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziari* dagozkion puntuazioetan dago; horietan, neskek mutilek baino 10 eta 11 (hurrenez hurren) puntu gehiago dituzte. *Matematikarako kompetentzian*, mutilen taldeak neskenak baino 6 puntu gehiago lortu ditu eta aldea adierazgarria da.


100. Grafikoa. ED10-LH4. Ebaluatutako kompetentzietako errendimendua ikaslearen sexuaren arabera




Grafikoan bi taldeek ebaluatutako bi kompetentzietan lortutako batez besteko puntuazioak erakusten dira; gezi baten bidez adierazten da zein taldek dituen puntuazio altuenak.

Jarraian, ebaluatutako kompetentzia bakoitzean errendimendu mailen arabera ikasleen banaketari dagozkien grafikoak erakusten dira.


101. Grafikoa. ED10-LH4. *Euskara Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ikasleen ehuneko errendimendu-mailetan sexuaren arabera




102 Grafikoa. ED10-LH4. *Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ikasleen ehuneko errendimendu-mailetan sexuaren arabera



103. Grafikoa. *Matematikarako kompetentzian* ikasleen ehuneko errendimendu-mailetan sexuaren arabera




104. Grafikoa. ED10-LH4. *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* ikasleen ehuneko errendimendu-mailetan sexuaren arabera



- ED09-ED10 ebaluazioetan emaitzek sexuen arabera izan duten bilakaera.

Orain arte egindako Ebaluazio diagnostikoaren bi edizioetako hiru kompetentzia egonkorretako emaitzen bilakaerari erantzunez, joera berbera antzematen da; hau da, neskek emaitza hobekiak lortzen dituzte *hizkuntza-komunikaziorako kompetentzietan* eta mutilek *Matematikarako kompetentzian*. Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharrekoa da bi sexuek emaitzak hobetu egin dituztela *Matematikarako kompetentzian* izan ezik; bertan, neskek % 4 egin dute behera 2009ko ebaluazioari dagokionez eta mutilek berriz puntuazio berbera mantentzen dute (251 puntu bi ebaluazioetan).

105. Grafikoa. ED09-ED10. LH4 bilakaera. Emaitzak kompetentziaren eta ikasleen sexuaren arabera



Nesken artean, *Matematikarako kompetentziako* ebaluazioaren bi edizioen arteko aldea, 4 puntukoa, adierazgarria da.

Sexu bakoitzean, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ebaluazioko bi edizioen arteko aldea ere adierazgarria da.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ebaluazioen bi edizioen arteko aldea estatistikoki adierazgarria da bi sexuetan.

b) EMAITZAK IKASMAILAKO EGOKITASUNAREN ARABERA

Egokitasun-egoeran dauden ikasleak (2000. urtean jaiotakoak) konpetentzia guztietan errendimendu nabarmen altuagoa lortu dute adinarekiko atzerapenen bat duten ikasleekin alderatuta. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 93 dagokien mailan daude. ED-2009ko ehuneko berdina da.

Lehen hezkuntzako 4. mailako ikasle gehienak adinarekin bat datorren mailan daude; ikasleen % 7 soilik jaio da 1999. urtean, eta beraz, adin egokiarekiko -2000. urtean jaiotakoak- urtebeteko atzerapena du. Ez dira kontuan hartu beste urte batzuetan jaiotakoak direla dioten eta % 0,06ko ordezkapena duten 11 ikasle. Atzerapena irakasmila bat errepikatu izanaren ondorioa izan daiteke edo ikaslea urte bat beranduago eskolatu delako. Ikasle multzo horrek adin egokiko ikasleek baino emaitza nabarmen apalagoak lortu ditu konpetentzia guztietan.


Talde horiek ebaluatutako konpetentzietan lortutako batez besteko puntuazioak hurrengo taulan ageri dira. Egokitasun-egoeran dauden ikasleak soilik daude batez bestekoaren gainetik konpetentzia guztietan.

	<i>Matematikarako konpetentzia</i>	<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	<i>Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia</i>	<i>Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia</i>
Jaiotza-urtea: 1999	206	212	216	208
Jaiotza-urtea: 2000	251	259	257	254

2000. urtean jaiotako ikasle egokiek eta 1999an jaiotakoek lortutako puntuazioen artean alderik handienak *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* (47 puntu), *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* (46 puntu) eta *Matematikarako konpetentzian* (45 puntu) ikusten dira.

Grafikoak jaiotza-urtearen arabera ikasleen errendimendua erakusten du.

106. Grafikoa. ED10.LH4. Ebaluatutako konpetentzietako errendimendua ikasmailarekiko egokitasunaren arabera




Emaitzen aldeak adierazgarriak dira kompetentzia guztietan; hau da, 2000. urtean jaiotako eta dagokion mailan dauden ikasleek 1999. urtean jaiotakoek baino emaitza askoz hobekak lortu dituzte.


Ondorio hori beste ebaluazio batzuekin bat dator: PISA 2003, PISA 2006, TIMSS 2007, eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 2009. urteko Ebaluazio diagnostiko honekin. Joan den urteko txostenean aipatu genuen moduan, "Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmaila errepikatzeak duen eragina" ikerlanaren sorburua izan zen⁴.

Jarraian, ikaslearen adinaren egokitzapenaren eta heziketa mailaren arabera ebaluatutako kompetentzia bakoitzean errendimendu mailen arabera ikasleen banaketari dagozkion grafikoak ageri dira.


107. Grafikoa. ED10-LH4. *Euskara Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan egokitasunaren arabera




108. Grafikoa. ED10-LH4. *Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan egokitasunaren arabera



109. Grafikoa. ED10-LH4. *Matematikarako kompetentzian* ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan egokitasunaren arabera



110. Grafikoa. ED10- 4ºE.P. *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan egokitasunaren arabera




⁴ www.isei-ivei.net Argitalpenak atala: PISA 2003. PISA 2006. Lehen Hezkuntzaren Ebaluazioa 2004. TIMSS 2007. Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmaila errepikatzeak duen eragina.

Emaitzen bilakaera jaiotza-urtearen eta ikasmilaren arabera ED09-ED10

Ebaluazio diagnostikoaren bi edizioetan, hiru konpetentzia egonkorretako emaitzen bilakaerari erantzunez, joera berbera izan dela ikusten da; hau da, adinez egokia den mailan dauden ikasleek emaitza nabarmen hobeak lortu dituzte konpetentzia guztietan. Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharrekoa da 2009. urtearekin alderatuta, bi taldeek % 1 edo % 2 egin dutela behera *Matematikarako konpetentzian*. Atzerapen akademikoko maila bat duten ikasleek puntu bat gutxiago lortu dute *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, baina nabarmen hobera egin dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* (11 puntu).

111. Grafikoa. ED09-ED10 LH4 bilakaera. Emaitzak konpetentziaren eta ikasmilarekiko adin-egokitasunaren arabera



Orain arte egindako hainbat azterketatan egiaztatu da ikaslearen adinari eta egiten ari den ikasmilari dagokion aldagaia izan dela lortutako emaitzetan eragin handiena izan duten aldagaietako bat.

c) IKASLEAREN GURASOEN IKASKETA MAILA

Aitaren eta amaren ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, orduan eta puntuazio altuagoak lortzen dituzte seme-alabek ebaluatutako konpetentzietan. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen gurasoen % 70 baino gehiagok Batxilergoko edo maila altuagoko ikasketak dituzte. Ebaluazio bietan ehuneko berdina mantentzen da.

Orain arte egindako azterketetan⁵ argi geratu da gurasoen ikasketa mailak eragin argia duela ikaslearen ebaluazioen eta kalifikazioen emaitzetan.

Ikasketa maila lau taldetan sailkatu da: derrigorrezko hezkuntza amaitu ez dutenak (oinarrizko ikasketak); DBH edo ikasketa baliokideak amaitu dituztenak; Batxilergoa edo Lanbide Heziketa amaitu dituztenak eta unibertsitateko ikasketak amaitu dituztenak.

Aipatutako lau kategorietako gurasoen ehunekoa biltzen da taulan.

Ikasleen ehunekoa gurasoen ikasketa mailaren arabera

	Oinarrizkoak		DBH		Batxilergoa / LH		Unibertsitatea	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Aita	1.155	7,0	3.849	23,5	6.468	39,4	4.929	30,0
Ama	919	5,5	3.575	21,4	6.105	36,5	6.137	36,7

2010eko Ebaluazio diagnostikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako amen % 73,7k eta aiten % 69,9k adierazi dute batxilergoko ikasketak, lanbide heziketakoak edo unibertsitatekoak amaituta dituztela. Amen % 5ek eta aiten % 7k ez dute gutxieneko titulazioa lortu eta oinarrizko ikasketak soilik dituzte.

Aitaren ikasketa maila eta ebaluatutako konpetentzietako puntuazioa

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen gurasoek lortutako ikasketen gehieneko mailak seme-alabek lortzen dituzten emaitzetan izan dezaketen eragina aztertzen da. Taulan eta grafikoan, ikasleen gurasoek lortutako ikasketa mailen eta ikasle horiek 2010eko Ebaluazio diagnostikoan ebaluatutako konpetentzia bakoitzean lortutako puntuazioen artean dagoen lotura ikus daiteke.

Ikaslearen emaitzak eta aitaren ikasketa maila


	Oinarrizkoak	DBH	Batxilergoa / LH	Unibertsitatea
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	232	249	258	264
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	229	244	257	276
Matematikarako konpetentzia	223	239	249	266
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	229	241	251	267

Ebaluazio honetan honako hau ere egiaztatzen da: aitaren ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, seme-alabek konpetentzia guztietan orduan eta puntuazio altuagoa lortuko dute.

⁵ ISEI-IVEI. PISA 2003 Ebaluazioaren bigarren txostena. Emaitzak Euskadin. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net
ISEI-IVEI. Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntza-proposamenak.
2006ko apirila. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net

Aitak oinarrizko ikasketak dituen ikaslearen eta unibertsitateko ikasketak dituen beste ikasle baten arteko puntuazio-aldea 32 eta 47 puntu artekoa da, kompetenziaren arabera. Batxilergoko titulazioa edo altuagoa duten gurasoen seme-alabak ezarritako batez besteko puntuazioaren gainetik kokatzen dira ebaluatutako kompetentzia guztietan. Egoera hori bera gertatzen zen aurreko urteko ebaluazioan ere.

112. Grafikoa. ED10-LH4. Aitaren ikasketa maila eta ikaslearen emaitzak kompetentzien arabera



Amaren ikasketa maila eta ebaluatutako kompetentzietako puntuazioa

Hurrengo taulan eta horri dagokion grafikoan ikus daitekeen moduan, kasu honetan ere, amek zenbait eta prestakuntza maila altuagoa izan, seme-alabek ere orduan eta puntuazio altuagoa lortuko dute kompetentzia guztietan.

Ikaslearen emaitzak eta amaren ikasketa maila


	Oinarrizkoak	DBH	Batxilergoa / LH	Unibertsitatea
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	225	244	256	266
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	223	241	256	273
Matematikarako kompetentzia	219	235	247	265
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	224	238	250	266

Ikasketa maila aitek dutenean ikusten dena baino alde handixeagoa da.

Unibertsitateko ikasketak dituzten amen eta oinarrizko ikasketak soilik dituztenen seme-alaben arteko puntuazioko aldea 41 eta 50 puntu artekoa da. Kompetentzia guztietan, aldeak handiagoak dira ikasketa batzuk edo besteak dituen aita izan ohi denean baino (32 eta 47 puntu arteko aldea).

Batxilergoko ikasketak edo altuagoak dituzten amen seme-alabek 2010ean ebaluatutako lau kompetentzietan ezarritako batez besteko puntuazio berbera edo altuagoa lortu dute; izan ere, Matematikarako kompetentziako aldea ez da adierazgarria.

1123 Grafikoa. ED10-LH4. Amaren ikasketa maila eta ikaslearen emaitzak kompetentzien arabera



Puntuazioen alderaketa gurasoek lortutako ikasketak kontuan hartuta ezartzen baldin bada, honako hau ondorioztatzen da:

- Amek oinarrizko ikasketak soilik dituzten ikasleek lortu ohi dituzte puntuazio baxuenak kompetentzia guztietan.
- Aitak eta amak lortutako ikasketa maila unibertsitatekoa denean, seme-alabek ebaluazioan lortutako puntuazioan ia-ia ez dago alderik.

d) IKASLEEN FAMILIA-EGITURA

Familia nuklearrean, anai-arrebekin edo gabe, (% 86) bizi diren ikasleek lortzen dituzte puntuazio onenak kompetentzia guztietan. ED-2009ko egoera berdina zen.

Galdera-sortako galdera batean, egun norekin bizi den erantzuteko eskatzen zitzaion ikasleari. Erantzunak taulan ageri diren lau taldeetan sailkatu dira.

Ikasleen ehunekoa, bizi diren familia-egituraren arabera. Lehen Hezkuntzako 4. maila

Aita, ama eta neba-arrebak		Aita eta ama		Aita edo ama		Beste egoera batzuk	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
12.086	67,1	3.323	18,4	2.327	12,9	278	1,5

Bildutako datuak kontuan hartuta, egoera honela deskriba daiteke:

- 2009ko Ebaluazio diagnostikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle gehienak, % 86, familia-nukleoan bizi dira.
 - Ikasleen % 67 aita, ama eta neba-arrebez osatutako familia-nukleoan bizi da.
 - Ikasleen % 18 baino zertxobait gehiago gurasoekin bizi da.
- Ikasleen % 12,9 guraso bakarreko familian bizi da, neba-arrebarekin edo gabe.
- Ikasleen % 1,5 beste familiarteko batzuekin, harrera-familiatan, erakunderen batean bizi dira; horiei “beste egoera batzuk” izendapena emango diegu.

Familia-egitura eta lortutako emaitzak

Jarraian, Lehen Hezkuntzako 4. mailan dagoen ikaslearen familia-egiturak aztertutako oinarriko kompetentzietan lortutako puntuazioetan eraginik edo loturarik baduen aztertu nahi da. Beste ebaluazio batzuetako emaitzen arabera, aldagai honek eragina du ikasleak lortutako emaitzetan.

Lortutako emaitzak eta familia-egitura. LH 4. maila


	Aita, ama eta neba-arrebak	Aita eta ama	Aita edo ama	Beste egoera batzuk
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	257	252	244	233
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	257	258	250	237
Matematikarako kompetentzia	252	245	237	227
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	253	248	241	226

Datuen arabera, familia-nukleoan, neba-arrebekin edo gabe bizi diren ikasleek, % 86k, lortzen dituzte puntuaziorik onenak kompetentzia guztietan. Bi gurasoekin bizi diren eta neba-arrebak dituzten ikasleak, % 67, daude kompetentzia guztietan batez bestekoaren gainetik.

Beste egoera batzuetan dauden ikasleek lortzen dituzte puntuaziorik baxuenak kompetentzia guztietan.

Puntuazioen arteko alde guztiak adierazgarriak dira.

114. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen familiaren egitura eta emaitzak kompetentzia guztietan



e) IKASLEAREN ESKOLATZEAREN HASIERAKO ADINA

Konpetentzia guztietan emaitzak jaitsi egiten dira hasiera-adina igotzen den heinean. Eskolatzea 3 urte baino lehenago hasi zuten ikasleak konpetentzia guztietan batez bestekoaren gainetik daude.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ia % 94k eskolatzea 3 urterekin edo gutxiagorekin hasi zuten. ED-2009ko ebaluazioan baino % 1 gehiago.

Gure gizartean, derrigorrezko hezkuntza 6 urtetik aurrera hasten da; hala ere, kontuan hartuta haur gehienen eskolatzea adin hori baino lehenago hasten dela, hasiera-data konpetentzien emaitzetan eragina izan dezakeen aldagaia den jakin nahi da. Ikaslea ikastetxera edo hartzaindegira joateari egiten dio erreferentzia galderak.

Ikaslearen ehunekoa eskolatzearen hasierako adinaren arabera

3 urte baino lehen		3 urterekin		4 urterekin		5 urte edo gehiagorekin	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
13.415	75,9	3.083	17,4	625	3,5	561	3,2

2009-10 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. maila egiten ari zen ikasleen % 93 baino zertxobait gehiago hartzaindegira joan zen edo eskolatzea 3 urterekin edo lehenago hasi zuen.

Eskolatzearen hasierako adinaren arabera lortutako emaitzak


Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, eskolatzea 3 urte bete baino lehenago hasi zuen ikasleak konpetentzia guztietan emaitza hobeak lortu ditu eskolatzea 3 urterekin edo gehiagorekin hasi zuen gainerako taldeak baino. Konpetentzia guztietan, ikaslearen eskolatzearen hasierako adinak gora egiten duen heinean, emaitzek behera egiten dute. Eskolatzearen hasierako adin guztien arteko aldeak adierazgarriak dira konpetentzia guztietan.

Lortutako emaitzak eta eskolatzearen hasiera

	3 urte baino lehen	3 urterekin	4 urterekin	5 urterekin
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	259	246	230	219
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	260	253	232	218
Matematikarako konpetentzia	253	242	227	212
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	254	246	227	217

Eskolatzea 3 urte baino lehenago hasi zuen ikaslea soilik dago konpetentzia guztietan batez bestekoaren gainetik

115. Grafikoa. ED10-LH4. Eskolaratzearen hasierako adina eta kompetentziako emaitzak




Lehen ere frogatu zen eskolatzeko goiztiarrak (3 urte edo gutxiago) eragin onuragarriak zituela ondorengo eskola-errendimenduan.⁶ Beste ebaluazio batzuek (PISA, TIMSS, PIRLS, ED09) behin eta berriz bermatzen dute aldagai honen eragina.

Emaitzen bilakaera

2009 eta 2010. urteetako ebaluazio diagnostikoetan eskolaratzearen hasieraren arabera ikasleek lortutako emaitzak alderatuz, joera bera antzematen da. Eskolatzeko 3 urte bete baino lehen hasi zuen ikasleak lortu dituen emaitzarik onenak; jarraian, 3 urterekin hasi zuen ikaslea dago, eta horrela hurrenez hurren.

116. Grafikoa. ED10-LH4. Eskolaratzearen adina eta ED09 -ED10 emaitzen bilakaera



⁶ ISEI-IVEI. Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntza-proposamenak. 2006ko apirila. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net

f) FAMILIAREN JATORRIA: ATZERRIKO JATORRIA DUTEN IKASLEAK

Ikasle etorkinen % 70 egokitasun-egoeran dago, baina ez da batez bestekora iristen kompetentzia batean ere.

Ikasle etorkinak Lehen Hezkuntzako 4. maila egiten duten populazioaren % 7 dira. ED-2009ko ikasleen ehunekoa mantentzen da.

Lehenago adierazi den moduan, 2010eko ebaluazio diagnostikoan hartu dute parte Euskadiko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek. Hala eta guztiz ere, oso egoera berezietan, horien artean betebeharrak jakin batzuk betetzen ez zituen hezkuntza-sisteman sartu berri den ikasle etorkinarekin lotutakoetan, salbuespenak egin dira parte-hartzearen baldintzetan.

Ikasle etorkinaren kategorizazioa ikasleak galdera-sorta betetzean eskaintzen zuen informazioetik abiatuta egin da. Hala eta guztiz ere, ikastetxeak aurretiaz eskaini zituen ikasmaila honetan urtebete baino gutxiagoan eskolatutako eta gainera proba egin zitekeen bi hizkuntzetako bat menderatzen ez zuten ikasleei buruzko datuak. Bi informazio-iturrien artean gorabeherarik egonez gero, ikastetxeak emandakoa errespetatu da.

Ikasle etorkinari buruzko datuak aztertzeke, baldintza hauek hartu dira kontuan:

- Jatorriz atzerritarra izanik hezkuntza-sisteman sartu berri den (urtebete baino gutxiago) eta probaren aplikazioko bi hizkuntzak ezagutzen ez dituzten ikasleak. Probak egin ahal izan dituen arren, ikastetxeak hala erabakita, emaitzak ez dira batez bestekoan sartu.
- Jatorriz atzerritarra izanik hezkuntza-sisteman sartu berriak diren ikasleak, baina etxeko hizkuntza gaztelania dutenak eta proba hizkuntza horretan egin dutenak. Kasu horietan, emaitzak batez besteko orokorraren parte dira.
- Guraso bat edo biak atzerritarrak dituzten ikasleak. Hezkuntza-sisteman urtebete baino gehiago baldin badarama, batez besteko orokorra osatzen dute.

2010eko Ebaluazio diagnostikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle etorkinen guztizkoa 1.312 ikaslekoa da; horien artean 909, hau da, % 69,3, titulartasun publikoko ikastetxeetan daude eskolatuta, eta 403, hau da, % 30,7, itunpeko ikastetxeetan.

Geruzen arabera, ikasle etorkinen banaketa honakoa da:

Ikasle etorkinak geruzen arabera. Lehen Hezkuntzako 4. maila

A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
Kopurua	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
216	16,5	255	19,4	438	33,4	64	4,9	220	16,8	119	9,1
Ikastetxe publikoko ikasleak guztira, 909 (% 69)						Itunpeko ikastetxeko ikaslea guztira, 403 (% 31)					
Ikasle etorkinak guztira, 1.312											

Hizkuntza-ereduen arabera, ikasle etorkinen % 36 B ereduaren eskolatuta dagoela ikusten da; % 42, D ereduaren, eta % 21, berriz, A ereduaren.

Ikasle etorkinak eta eskolatzeko-ereduak. Lehen Hezkuntzako 4. maila

A ereduak		B ereduak		D ereduak	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
280	21,4	475	36,2	557	42,4

Neska eta mutil etorkinen ehunekoa berbera da, % 50, gutxi gorabehera.

Ikasle etorkinaren sexua. Lehen Hezkuntzako 4. maila

Mutila		Neska	
Kopurua	%	Kopurua	%
664	50,6	648	49,4

Ikaslearen jaiotza-urtearen arabera ondorioztatzen dugu ikaslea egokitasun-egoeran dagoen edo ikasturteren bat errepikatu duen; hala ere, ikasle etorkinen kasuan baliteke eskolatze berantiarra edo hezkuntza-sistema desberdinen arteko egokitzapena gertatzea.

Ikasle etorkinaren jaiotza-urtea. Lehen Hezkuntzako 4. maila

	Kopurua	%
Jaiotza-urtea: 2000 (egokitasuna)	915	69,7
Jaiotza-urtea: 1999	391	29,8
Jaiotza-urtea: 1998	6	0,5

Ikasleen % 70 egokitasun-egoeran dago; hau da, bere adinari dagokion ikasmilian.

Probetan parte hartu zuten ikasle guztien puntuazioak ez dira kontuan hartzen ikasleen batez besteko orokorra lortzeko garaian. 1.312 ikasle etorkinen artean, 1.003 ikaslek -% 76,4- egin zituzten 4 konpetentzietako probak.

Hurrengo taulan, konpetentzia bakoitzean batez besteko orokorrean kontuan hartu den ikasleen kopurua eta horietako bakoitzean ikasleek lortutako batez bestekoak deskribatzen dira.

Proba egin zuen eta konpetentzien arabera batez besteko orokorrean kontuan hartu den ikasle etorkina

	Kopurua	Batez bestekoa
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	1.029	220
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	1.118	233
Matematikarako konpetentzia	1.118	219
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	1.113	229

Ikasle hauek konpetentzia bakar batean ere ez dute batez besteko orokorra lortzen.

Guztizko biztanleria etorkinaren azterketa osagarri gisa, jarraian, talde hau 2010eko Ebaluazio diagnostikoko Lehen Hezkuntzako 4. mailako eskola-biztanleria orokorraren baitan kokatzen da.

Etorkinak, 1.312 ikasle, ikasmila honetan, biztanleria osoaren % 6,9 dira. Hau da biztanleriaren banaketa heziketa-geruzen arabera:

Etorkinen eta bertakoen ehunekoak geruzen arabera. Lehen Hezkuntzako 4. maila

	Bertako biztanleria		Etorkinak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A publikoa	356	62,2	216	37,8
B publikoa	1163	82,0	255	18
D publikoa	7164	94,2	438	5,8
Itunpeko A	945	93,7	64	6,3
Itunpeko B	4170	95	220	5
Itunpeko D	3926	97,1	119	2,9
Guztira	17.724	% 93,1	1.312	% 6,9

Geruzen arabera azterketan, A geruza publikoan eskolatutako ikasleen ia % 38 etorkinak direla nabarmendu behar da. Ikasle etorkinen % 18 dago B geruza publikoan eskolatuta. Gainerako geruzetan, etorkinen ehunekoa % 5ekoa da gutxi gorabehera. Itunpeko D geruzan eskolatzen dira etorkin gutxien, % 2,9 hain zuzen ere.

Euskadiko hezkuntza-sisteman Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle etorkinen eskolatzeari buruzko azterketan sakontzeko, jarraian, hezkuntza-maila hori duten 522 ikastetxetan horren taldekatzea deskribatzen da. Maila horretan dagoen ikasle etorkina maila hori eskaintzen duten guztizkoa osatzen duten 522 ikastetxetatik 362tan dago eskolatuta. Hala eta guztiz ere, horietako bakoitzaren ehunekoa ikastetxeen kopurua familia etorkinen bizilekuarekin bat etortzearen arabera izango da askotan.

Hala eta guztiz ere, datu orokor horiek ez dute ikasle etorkinaren eskolatzeari errealitatearen irudia ematen. Egoera hobeto ulertzeko, bi ikuspegitatik aztertu behar da: batetik, ikasleak modu orekatuan banatzen diren jakin behar da, eta bestetik, ikasle hauen kontzentrazio-egoerak dauden.

Etorkinen guztizko ehunekoa eta eskolatzen diren ikastetxe kopurua

Ikasle etorkinak eskolatzen dituzten ikastetxeen kopurua	Ikasle etorkinen guztizko ehunekoa
25	25
45	37,1
55	42,4
85	55,2

Taulan ageri diren datuak metagarriak dira; hau da, bertako bi muturrak erreferentzia gisa hartuta ikus daiteke ikasle etorkinak dituzten 362 ikastetxetatik % 25ek eskolatzen dituela ikasle horiek; % 37, 45 ikastetxetan daude eskolatuta; % 42, 55 ikastetxetan biltzen dira, eta ikasle etorkinen % 55, berriz, 85 ikastetxetan dago eskolatuta (horietan daude sartuta aurrekoak).

Era berean, eskolatzen diren ikastetxeetako ikasle-proporzioa aztertuz, ondoriozta daiteke bakoitzean dagoen ehunekoa ez dela homoginoa, nabarmen aldatzen da, hurrengo taulako datuek erakusten duten moduan.

Ikastetxe kopurua, eskolatzen duen ikasle etorkinen ehunekoaren arabera


Ikasle etorkinaren eskolatzeko ehunekoaren arabera ikastetxe kopurua	Ikastetxeetako ikasle etorkinen ehunekoa
1	% 70 edo gehiago
12	50 eta 70 artean
16	30 eta 50 artean
39	20 eta 30 artean
85	10 eta 20 artean

Ikasle etorkin kopuru handieneko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen artean, ikastetxe batean, eskolatutako populazioaren % 70ek behintzat jatorri hori du. Era berean, 85 ikastetxetan, ikasle etorkinen ehunekoa % 10 eta % 20 artekoa da.

Ikasle etorkinen emaitzen bilakaera

2009 eta 2010 urteetako ebaluazio diagnostikoetan ikasle etorkinek lortutako emaitzak alderatuz, bertako populazioaren joera berbera antzematen da. Hizkuntza-kompetentzietan, igoera gertatu da emaitzetan, eta Matematikarako kompetentzian % 4ko jaitsiera gertatu da. Hiru kompetentzietan, bi ebaluazioen arteko aldea adierazgarria da.

117. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasle etorkinen emaitzen bilakaera



g) EBALUAZIO DIAGNOSTIKOKO EMAITZEN ETA IKASGELAN MATEMATIKAN IZANDAKO KALIFIKAZIOEN ARTEKO KORRELAZIOA

Korrelazio positiboa dago geruza guztietan matematikan ikasgelako kalifikazioen eta ebaluazioan lortutako puntuazioen artean. Ikasgelako kalifikazioa altuari, proban ere puntuazio altua dagokio.

➤ **Ikasgelako kalifikazioak Matematikarako kompetentzian**

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 95ek esan du matematikan ikasgelako kalifikazioetan nahikoaren eta bikainen arteko kalifikazioa lortu duela.

Azterketa honen helburua ikasleek ikasgelan lortu dituzten kalifikazioen eta 2010eko Ebaluazio diagnostikoan lortutako puntuazioen artean loturarik dagoen jakitea da. Ebaluazioaren edizio honetan, Matematika aukeratu da berriro ere; izan ere, hizkuntzari dagokionez "kutsadura" gutxien duena da eta ebaluazioen arteko alderaketa ahalbidetzen du.

Hurrengo taulan, joan den ikasturtean ikasgelan Matematikan kalifikazio bat edo bestea lortu zuela dioen ikasleen ehunekoaren azterketa zehatza erakusten da geruzen arabera.


Geruza bakoitzean ikasleen ehunekoa, ikasgelako kalifikazioen arabera

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	A itundua	Itunpeko B	Itunpeko D	% batez bestekoa
Gutxi	8,3	4,5	4,9	4,1	5,3	4,0	4,8
Nahikoa	16,7	10,2	11,5	7,9	8,0	8,3	9,8
Ongi	23,1	22,4	21,6	18,6	19,3	18,3	20,3
Oso ongi	28,5	29,3	33,0	34,4	35,3	35,0	33,7
Bikain	23,4	33,6	28,9	35,0	32,1	34,4	31,4

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 65 ingururi ikasgelako kalifikazioei buruzko informazioa ematean, adierazi du *oso ongi* edo *bikain* lortu zuela Matematikan. % 4,8k soilik adierazi du *gutxi* atera zuela. Ehuneko horiek 2009ko ebaluaziokoaren berdinak dira ia-ia.⁷

⁷ ISEI-IVEI 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa "Faktore eta aldagaien analisia. Lehen Hezkuntzako 4. maila. 2010eko uztaila. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net

118. Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen ehunekoa Ikasgelako matematikako kalifikazioen arabera geruza bakoitzean



➤ Ikasgelako kalifikazioa eta ebaluazioko puntuazioa

Itunpeko geruzetan eta D publikoan, matematikan ikasgelako kalifikazioetan oso ongi edo bikain atera dutela dioten ikasleak ebaluazio diagnostikoan batez bestekoaren gainera jarri dira.


Ikasleak hainbat geruzari buruz emandako informaziotik abiatuta, 2010eko ebaluazioaren aurreko ikasturtean lortutako Matematikako kalifikazioaren eta konpetentzia horretan lortutako puntuazioen artean loturarik dagoen aztertu da.

Ebaluazioan lortutako puntuazioak eta ikasgelako kalifikazioak geruzen arabera

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
Gutxi	189	195	200	203	210	206
Nahikoa	199	207	213	211	220	218
Ongi	203	223	231	239	237	236
Oso ongi	227	242	250	260	257	255
Bikain	239	261	271	289	277	279

Matematikako ikasgelako kalifikazioen eta 2010eko ebaluazio diagnostikoari dagokion konpetentzian lortutako puntuazioen arteko geruza guztietan korrelazio positiboa dago. Ikasgelako kalifikazio altuari ebaluazioan ere puntuazio altua dagokio. 2009ko ebaluazioan gertatzen zen moduan, itunpeko hiru geruzetan eta D publikoan oso ongi eta bikain notak atera zituztela eta B publikoan bikain kalifikazioa lortu zutela dioten ikasleak soilik daude ebaluazioko batez bestekoaren gainera, 248 puntuekin Matematikarako konpetentzian.

119 Grafikoa. ED10-LH4. Ikasleen banaketa geruza bakoitzean *Matematikarako kompetentziako* puntuazioaren arabera eta ikasgelako kalifikazioen arabera




➤ **Ikasleen banaketa ikasgelako kalifikazioaren eta 2010ko ebaluazio diagnostikoan lortutako puntuazioaren arabera**

Ikasgelako nota berarekin ikasle batzuk proban batez bestekoaren azpitik 100 puntu baino gehiagora jarri dira eta beste batzuk, aldiz, ikasgelako kalifikazio bera lortu dute eta ebaluazioan batez bestekoaren gainetik jarri dira. 2009 ebaluazio diagnostikoan berdin gertatu zen.

Ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnostikoan lortutako batez bestekoaren arteko korrelazioa positiboa da. Interesgarria da ikustea ikasleak *Matematikarako kompetentzian* zenbateraino sakabanatuta dauden, betiere, ikasgelan *Matematikan* lortu dituela dioen kalifikazioak kontuan hartuta.

2010eko Ebaluazio diagnostikoan lortutako batez bestekoen sakabanatzea, ikasgelan lortutako kalifikazioen arabera, hurrengo grafikoan ikus daiteke. Ikus daitekeen moduan, ikasgelako kalifikazio berberarekin, *gutxiegi* esate baterako, ebaluazioan 120 puntuko gehieneko puntuazio-aldea dago. Hau da, ikasgelan *Matematikan gutxiegi* lortu zuen ikasleren batek ebaluazioan 147 puntuko batez besteko puntuazioa lortu du, eta beste batek edo beste batzuek, ikasgelako kalifikazio horrekin, ebaluazioan 267 lortu dituzte, eta horien puntuazioa 248 puntuko batez besteko orokorretik gora dago.

120 Grafikoa . ED10-LH4. Ikasleen banaketa *Matematikarako* kompetenziako puntuazioaren arabera eta ikasgelako kalifikazioaren arabera



Ikasgelako kalifikazioa erreferentzia gisa hartuta eta ikaslearen ebaluazioan puntuazioarekin alderatuz, ikasgelako kalifikazio bakoitzaren baitan, proban puntuazio onena eta okerrera lortu duten ikasleen artean kasu guztietan 120 puntuko aldea dagoela konturatzen gara. Ikasgelan *bikain* atera dutenen kasuan, 166 puntuko aldea dago ikasleak lortutako puntuazio altuenaren eta baxuenaren artean.

Datu horiek azaltzeko hainbat hipotesi daude: batzuek diotenaren arabera, sakabanatze hori ikasgelan kalifikazio berbera lortzeko errendimendu maila desberdinak eskatzearen ondorioa izan daiteke. Beste batzuen arabera, ikaslearen taldeak eragina du ikasgelan kalifikazio bat edo bestea lortzeko garaian.

Hain zuzen ere, ikasturtea errepikatzeari buruzko txostenean⁸ nabarmendu zen ikasgela bateko talde batean edo beste batean egoteak emaitzan zer nolako efektua duen. Azterketan, ikasgelako kalifikazioak DBHko 2. mailako ikasleek (Zientziak eta Matematika) TIMSS 2007 ebaluazioan lortutakoekin alderatu ziren. 2009ko ebaluazio diagnostikoan egindako azterketan ere egoera berbera nabarmendu zen.


⁸ ISEI-IVEI. Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmaila errepikatzeak duen eragina. 2009ko apirila. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net

➤ **Ikasgelako kalifikazioaren eta ikaslearen ikastaldearen arteko lotura**

Ikaslea eskolatuta dagoen taldearen maila akademikoak ikasgelan lortzen dituen kalifikazioak baldintzatzen ditu. Ebaluazioan emaitza bera aterata ere ikasgelako notak desberdinak izan daitezke, ikaslea eskolatuta dagoen taldea "maila altuko" edo "maila baxukotzat" hartzearen arabera.

Azterketan sakontzeko eta ikaslea eskolatuta dagoen taldeak ikasgelako kalifikazioak baldintzatzen dituen jakiteko, parte hartu duten talde guztiak lau kuartiletan zatitu dira, 2010eko Ebaluazio diagnostikoan lortu diren puntuazioen arabera. 1. kuartilean dago emaitzarik baxuenak dituzten ikasle taldeen % 25, eta 4. kuartilean daude ebaluazio honetan emaitzarik onenak lortu dituzten ikasle taldeak. Kuartilen arabera bildutako puntuazioak 2010eko ebaluazioaren aurreko ikasturtean ikasleak ikasgelan lortu zituela dioen Matematikako kalifikazioekin alderatu dira.

121. Grafikoa. ED10-LH4. Matematikarako kompetentziako puntuazioak ikasgelako kalifikazioaren arabera eta ikastaldeko emaitzen arabera



Adibide moduan, honako egoera hau aztertuko dugu: ikasgelan *bikain* kalifikazioa lortu duen 1. kuartileko (Ebaluazioan errendimendurik baxuena lortu dutenen % 25) taldean eskolatutako ikasle batek 243 puntu lortu ditu ebaluazioan, 248 puntuko ezarritako batez bestekoaren azpitik. Ikasle hori 3. kuartila osatzen dutenen taldean egongo balitz, *ongi* kalifikazioa aterako luke ikasgelan, eta 4. kuartila osatzen dutenen taldean egongo balitz (ebaluazioan errendimendu altuena lortzen dutenak), *nahikoa* kalifikazioa aterako luke ikasgelan.

Badirudi ISEI-IVEIren azterketan (Zientziak eta Matematika) aipatutakoa eta Grisayk⁹ bildutakoari erreferentzia egiten diona berretsi egin dela berriro; hain zuzen ere, ikaslea eskolatuta dagoen taldearen mailak baldintzatu egiten dituela ikasgelan lortzen dituen kalifikazioak; izan ere, irakasleek ikasgelan ikasleen artean gertatu ohi den sakabanatzea egokitu ohi dute eta ebaluazio-irizpideak gelari edo taldeari emandako erdiko mailara moldatzen ditu. Ebaluazio diagnostikoan, emaitza berberak ikasgelako nota desberdinak izan ditzake, Ikaslearen taldea “maila altukoa” edo “maila baxukoa” izatearen arabera. 2009. urteko Ebaluazio diagnostikoak ere berresten du hipotesi hori.¹⁰

⁹ Grisay Aletta. “Les mirages de l'évaluation scolaire. Rendement en français, notes et échecs à l'école primaire”. Revue de la Direction de l'Organisation des Études, XIX, 8, 3-20. . 1984.

¹⁰ ISEI-IVEI 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa “Faktoreeb eta aldagaien analisia. Lehen Hezkuntza 4. maila. 2010eko uztaila. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net

h) HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN DESKRIBAPEN-AZTERKETA

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, sarbideko edo ko Curriculum-egokitzapen baten bidez ikasketak egiten dituzten ikasleen ehunekoa populazioaren guztizkoaren % 1ekoa da, 195 ikasle. % 61 mutilak dira, eta % 39, neskak. Sare publikoan eskolatuta dago % 74, eta itunpeko sarean, berriz, % 26 % 51 D ereduan dago.

Ebaluazio diagnostikoa zentsu-izaerako probatzat hartzen da; bertan, bi hezkuntza mailetan eskolatutako ikasle guztiek hartzen dute parte: Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila. Azken hamarkadetan ezarritako hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak hezkuntza-sisteman sartzeko planek bere ondorioa izan dute; hain zuzen ere, ohiko ingurunean hezkuntza-egoera oso desberdinak dituzten ikasleak eskolatu dira; hori dela eta, Ebaluazio diagnostikoari begira, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen parte-hartzea nolakoa izan litekeen planifikatu behar izan da.

Aztertu dugun moduko ebaluazio estandarizatuaren ezaugarriekin ezin da ikaskuntza Curriculumeraren Egokitzapen Indibidual esanguratsuen (CEI) bidez egiten duen ikasle bakoitzarentzat proba desberdina egin. Hala eta guztiz ere, hezkuntzan egiten diren egokitzapen ugariak oinarri hartuta eta ahal den neurrian hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleek ebaluazioetan parte hartzeko aukera normalizatzeko aldera, parte hartzea posible den zenbait egoera hartu dira aintzat.

Hezkuntza-sistemako hezkuntza-premiak bereziak definitu dira eta 4 taldetan sailkatu dira; horietan, Ebaluazio diagnostikoan parte hartzea curriculumerako sarbidea izateko behar diren antzeko baldintzetan egin ahal izateko beharrezko baliabideak eta parte hartzeko baldintzak proposatu dira.

Egoera hauek definitu dira:

1. Curriculumerako sartzeko egokitzapena behar duten ikasleak

Ikasle hauek (ikusmen-, entzumen- eta mugimenduzko urritasunak izan ditzakete) Lehen Hezkuntzako 4. mailarako eta DBHko 2. mailarako tipifikatutako proba berberak egin ditzakete, baina ebaluazio horietarako sarbidea izateko dagozkien egokitzapenekin.

- *Ikusmen-urritasuna duten ikasleak*; ikusmen mailaren arabera (ikusmen urria edo itsutasuna), hauek behar izan ditzake:
 - Ebaluazio-liburuxkak braillera itzultzea.
 - Materialak ugaritzea.
- *Entzumen-urritasuna duten ikasleak*; erabilitako komunikazio-sistemaren arabera, hauek behar izan ditzake:
 - Zeinu-hizkuntzako irakasleak.
 - Maiztasun Modulatuak
- *Mugitzeko gaitasun eza duten ikasleak*; kaltetutako mugimendu-funtzioen arabera, hauek behar izan ditzakete:
 - Probei erantzuna emateko ordenagailua edo beste baliabide tekniko bat euskarri moduan.

Proban parte hartu duen eta horrelako beharrak dituzten ikasleak ez dira taldearen batez besteko puntuazioan sartu; izan ere, egindako egokitzapenek parte hartzea erraztu badute ere, ez da ziurtatzen baldintzak gainerakoekin alderagarriak direnik eta ez du emaitzen alderaketa ahalbidetzen.

2. Curriculum Egokitzapen Indibidual (CEI) esanguratsua duten ikasleak.

Ikasle hauek bere mailari dagokion proba gainerako ikasgelaren baldintza berberetan egin ahal izan dute. Parte hartzeko erabakia ikastetxearena izan da; hala eta guztiz ere, CEI bat duten rekin lotutako kompetentzietako puntuazioa ez da kontuan hartu taldearen batez beste puntuaziorako.

3. Ikasgela arruntean eskolatutako CEI esanguratsua orokorra dituzten ikasleak.

Curriculum CEI orokor batekin garatzen duten ikasleak, hau da, guztiak hezkuntza-behar bereziak dituen ikaslearen mailara egokituta baldin badaude, ez du ebaluazioa egin, ikastetxeak kontrakoa erabaki ez badu behintzat. Proba estandarizatua ez da talde honen ikaskuntzak ebaluatzeko ondo egokitu ahal izateko testuingurutzat hartzen. Iritzi berbera izan da CEI orokor esanguratsua duten eta ikasgela egonkor batean eskolatuta dagoen ikasleen kasuan ere.

Laburbilduz, adierazitako taldeetako ikasle guztiek ikastetxeko irakasleek hartutako erabakiaren arabera egin ahal izan dituzte probak; ikastetxeko irakasleek ezagutzen dute bakoitza, eta taldeko eta ikastetxeko puntuazio orokorretik kanpo gelditu dira CEI duten etan lortutako emaitzak edo curriculumera sartzeko CEIren emaitzak.

Erabilitako baliabideak.

Hauek izan dira arloko edo sartzeko CEIren bat duten ikasleek parte hartzeko edo antolatzeko erabilitako giza baliabideak edo antolaketa-baliabideak:

- Itsuen Baliabidetegia (IBE).
- Ikasle gorrentzako lurraldeko aholkularitzak.
- Ikaslea eskolatuta dagoen ikastetxeetako giza baliabideak edota baliabide materialak: osagarriak, aholkulariak, Pedagogia Terapeutikoko Irakasleak, Maiztasun Modulatuak, zeinuhizkuntzako irakasleak.

Ondorioz, deskribapena hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleena da eta beren curriculum sartzeko edo ko-curriculum batean edo gehiagotan- Curriculum Egokitzapen Indibiduala (CEI) biltzen da; gainera, beharrezko baliabideekin (ikusmen baxuko ikasleentzako hainbat hedapen mota edo Braillerako transkribapena), ikastetxeak erabaki du ebaluazioan zein ikasleek parte hartuko duten. Datu hauetan, ez dago curriculum CEI orokorrek, 178rekin, gara daitekeen ikaslerik; hau da, arlo guztiak hezkuntza premia bereziak dituen ikaslearen mailara egokituta dauden kasuak.

Populazio honen deskribapenean (lehen adierazitako CEI motaren batekin ikasketak egiten dituen ikaslea) 2009ko ebaluazio diagnostikoan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei dagozkien datuak aurkezten dira.

➤ Lehen Hezkuntzako 4. mailan sartzeko edo arloko CEI duten ikasleak.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, 2010eko ebaluazio diagnostikora aurkeztu den eta sartzeko edo arloko CEI duten ikasleen guztizkoa 195 ikaslekoa izan da; maila honetako ikasle guztien % 1 osatzen dute. Horien artean 144, % 74, titulartasun publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta, eta 51, % 26 itunpeko ikastetxeetan.

Bigarren ebaluazioan CEI duten ikasleen kopurua askoz handiagoa da lehenengoan baino. Alde handi hori azaltzeko kontuan eduki behar da, alde batetik, ikastetxeek datuen orriak betetzeko irizpide desberdinak erabili zutela eta beste aldetik, datuen orrian aldaketa batzuk egin direla bigarren ebaluazio honetan informazio zehatzagoa lortzeko.

➤ **CEI duten ikasleen irakastereduen eta geruzen arabera banaketa**

Hainbat geruzatan sartzeko edo ko CEI duten ikasleen banaketa ageri da taula honetan:

Sartzeko edo ko CEI duten ikasleak, geruzen arabera. Lehen Hezkuntzako 4. maila

A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
30	15,4	34	17,4	80	41,0	8	4,1	23	11,8	20	10,3
Ikastetxe publikoak, guztira: 144						Itunpeko ikastetxeak, guztira: 51					
Ikasleak CEIrekin, guztira: 195											

Guztizko 195etik 24k sartzeko CEI soilik dute; 4 ikaslek sartzeko eta eko CEI dute, eta 175ek ko CEI soilik.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako sartzeko edo ko CEI duten ikasleen banaketa aztertzean, hizkuntza-ereduen arabera, datu hauek ikusten dira.

Sartzeko edo ko CEI duten ikasleak ereduen arabera. LH 4. maila

A eredia		B eredia		D eredia	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
38	19,5	57	29,2	100	51,3

Hizkuntza-ereduen arabera sartzeko edo ko CEI duten ikasleen banaketak erakusten du D ereduak duela sartzeko edo ko CEI duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle-ehunekorik altuena, % 51, hain zuzen. B eredian eskolatzen da % 29, eta A eredian eskolatzen da ikaskuntza-ezaugarri horiek dituen ikasleen % 20.

➤ **Sartzeko edo ko CEIa duten ikasleen sexua eta jaiotza-urtea**

2010eko Ebaluazio diagnostikoan parte hartu duten sartzeko edo ko CEI duten ikasleen artean, mutilen ehunekoa neskena baino altuagoa dela ondorioztatzen da. % 22ko aldea dago.

CEI duten ikasleen sexua. LH 4. maila

Mutilak		Nesak	
Kopurua	%	Kopurua	%
119	61,0	76	39,0

Ikasleen jaiotza-urtearen azterketaren bidez, ondorio hauek atera daitezke: ikaslea bere adinarekiko egokitasun-egoeran dagoen, ikasturteren bat errepikatu duen, edo kasuren batean eskolatzen berantiarra gertatu den. Bi hezkuntza mailetako CEI duten ikasleen jaiotza-adinari buruzko datuak hurrengo taulan ageri dira:

CEI duten ikasleen jaiotza-urtea. Lehen Hezkuntzako 4. maila

	Kopurua	%
Jaiotza-urtea: 2000 (adin egokia)	32	16,4
Jaiotza-urtea: 1999	160	82,1
Jaiotza-urtea: 1998	2	1,0

Ikasle batek 2001. urtean jaio dela esan du

Lehen Hezkuntzako 4. mailan honako hau jakinarazten da: curriculum arlo batean edo hainbatetan egokitzeaz gain, ikasleen % 83 eskola ikasturte bat baino gehiago ikasmila berberean egon da bere ibilbidean zehar. Hala ere, kasuren batean eskolatze berantiarra gertatu

bada ere, gehienetan hezkuntza maila berebean ikasturte bat baino gehiago egoteagatik gertatu ohi da. sartzeko edo ko CEI duten ikasleen % 16 adinaren arabera dagokion mailan dago ikasketetan; ondorioz, ondoriozta daiteke ikasle hauentzat egokitzapena bere adinarekin bat datorren mailari eusteko aukera eman dien baliabidea izan dela.

➤ **Proba egin zuen eta kompetentzien arabera batez besteko orokorrean sartutako CEI duten ikasleak**

Jarraian, ebaluatutako kompetentzia bakoitzean parte hartu zuen sartzeko edo ko CEI duten ikasleen kopurua eta ehunekoa ageri da.

Proba egin zuen eta kompetentzien arabera batez besteko orokorrean sartutako CEI duten ikasleak.

	Sartuta		Sartu gabeak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	41	21,0	154	79,0
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	63	32,3	132	67,7
Matematikarako kompetentzia	58	29,7	137	70,3
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	115	59,0	80	41,0

Datuen arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailan:

- Ikasleen % 68 baino gehiago ez dago hizkuntza-arloren puntuazioetan sartuta, seguruenik Hizkuntza-kompetentziak (euskara, gaztelania edo biak) direlako dagokion CEIn bildutako egokitzapenaren helburuak.
- Matematikarako kompetentzian, CEI duen populazioaren % 30 puntuazioan sartuta dago.
- % 59 Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren puntuazioan dago eta arlo honetako egokitzapen kopurua askoz baxuagoa dela ondorioztatzen da.

Hurrengo taulan, 2010eko Ebaluazio diagnostikoan CEI duten ikasleak batez besteko orokorrean zer kompetentzia kopurutan sartuta dagoen erakusten da.

CEI duten ikasleak puntuazioan zer kompetentzia kopurutan sartuta dauden.

Sartu gabeak		1ean sartutakoak		2tan sartutakoak		3tan sartutakoak		4etan sartutakoak	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
70	35,9	22	11,3	57	29,2	43	22,0	3	1,5

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, probak egin zituen ikasleen % 36 ez dago ebaluatutako kompetentzia bakar batean ere sartuta. % 11 horietako bakarrean soilik dago. Ikasleen % 53, berriz, 2 kompetentzia edo gehiagoren puntuazioan dago sartuta.

5. IKASTETXEEN BILAKAERA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA

5. IKASTETXEEN BILAKAERA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA

Aurreko ataletan, emaitzetan eragin argia duten faktore eta aldagaiak daudela ikus daiteke; horien artean, ikastetxeko hezkuntza-ekintzatik eratorritako “balio erantsia” deitutakoa. Ikastetxeak eskaintzen duen balioak ikastetxeak edo talde jakin batek lortutako emaitzen eta ezaugarri sozial, ekonomiko eta kulturalen arabera espero litezkeen arteko aldea adierazten du.

Beraz, balio horrek ikastetxeen zenbait gaitasun adierazten ditu, besteak beste, ikasleei beren ingurunea eta familiako ezaugarriak kontuan izanik espero baino garapen-aukera handiagoak eskaintzeko gaitasuna, edo ikastetxeak ikasle guztiek garapen-aukera berdinak izateari begira antolatzeko gaitasuna.

Txosten exekutiboan eta txosten honetako ISEKen araberrako geruzen emaitzei eta ezaugarri buruzko atalean, batetik ikastetxeen maila sozioekonomiko eta kulturalaren arabera, eta bestetik konpetentzietan lortutako puntuazioaren arabera ebaluatutako ikastetxe bakoitzaren kokapenari egiten zaio erreferentzia.

Egoera horiek zehatzago azaldu nahian, bi azterketarekin lan egin da eta bien emaitzak alderatu dira:

- a. **Emaitza altuenak eta apalenak dituzten ikastetxeak**, modu zuzenean eta egoera edozein izanik ere. Hau da azterketaren arrazoia: ikastetxe bateko egoera edozein izanik ere, emaitza altuak lortzea zeregin konplexua da; bertan, hainbat aldagaik hartzen dute parte eta irakaskuntza lantzeko moduarekin lot daitezke. Bestalde, emaitza apalenak lortzeak esan nahi du ikastetxe horietan ikasleen emaitzetan hobekuntza ahalbidetuko duten erabakiak hartu behar direla.
- b. **Ikastetxe eraginkorrak edo hain eraginkorrak ez direnak**; hau da, ikastetxe guztiek maila sozioekonomiko eta kultural berbera izango balute, esperotako emaitzekin alderatuta alderik handienak (positiboak eta negatiboak) dituzten ikastetxeak.

Bi azterketak egiteko *Matematikara konpetentziako* puntuazioak hartu dira; izan ere, egiaztatu ahal izan den moduan, gainerako emaitzekin lotura maila handiena duen konpetentzietako bat da; gainera, ez da hizkuntza-konpetentzia, eta hori dela eta, hizkuntza-ereduak edo etxeko hizkuntzak ez dute hainbesteko zerikusirik.

Hain zuzen ere, mota bakoitzeko ikastetxeen aukeraketa egin ostean, egiaztatu ahal izan da horien jokaera ebaluatutako gainerako konpetentzien antzekoa dela, nahiz eta ez izan beti altuenak edo baxuenak.

5.1 EMAITZARIK ALTUENAK ETA APALENAK DITUZTEN IKASTETXEAK

Azterketa egiteko, emaitza altuenak eta apalenak dituzten 30 ikastetxe aukeratu dira. Hurrengo taulan ikus daitezkeen moduan, emaitza baxuenen taldean biltzen diren ikastetxeek 189 puntu gutxieneko puntuazioaren eta 216 puntuko gehieneko puntuazioaren arteko ikastetxeko batez bestekoa dute. Goialdean daudenek 269 puntu lortu dituzte gutxienez eta gehienez 285era iritsi dira (hori da batez besteko puntuaziorik altuena).

ED10-LH4. Ikastetxeen sailkapena gutxieneko, gehienerako eta batez besteko puntuazioen arabera

Ikastetxeko emaitzak	Ikastetxe kopurua	%	Gutxienerako puntuazioa	Gehienerako puntuazioa	Batez bestekoa
Batez bestekoaren inguruan	332	84,8	217	269	245
Baxuak	30	7,6	189	216	207
Altuak	30	7,6	269	285	274
Guztira	392	100	189	285	244


Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, konpetentzia batean emaitza onak dituzten ikastetxeek gainerako guztietan ere emaitza onak dituzte (nahiz eta beti bikaintasun maila berbera ez lortu), eta *Matematika-konpetentzian* emaitza baxuagoak lortzen dituztenek beste hiru konpetentzietan ere hala dituzte.

ED10-LH4. Ikastetxeen batez besteko emaitzak, ebaluatutako konpetentzia guztietan

Ikastetxeko emaitzak	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako konpetentzia	Gizarte eta herritartasunerako konpetentzia
Batez bestekoaren inguruan	252	254	245	249
Baxuak	213	222	207	213
Altuak	265	273	274	268

Hurrengo grafikoa, ikastetxeetako emaitzak beren ISEKen arabera banatzen dira:

122. Grafikoa. ED10-LH4. *Matematikarako konpetentziako emaitzak eta ISEK*




Grafikoan, goiko zatian, kolorez, puntuazio altuenak dituzten 30 ikastetxe ageri dira, eta beheko zatian, puntuazio apalenak dituzten 30 ikastetxe. Grafikoa aztertu ostean, honako hau ondoriozta daiteke:

1. Bi talde horietako bakoitzaren baitan, emaitzen banaketa oso desberdina da ikastetxe bakoitzaren batez besteko ISEK maila kontuan hartzen bada; hori dela eta, emaitza altuak dituzten ikastetxe gehienetako batez besteko ISEK indizea ikastetxe guztietako ISEK indizeen batez bestekoa (-0,19, lerro bertikal beltzez adierazita) baino altuagoa da. Egoera berbera antzematen da emaitza apalenak dituzten ikastetxeen taldean ere, baina alderantziz.
2. Hala eta guztiz ere, talde bakoitzean ez daude ISEK altuenak edo apalenak dituzten ikastetxe guztiak. Hau da, ISEKeko erdiko maila duten ikastetxe batzuk emaitza altuenak dituzten 30en artean daude, eta beste batzuk, berriz, emaitza baxuenak dituztenen artean.

Ikastetxe horien egoera hobeto antzemateko, hurrengo grafikoan muturreko puntuazioak lortu dituzten ikastetxeak soilik ageri dira.

123. Grafikoa. ED10-LH4. Matematikarako konpetentzia eta ISEK (emaitzarik altuena eta apalena dituzten ikastetxeak)



Emaitza altuenak eta apalenak dituzten ikastetxeen azterketatik abiatuta, honako ondorioak atera daitezke:

- ✓ Emaitza altuenak eta baxuenak dituztenen artean, batez bestekoaren inguruan ISEK maila antzekoak dituzten zenbait ikastetxe dauden arren, emaitza apaleko ikastetxe gehienak batez besteko ISEK mailaren azpitik daude, eta emaitza altuko ikastetxe gehienak batez besteko ISEK mailaren gaineratik daude. Hau da, baldintza sozioekonomiko eta kulturelek eragin argia dutela ondoriozta daiteke.

5.2 IKASTETXEEN ERAGINKORTASUNA

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxeetako emaitzak eraginkortasunaren ikuspegitik ere azter daitezke.

F.J Murillo¹¹ irakaslearen dioenez, gaur egun, hau hartu behar da oinarri: *"ikastetxea eraginkorra da baldin eta ikasle guztien garapen integrala lortzen badu, eta garapen hori ikasleen aurreko errendimendua eta familien egoera sozio-ekonomikoa eta kulturala kontuan izanik espero daitekeena baino handiagoa bada"*.

Definizio horrek hiru ezaugarri biltzen ditu: **balio erantsia**, ikastetxeak ikasleari zer eskaintzen dion jakitea izango litzateke; **ekitatea**, eraginkortasunaren kontzeptuan oinarritzko elementu gisa, eta ikaslearen **garapen integrala**. Azterketa honetan, ezaugarrietako bat soilik aztertuko da, balio erantsia, hain zuzen ere, hau da, ikastetxeak ikasleari egiten dion ekarpena.

Horretarako, oraingo honetan, lortutako emaitzen eta ikastetxeko ISEKen arabera esperotakoen artean alde positibo handieneko 30 ikastetxeak aukeratu dira, baita Matematika-kompetentzian alde negatibo handieneko 30 ikastetxeak ere. Positiboenei "ekarpen handienekoak" deituko diegu, eta alde negatibo handiena dutenei "ekarpen txikienekoak".

ED09-LH4. Ikastetxetako batez besteko puntuazioa eraginkortasun-mailaren arabera

Ikastetxeko emaitzak	Ikastetxeko kopurua	%	Gutxieneko puntuazioa	Gehieneko puntuazioa	Batez bestekoa
Batez bestekoa	332	84,8	198	280	245
Ekarpen txikienekoak	30	7,6	189	242	215
Ekarpen handienekoak	30	7,6	244	285	267
Guztira	392	100	189	285	244

Ekarpen txikiena egiten duten ikastetxeen artean, oso batez besteko desberdinak dituzten ikastetxeak daudela antzematen da, puntuazio baxuetatik hasi (189 puntu) eta *Matematika-kompetentzian* 242 puntuko puntuazioa duten ikastetxeetara arte. Ekarpen handiena egiten duten ikastetxeen puntuazioa gutxieneko 244 puntutatik gehieneko 285 puntura artekoa da.

Aurreko azterketan bezala, ikastetxeen aukeraketa egin ostean, beste kompetentzietan ere antzeko jokaera dutela egiaztatu da.

Kompetentzia batean emaitza onak dituzten ikastetxeek gainerakoetan ere joera hori izaten dute (nahiz eta beti bikaintasun-egoera berbera ez izan) eta *Matematika-kompetentzian* emaitza baxuak lortzen dituztenek gainerakoetan ere joera hori izaten dute.


ED10-LH4. Ikastetxeetako emaitzak eraginkortasunaren arabera kompetentzia guztietan

Ikastetxeko emaitzak	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako kompetentzia	Gizarte eta herritartasunerako kompetentzia
Batez bestekoa	252	254	245	249
Ekarpen txikienekoak	226	235	215	222
Ekarpen handienekoak	259	257	267	258

¹¹ Ikus www.ice.deusto/rinace/reice/vol1n1/Murillo

Hurrengo grafikoan, ikastetxeetako emaitzak beren ISEKen arabera banatzen dira:

124. Grafikoa. ED10-LH4. Matematikarako kompetentziako emaitzak eta ISEK (ISEK indize berdinarekin espero zitezkeen emaitzetatik aldetzen diren ikastetxeak)




Grafikoan, goian, kolorez dagoen eremuan, ekarpen handiena egiten duten 30 ikastetxeak ageri dira, eta behean (laranjaz), ekarpen txikiena egiten dutenak. Grafikoa aztertuta, honako ondorio hau ateratzen da:

1. Emaitza horien banaketa ISEK maila guztietan zehar banatzen da. Hau da, ISEK maila altuko nahiz baxuko ikastetxeetan topatu dugu ekarpen positiboa, eta hori ikasleen errendimenduan islatzen da.
2. Ekarpenik handiena egiten duten ikastetxeak ISEKeko ardatzaren erdialdean daude, eta ez, espero beharko genukeen moduan, ISEKeko maila altuak dituzten eremuan. Agian, ISEKeko maila altuan dauden ikastetxeen kasuan espero den puntuazioa oso altua delako nahiko zaila izaten da hori gainditzea.


Ikastetxe horien egoera hobeto antzemateko, hurrengo grafikoan muturreko puntuazioak lortu dituzten ikastetxeak soilik ageri dira, hau da, eraginkorrenak eta eraginkortasunik baxuena lortu dutenak.

125. Grafikoa. ED10-LH4. Matematikarako kompetentziako emaitzak eta ISEK (ISEK indize berdinarekin espero zitezkeen emaitzetatik gehien (+ eta -) aldetzen diren ikastetxeak)



Hurrengo grafikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailakoen artean 2010eko ebaluazioko ikastetxe guztien banaketa ageri da; horretarako, lortutako puntuazioaren eta ISEKen arabera esperotakoaren artean lortutako aldea hartu da oinarri. Ikastetxe gehienek (laukian sartuta) esperotako puntuazioa lortu dutela ikus daiteke. Ezkerreko zutabeetan beren ISEK mailari legokiekeena baino puntuazio baxuagoa lortu duten ikastetxeak ageri dira; eskuineko zutabeetan, berriz, esperotakoa baino puntuazio altuagoa lortu duten ikastetxeak ageri dira.

126. Grafikoa. ED10-LH4. Ikastetxeen banaketa Matematikarako kompetentzian lortutako eta esperotako emaitzen arabera



Emaitza onak eta apalak dituzten ikastetxeen arteko eta ikasleen errendimenduari ekarpen handiagoa edo txikiagoa egiten dioten ikastetxeen arteko aldeak hainbat arrazoi izan ditzake. Beste batzuen artean, hauek nabarmendu nahi ditugu:

- **ISEK indizearen eragina:** aldagai honetan, bi alor nabaritu dira:
 - batetik, ISEKek emaitzetan eragin argia du;
 - bestetik, ekarpen handiena eta txikiena egiten duten ikastetxeen artean (eraginkorrenak direnak edo hain eraginkorrak ez direnak), ISEKeko maila guztietan kokatutako ikastetxeak daude.

Horrek esan nahi du ikastetxeak eskaintzen dituen hezkuntza-faktoreek (metodologiak, antolaketa, eskola-giroa...) modu eraginkorrean eragiten dutela ikasleen emaitzetan, beren ISEK edozein izanda ere. ISEKeko batez besteko berberarekin, zenbait ikastetxe ikasleen errendimendu hobea lortzeko gai dira, eta beste batzuek, berriz, ez dute lortzen.

Azterketa honek azaldu nahi digu ikastetxe batzuek zergatik lortzen duten ikasleei ekarpen handia egitea, jatorrizko gabezia handiagoak edo txikiagoak konpentsatuz; beste ikastetxe batzuek, berriz, ez dute hori lortzen.

Arrazoi posible guztien azalpen zehatzagoa emateko, azterketa egin behar da. Edonola ere, egin diren bi ebaluazioetan bildutako datuen bilakaera aztertuz, emaitzen egonkortasuna nabarmendu behar da.

5.3 IKASTETXEETAKO BILAKAERA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA

Orain arte egindako bi ebaluazioetan bildutako datuen bilakaera aztertuz, batez ere hau nabarmendu behar da:

- emaitzen egonkortasuna bi edizioetan.
- Bi ebaluazioetan Matematika-kompetentziako emaitzen arteko korrelazioa.

Hurrengo tauletan ikus daitekeen moduan, Matematika-kompetentzian, 2009ko eta 2010eko ebaluazio diagnostikoko puntuazioen arteko korrelazioa altua da, batez ere ikastetxeko ISEKen arabera esperotako korrelazioen artean.

Zuzeneko puntuazioen arteko korrelazioa. Esperotako puntuazioen arteko korrelazioa. ED09 eta ED10

	Pearson-en korrelazioa
Zuzeneko puntuazioak ED09an eta ED10ean	0,635
Espero zitezkeen puntuazioak ED09an eta ED10ean	0,874

Gainera, 2009ko eta 2010eko ebaluazio diagnostikoko kompetentzia guztietan ikastetxeetako emaitzen datuak alderatzen baldin baditugu, konturatuko gara hizkuntza-kompetentzietan, % 4 inguruk emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituztela 2010eko ebaluazioan, eta % 13k baino gehiagok hobetu egin dituzte aurreko urteko emaitzak. Ikastetxeen % 81k edo % 83k emaitza berberak dituzte; egonkortasuna nabari da; hala ere, gero eta emaitza altuagoak lortzea izango litzateke helburua.

Matematika-kompetentzian, 2010. urtean emaitzak baxuagoak diren kompetentzia bakarrean, ikastetxe askotan, puntuazioak behera egin du; % 11ek nabarmen egin du behera 2009ko ebaluazioarekin alderatuta, eta % 5k puntuazioa nabarmen igo du 2010eko edizioan.

Ikastetxeen kopurua *Matematikarako kompetentziako* emaitzen arabera. ED09 - ED10 konparazioa

Ikastetxeetako puntuazioak ED09-ED10	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa		Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa		Matematikarako kompetentzia	
	Ikastetxe kopurua	%	Ikastetxe kopurua	%	Ikastetxe kopurua	%
Esanguratsuki jaitea	24	4,9	18	3,7	55	11,2
Emaitzak mantentzen dira	399	81,8	408	83,4	411	84,0
Igotze esanguratsua	65	13,3	63	12,9	23	4,7

4 ikasle baino gutxiago dituzten ikastetxeak ez dira kontuan hartzen alderaketa egiteko garaian.

Azterketa egiteko, egindako bi ebaluazioetan emaitzarik altuenak lortu zituzten 15 ikasle baino gehiagoko 30 ikastetxeren arteko alderaketa egin da. *Matematika-kompetentzian* emaitzarik baxuenak lortu zituzten 30 ikastetxeak dira, baita eraginkorrenak izan ziren 30ak eta eraginkortasun mailarik txikieneko 30ak ere, taula ikus daitekeen moduan.

Emaitzarik altuena edo apalenak eta eraginkortasun maila handiena edo txikiena duten ikastetxe kopurua. ED09 - ED10 konparazioa

	ED09	ED10	ED09an eta ED10ean bat datoz
	Ikastetxe kopurua	Ikastetxe kopurua	Ikastetxe kopurua
Emaitzarik altuenak dituzten ikastetxeak	30	30	13
Emaitzarik apalenak dituzten ikastetxeak	30	30	12
Ikastetxe eraginkorrenak	30	30	13
Eraginkortasun baxuena duten ikastetxeak	30	30	6

Matematikarako kompetentzian emaitza altuenak lortu zituzten 30 ikastetxeen artean, 13k emaitza berberak lortu dituzte ebaluazioko bi edizioetan. Era berean, emaitza baxueneko 12ek 2010eko edizioan ez zuten lortu emaitza hobetzerik.

Eraginkortasunaren ikuspegitik, 30 ikastetxetatik eraginkorrenak diren 13k egoera horri eutsi diote. Hain eraginkorrak ez diren 6k soilik ez dute egoera hori gainditzea lortu; beraz, 24 ikastetxek eraginkortasuna hobetu dute.

ISEKen eragina.

ISEK aldagaiak eragina duela eta ikasleen emaitzetan garrantzi handia duela frogatu da berriro ere.

Ikastetxeak eskaintzen duen Balio Erantsia.

Metodologiarekin, antolaketarekin, eskola-giroarekin... lotutako hezkuntza-faktoreek modu eraginkorren eragiten dute ikasleen emaitzetan, beren ISEK edozein izanda ere. Kasu honetan, gainera, ekarpen handiena eta txikiena egiten duten ikastetxeen artean ISEK maila guztietan kokatutako ikastetxeak daudela ere egiaztatu da.

Bi ebaluazioetako emaitzen egonkortasuna.

Korrelazio altua dago 2009ko eta 2010eko Ebaluazio diagnostikoko *Matematikarako kompetentziako* emaitzen artean.

Ikastetxeen % 81 edo % 83k emaitza berberak mantentzen dituzte, bi ebaluazioen eta konparatutako hiru kompetentzien artean ez dago alde adierazgarririk.

6 ONDORIO OROKORRAK

TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRAK

➤ Konpetentzietako errendimenduari dagokionez, honakoa ondorioztatzen da:

- ✓ *Euskarazko eta Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan* 2010. urteko Ebaluazio diagnostikoan Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek lortutako emaitzak 2009. urteko Ebaluazioan lortu zituztenak baino nabarmen altuagoak dira. Bi konpetentzietan, igo egin da errendimenduko maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa.
- ✓ *Matematikarako konpetentzian*, ebaluazioaren edizio honetako puntuazioa nabarmen baxuagoa da. Errendimendu maila aurreratuko ikasleen ehunekoa 2009. urteko edizioarena baino baxuagoa da.
- ✓ *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*, itunpeko hiru geruzek 250 puntuko ezarritako batez bestekoa gainditzen dute. Geruza hauetan, maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa % 33 eta % 51 artekoa da.

➤ Ikasleen errendimenduan aztertutako aldagaien eraginari dagokionez, honako hau ondorioztatzen da:

- ✓ Ikasleak lortutako emaitzetan indize sozioekonomikoa eta kulturalaren (ISEK) eragina orekatzen denean, itunpeko B eta D geruzek errendimendua berdintzen dute *Gaztelaniazko hizkuntza-kompetentzian, Matematikarako konpetentzian eta gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*, baina itunpeko A geruzaren emaitzak baino nabarmen baxuagoak eta geruza publikoenak baino nabarmen altuagoak dira konpetentzia guztietan.
- ✓ *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, hizkuntza-eredua oso garrantzitsua da ikaslearen emaitzetan. Hiru ereduaren arteko aldea adierazgarria da. D eredia soilik kokatzen da batez bestekoaren gainetik. Egoera hori ebaluazio guztietan eta unera arte egindako azterketetan antzematen da.
- ✓
- ✓ Neskek mutilek baino emaitza askoz ere altuagoak lortzen dituzte konpetentzia guztietan, *Matematikarako konpetentzian* izan ezik. Egoera hori bera gertatu zen 2009ko ebaluazioan ere.
- ✓ Ikasleen % 93 adinaren arabera dagokion mailan dago eta bakoitzari dagozkion batez bestekoak baino emaitza hobekien lortzen dituzte *konpetentzia guztietan*. Egoera berbera antzematen da ebaluazioaren aurreko edizioan ere.
- ✓ Gurasoek Batxilergoko ikasketak edo altuagoak (% 70) dituzten ikasleek konpetentzia bakoitzaren batez besteko orokorraren emaitza berdinak edo altuagoak lortzen dituzte *konpetentzia guztietan*. Egoera hori bera antzematen zen 2009ko Ebaluazioan ere.

- ✓ Familia-nukleoan eta neba-arrebekin bizi diren (% 67) ikasleek batez bestekoak baino emaitza altuagoak dituzte *konpetentzia guztietan*. Hori bera gertatzen da ebaluazioaren aurreko edizioan ere.
 - ✓ Eskolatzea hiru urte baino lehen hasi zuen ikaslea (% 76) batez besteko orokorraren gainera kokatzen da *konpetentzia guztietan*. Egoera hori bera gertatzen zen aurreko ebaluazioan ere.
 - ✓ Jatorriz atzerritarra den ikasleak (% 7) ez du batez besteko orokorra lortzen konpetentzia bakar batean ere. Hala ere, ikaslearen jarrera bertako ikasleetan antzematen denaren berdina da; aurreko edizioari dagokionez, *Euskarazko eta Gaztelaniako hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan* emaitzak hobetu dituzte, eta *Matematikarako konpetentziako* errendimendua baxuagoa izan da.
 - ✓ Korrelazio positiboa dago ikasleak ikasgelan matematika arloean lortzen dituen kalifikazioen eta *Matematikarako konpetentzian* bi edizioetan Ebaluazio diagnostikoan lortutako puntuazioen artean. Egonkor mantentzen da oso *ongi* eta *bikain* notak atera dituela dioten ikasleen ehunekoa, eta matematika arloean *nahikora* iristen ez dela dioten ikasleen ehunekoa.
 - ✓ Irakasleek ikaslea eskolatuta dagoen taldeari esleitutako “erdiko maila akademikoak” ikasgelan matematika arloean lortzen dituen kalifikazioak baldintzatzen ditu. Egoera hori egindako Ebaluazio diagnostikoaren bi edizioetan berresten da.
 - ✓ *Matematikarako konpetentzian* eta *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* ikaslearen etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza desberdinak direnean, ikasleek bi hizkuntza berdinak direnean baino askoz errendimendu baxuagoa lortzen dute. Gertaera hori errepikatu egiten da orain arte egindako azterketa eta ebaluazio guztietan.
- Ikastexetako emaitzen eta eraginkortasunaren arabera duten bilakaerari dagokionez, honako hau ondorioztatzen da:
- ✓ ISEKek ikasleen emaitzetan duten eragina.
 - ✓ Balio erantsiari dagokionez ikastetxeak egindako ekarpenaren garrantzia; izan ere, ikastetxe eraginkorrenen nahiz eraginkortasun mailarik baxuenekoen artean ISEK maila guztietako ikastetxeak daude.
 - ✓ Egonkortasun handia emaitzetan; izan ere, bi ebaluazioetan ebaluatutako hiru konpetentzietan emaitzak nabarmen aldatzen ez diren ikastetxeen ehunekoa oso altua da.

7 ERANSKINA

Gizarte eta herritartasunerako kompetentzia, ED2010 ¹²

ED2010en eremuan, gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia ebaluatu da oinarrizko kompetentzia “*mugigarri*” gisa¹³. Neurri handi batean berritzaile gisa kalifika genezake ebaluazioa. Hain zuzen ere, hizkuntza-eremuetan (edo, zehazkiago, irakurmenean eta antzeko arloetan), matematikan eta ezagutzen, gaitasunen eta jarrera zientifikoekiko ere hezkuntza-etapa ugarietan ikasleen kompetentzia ebaluatzeko garaian esperientzia dagoen bitartean, gizarte-zientzien ebaluazioaren eremuan gabezia antzeman daiteke. Izandako esperientziak esperientzia, guztiek curriculum-izaera izan dute eta ezagutzetan eta prozedura batzuetan oinarritutako ebaluazioak besterik ez dira izan. Eredu-gabezia hori, era berean, nazioarteko eremura ere heda daiteke: IEA elkarteak (Hezkuntza Errendimendua Ebaluatzeko Nazioarteko Elkarte) soilik landu du modu partzialean gai dugun kompetentziaren ebaluazioa, nazioarteko mailan egindako *Hezkuntza Zibikoaren Azterketa* zabala eginda.

Dena den, komeni da aipatzea gizarterako eta herritartasunerako kompetentziak (haren izendapen ugarietan) hasiera-hasieratik jaso duela adituen arreta; izan ere, oinarrizko kompetentzien ikaskuntza eta irakaskuntzari lehentasuna eman behar izateari buruzko teorizazioa egin dute. Horrekin lotuta, DeSeco txostena aipatu behar da *Gakoak diren kompetentzien definizioa eta aukeraketa* (2003), Europako hezkuntza-esparrua egituratzeko erreferentzia gisa hartu beharreko zortzi oinarrizko kompetentziak definitzeko oinarri gisa hartu baitzen, Lisboako estrategiak proposatutako moduan. Ondorioz, gizarteratzea eta herritartasun aktiboa gailendu egiten dira 2001eko martxoan Europako Kontseiluak hartutako Europako trebakuntza- eta hezkuntza-sistemen hiru helburu estrategikoen baitan (mundura Europako hezkuntza zabaltzea, haren kalitatea eta sarbidea biltzen ziren).

Gerora, 2004an, Europako Batzordeak erabaki zuen europar herritartasuna izango zela Europar Batasunaren lehentasunezko ekintzetako bat¹⁴. Ildo horri jarraiki, 2005. urtea *Hezkuntzaren bidezko Herritartasunaren Europako Urtea izango zela erabaki zuen Europako Kontseiluak*. Horrez gain, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) gogoz sustatu zuen herritartasunerako hezkuntza mundu osora zabaltzeko ekimena, programa honen bidez: Giza Eskubideei buruzko Hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkada (1995-2004)¹⁵. Europako Kontseilua bera ere *Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza*¹⁶ izeneko proiektuan aritu izan da lanean.

Atal honetan, 2009-2010 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan erabilitako ezaugarrien azterketa espezifikoa aurkeztu dugu, emaitzen inguruko azalpenezko informazioa eskaintzeko asmoz. Dena den, ezinbestekoa da ohartaraztea azterketa batez ere kualitatiboa dela. Kontuan hartu behar da kompetentzia horren ebaluazioa lehen aldiz egin dela eta, beraz, ez dugula alderaketa egiteko daturik emaitzen eboluzioa ezartzeko.

¹² Eranskinaren egilea: Alfonso Caño Reyero, ISEI-IVEIkoa.

¹³ Hemendik aurrera GHK (gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia).

¹⁴ Europako Batzordeak 2004an egindako komunikazioa, *Gure etorkizun komuna eraikitzea. Batasun handituaren erronka politikoak eta aurrekontu-bitartekoak (2007-2013)*.

¹⁵ Unesco erakundearen <http://www.unesco.org/es/human-rights-education/> web-orrian adierazten dira Giza Eskubideetarako Hezkuntzaren printzipioak eta indarrean dagoen programari buruzko informazioa.

¹⁶ Europako Kontseiluak, 2004. urtean, <http://www.coe.int/t/dg4/education/edc/> web-orria abiarazi zuen, ingelesez eta frantsesez, Herritartasun Demokratikoari buruzko Hezkuntzaren Ataleko informazioa emateko.

• Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren gakoak

GHKren ebaluazioa, gainerakoekin bezala, oinarrizko kompetentziaren testuinguru teorikoa oinarri gisa hartuta egin da. Testuinguru horren asmoa gaiaren egoera eguneratzea da, kaudimen zientifiko gehieneko arlo akademikoen ikerketa eta eztabaidetatik abiatuta, eta, nolabait, matrizeak eta probak egiten hasteko “zoru” bat eskaintzea. Ohikoa den moduan, GHKren testuinguru egitean ISEI-IVEIko eta Hezkuntza arloko Berrikuntzako Zuzendaritzako teknikariek parte hartu zuten.

Oinarrizko erreferentzia gisa Eurydice-k egin berri duen azterketa bat eta 2005eko Europako Parlamentuko ebazpen bat erabili ziren.

Elkarren mendekoak diren hiru ardatz nabarmentzen ditu Eurydice sareak egindako azterlanak:

- kultura politikoa,
- pentsamendu kritikoa eta jarrera eta balio jakin batzuk garatzea, eta
- parte-hartze aktiboa¹⁷.

Lehen ardatz edo kategoriak jakintza teorikoen eskurapenaz dihardu, eremu hauetan: historia, geografia eta beste gizarte-zientzia batzuk; konstituzioaren eta oinarrizko beste arau batzuen printzipioak; antolamendu-eredu nagusiak eta sistema politikoa. Kategoria hau da ebaluatzeko errazena.

Bigarren kategoriak ikasleen parte-hartze handiagoa eskatzen du, haien iritziak eta jarrerak adierazi behar baitituzte. Gizartean herritar arduratsua gisa eta behar besteko informazioa izanda jarduteko behar den gogoia eta jarrera lantzeko eskatzen zaie gazteei. Kasu honetan, helburuak ez dira aurrekoak bezain “neutroak”, eta, formalki definitutako kontzeptuen aldean, zailagoa da haien lorpena ebaluatzea.

Hirugarren kategoriaren baitan, ekintzak egiteko eta beren komunitateko bizitza politiko, sozial eta kulturalean gogoz parte hartzeko eskatzen zaie ikasleei. Helburuetako bat da ikasleei gizalegezko jokabideak izateko konpromisoa betetzeko aukerak ematea, bai ikasgelan egiten diren jardueretan, bai ikasgelatik kanpo egiten direnetan, eta, horrez gain, ikasleak animatzea askotariko ekimenak abiaraz ditzaten. Azken helburua da ikasleei bultzada bat ematea, aurreko bi kategorietan ikasi dutena praktikan landu dezaten. Ematen zaien informazioaren xedea da gizartean gogoz parte hartzeko duten gaitasuna ulertzea eta hobetzea, eta egiten dituzten esku-hartzeak eta elkartasun-lanak eraginkorrak izateko behar diren trebetasunak aplikatzea. Ikasleek eskuratzen dituzten balioak eta jarrerak erreferentziazko jokabide-esparru izan behar dute gizartean arduraz parte har dezaten, herritarren eskubideak eta betebeharrak aintzat hartuta.

Europako Parlamentuak ebazpen bat eman zuen 2005ean, Parlamentuak berak eta Kontseiluak etengabeko ikaskuntzarako gakoak diren kompetentziei buruzko gomendio-proposamena zehazteko. Ebazpen horrek honela deskribatu zituen “gizarterako eta herritartasunerako kompetentziak”:

“Kompetentzia horien baitan sartzen dira kompetentzia pertsonalak eta pertsonen eta kulturen artekoak, eta pertsonen gizarte-bizitzan eta bizitza profesionalean eraginkortasunez eta probetxuz parte hartzeko jokabide-moduak jorratzen dituzte; batik bat, gero eta dibertsifikatuagoak diren gizarteetan. Horrez gain, beharrezkoa izanez gero, gatazkak konpontzeko jarrerak lantzen dituzte kompetentzia horiek. Herritartasunerako kompetentziak prestakuntza jakin bat ematen die pertsonen gizarte-bizitzan partaidetza osoa izan dezaten, eta, horretarako, kontzeptu eta egitura sozial eta politikoak jakinarazten dizkiete, eta partaidetza aktibo eta demokratiko baterako konpromisoa helarazten”.

¹⁷ Eurydice (2006): *Herritartasunerako hezkuntza Europako eskoletan*, 10-11. or.: http://www.eurydice.org/ressources/eurydice/pdf/0_integral/055ES.pdf.

Herritartasunaren alderdiak nabarmentzen ditu Eurydice sareak egindako proposamenak, baina Europako Parlamentuaren proposamenak gizarterako kompetentziak eta herritartasunerako kompetentziak elkartzeko ahalegina egiten du. Hala ere, bi proposamen horiek ez dira generikoak, eta ez datoz bat Europako hezkuntza-sistemetan indarrean diren curriculumekin. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren eduki-esparrua garatzeko garaian, ahalegin berezia egin da esparru hori bat etor dadin indarrean diren curriculumekin, haien arteko koherentzia bermatzeko.

Horrez gain, bazen beste erronka bat ere: oinarrizko kompetentziak, batez ere, arlo edo gai jakin batekin lotzen diren uste ustela haustea, hain zuzen ere (matematikarako kompetentzia izan daiteke adibiderik argiena). GHKren kasuan, lotura estuena izan dezakeen gai eta arloez gain, gizarterako eta herritartasunerako kompetentziak berekin dakar hezkuntza-jardueren multzoa (irakaskuntza- eta ikaskuntza-denbora, tutoretza, eskolaz kanpoko jarduerak, jolas-orduaren denbora, familiekin izandako harremanak eta abar), baita ikasleek inguruan dituzten esperientzia eta bizipen pertsonalak ere. Espazio eta denbora horietan guztietan ere ikasi, elkarreragin, parte hartu eta abar egiten da, eta baliabide kognitibo eta emozionalak mobilizatzen dira, eta horrek,aldi berean, jarrera kritikoa eta gogoetatsua ahalbidetzen du. Azken batean, ikasleek espazio eta denbora horietan azter dezakete, galderak egin, susmoak egin eta arrazoitu, inguruneari eta arazoei buruz, jatorriari eta kudeaketari buruz, eta bizi diren eguneroko errealitateari buruz.

- **Kompetentziaren definizioa eta dimentsioak**

GHKren testuinguru teoriakoan, kompetentzia gisa hartzen da gizarteari (ikuspegi ugaritatik ulertuta) buruzko ezagutzak erabiltzeko gaitasuna, fenomeno eta arazo sozialak interpretatzeko testuinguru eta eskala espazial aldakorretan, erantzunak sortzeko eta erabakiak hartzeko, baita beste lagun eta talde batzuekin arauen arabera elkarreragiteko ere.

Zehatzago, kompetentziaren asmoa da ikasleak egungo gizartearen eta sistema demokratikoaren antolaketaz, funtzionamenduz eta eboluzioaz ezagutza zehatzak lortzea, eta haren ezaugarri eta balioen inguruko ezagutzak eskuratzea. Horrez gain, trebezia hauek guztiak eskuratzea lortu nahi da: ingurunean arazoak identifikatzeko beharrezko trebeziak, norberaren esperientziei buruz azterketa egin eta gogoeta egiteko trebeziak, informazio garrantzitsua lortu, interpretatu eta baloratzeko trebeziak eta proposamenak egiteko trebeziak, azken batean, gero eta autonomia eta erantzukizun handiagoz moldatzeko gai izan dadin. Gertaera sozialekiko espiritu kritikoa hartzea ere lortu nahi da, baita jarrera aktiboak hartzea ere: entzutea, hitz egitea, solidaritatea, partaidetza, enpatia eta abar. Balio demokratiko eta zibikoak eskuratzea, justizia sozialarekin lotutakoak, aniztasuna errespetatzea... eta gaur egungo gizarteetako bidegabekeria, arazo eta desberdintasunetatik norbere nortasunaz kontzientzia lantzea.

Testuinguru teorikoak hiru dimentsio behar ditu:

- Gizarte-errealitatea

Historiarekin, giza geografiarekin, ekonomiarekin, soziologiarekin eta beste gizarte-zientzia batzuekin zerikusia duten oinarrizko kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak bildu dira dimentsio honetan. Egungo gizartea nola sortu den, nola aldatu den eta egun zer funtzionamendu duen azaltzen dituzte horiek guztiek, eta haren arazo nagusiak eta erronka eta zailtasun batzuk ulertzen laguntzen dute. Jakin behar dugu ikasleek denboran zehar gertatutako bilakaera baten ondorio moduan ulertzen ote duten egungo gizartea, eta gai diren ala ez gizarte-esparruetako dibertsitatea hautemateko eta azaltzeko. Aztertu behar da ikaslea gai ote den nolabaiteko egokitasunez azaltzeko gizarteko alderdi ekonomikoak, lan-arlokoak, aisialdikoak, kontsumokoak, gizarte-zerbitzuak eta bestelakoak.

- Herritartasuna

Gizarte demokratikoetako eskubide eta betebeharrekin lotutako alderdiak biltzen ditu dimentsio honek; besteak beste, eguneroko bizitza, instantzia publikoak, parte-hartze aktiboa eta herritartasunaren egikaritzea. Ikaslearen gertuko eremuetatik (familia, lagunartea, eskola) abiatzen da dimentsioaren planteamendua, baina globalizazioaren ondorioak azalarazten dituzten testuinguru zabalagoak ere hartzen ditu. Ildo horretatik, herritartasunaren dimentsio honek bereziki erreparatzen dio giza eskubideen eta haurren eskubideen izaera unibertsalari, eskubide horien erabilera-esparru guztietan, eta, halaber, eskubide horien murrizketak edo urrapenak pairatzen dituzten pertsonen egoerari erreparatzen die.

- Bizikidetzeta

Dimentsio honen ardatza gatazkak aztertzea da, eta bereziki bultzatzen ditu haiek ebaztearekin edo konpontzearekin lotuta alderdiak. Horrez gain, ikasleek balio-sistema bat eraikitzea eta pertsonen arteko bizikidetzeta antolatzen duten arauak ezagutarazi nahi ditu.

Balio etikoetan oinarritutako nortasun bat garatzea da dimentsio honen xede-indarretako bat, eta, horrez gain, ikasleek nortasun horretan oinarrituta hartzea beren erabakiak; hala, ikasleek beren gain hartuko dute beren ekintzen erantzukizuna, eta irizpide propioak izan eta autonomiaz jokatu dute gainerako pertsonekin harremanak izatean.

Dimentsioaren beste alderdi batzuk dira arauak identifikatzea eta haiek sortzeko prozesuak ulertzea, adostea eta bere egitea, gizarte-komunitatearen ongizatea hobetzeko ekarpenak egin ditzaten.

Deskribatutako hiru dimentsioak hamar azpi-konpetentzian sailkatzen dira, eta horiek dagozkien edukien inguruko azalpena biltzen dute:

1. dimentsioa: Errealitate soziala

1. Errealitate historikoaren bilakaera.
2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
4. Informazioa eta komunikazioa.

2. dimentsioa: herritartasuna

5. Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
6. Herritartasunaren egikaritze edo erabilera arduratsua.
7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.

3. dimentsioa: bizikidetzeta

8. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
9. Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.
10. Bizikidetzaren arautze edo antolamendua.

Egitura hori komuna da ebaluatutako bietan: LHko 4. maila eta DBHko 2. maila. Horietako bakoitza azpi-kompetentzia bakoitzeko ebaluazio-adierazleetan zehazten da, eta azpi-kompetentzia bakoitza, aldi berean, hiru zailtasun mailatan sailkatuta dago.

• 2010ean Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian ebaluatutakoa

Lehen aipatu dugun moduan, ebaluazioan LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleei aplikatutako proba espezifikoa zeuden. Lehen Hezkuntzan 22 item erabili ziren, eta DBH mailan, 40 itemeko koaderno bat. Luzera desberdineko probak dira, beraz, eta izaera desberdineko egoerak ebazteko ikasleek erabiltzen dituzten trebezia, ezagutza eta jarrerak baloratzeko aukera eman dute.

Izan ere, itemak hainbat egoera-problemaren inguruan multzokatu dira, hori da Euskadin aplikatzen den ebaluazio diagnostikoaren eredia (sei egoera-problema Lehen Hezkuntzan, eta hamabi, DBHn).

Ohikoa da ebaluazio mota honetako emaitzen azterketek oinarri gisa *gaiak* hartzea eta, datuetatik abiatuta, indarguneak eta ahulunean zein diren ondorioztatzea. Azterketa egiteko modu horrek ahulune garbia du, ez baitu kontuan hartzen item bakoitzaren zailtasun maila. Esate baterako, udaletxe batek ematen dituen zerbitzuen identifikazioa planteatzen duen egoera batean, oso item erraza topa dezakegu, eta era berean, zailagoa den beste bat. Izan ere, gai batek beste batekiko izan dezakeen berezko zailtasunarekin batera (ikasleen esperientzia-eremuarekiko hurbiltasun edo urruntasunaren arabera, esaterako), gaitasun eta trebezia batzuek beste batzuekiko izan dezaketen zailtasuna hartu behar da kontuan. Horrekin lotuta, gertakari bat *ezagutzea* edo *identifikatzea*, edo deskribatutako fenomenoren baten inguruko *adibide bat jartzea* errazagoa izaten da *ondorio bat ateratzea*, *loturak egitea* edo *balorazioa ematea* baino.

Gainera, badira emaitzen interpretazioan eragiten duten beste faktore batzuk ere. Aurrerago landuko dugu probako hizkuntzaren gaia, GHKren ebaluazioan errendimenduan eragin garrantzitsua izan baitu.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako probari dagokionez, proposatutako egoera-problema gai hauen ingurukoak ziren:

- Komunikabideen, ordenagailuaren eta bideokontsolen erabilera egokia eguneroko bizitzan.
- Haurtzaro eta gaztaroko eskubide eta betebeharrak, baita herritartasunarenak ere, oro har.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna (etxeko lana, publizitate sexista...).
- Eskola-eremuko arauak.
- Esperientzia-eremutik gertuko zerbitzuen erabilera eta funtzionamendua.
- Gatazka baten analisisa (protagonistak, jarrerak, erabakiak hartzea...).

Aurrez ebaluatu gabeko kompetentzia denez, hezkuntzako profesional talde batek (etapako irakasleak, Berritzeguneko teknikariak eta ISEI-IVEIko teknikariak) proban erabilitako hogeita bi itemak aztertu zituen eta Lehen Hezkuntzako 4. mailako "ebaketa-puntuak" ezarri zituen. "Ebaketa-puntu" horiek mugatzen dituzte hasierako maila, maila ertaina eta maila aurreratua; emaitza estatistikoek abalatu dute erabakia.

Hiru dimentsioetako emaitzen balorazioa aurkeztu aurretik, proban horietako bakoitzak izan duen garrantzia ez dela homogenea izan adierazi behar da, eta batzuetan, item kopurua urria izan da; beraz, maila bakoitza xehetasunez dokumentatzeko aukerak murriztu egin dira.

Jarraian, Lehen Hezkuntzako 4. mailako hiru dimentsioetako emaitzen balorazio kualitatiboa egin dugu:

- Oro har, ikasleek *Herritartasuneko* dimentsioan kompetentzia handiagoa izan du, eta jarraian, *Bizikidetzakoa* ageri da. Aldiz, ikasleek *Gizarte-errealitatea* dimentsioan berezko gaitasun, trebezia eta ezagutza gutxiago dituztela dirudi.
- Dimentsio guztietan sakabanatze handia ikus daiteke kompetentzien arlo ugarietako zailtasun mailan. *Herritarren* dimentsioaren barruan, hau ikus daiteke:
 - Ikasleek kompetentzia maila altua dute eskolako bizikidetzako egoera ugarietan jarrera demokratikoak identifikatzen, "eskubide" hitzaren esanahia ezagutzen eta "betebeharra" hitzetik bereizten, eta norberarenak ez diren hizkuntza- eta kultura-adierazpenak aintzat hartzen.
 - Aldiz, Herritartasunaren dimentsioarekin lotuta, ikasleen ahuluneak agerian jartzen dira herritarren berezko eskubide eta betebeharrak bereizteko eskatzean, hauteskundeetan zer ordezkari mota aukeratzen diren adierazteko eskatzean edo ikasle gisa dituzten eskubide eta betebeharrak deskribatzeko eskatzean.
- *Bizikidetzako* dimentsioaren azterketa kualitatiboak agerian jartzen du:
 - Ikasleen indarguneak agerian jartzen dira ikasgelako arauetako ikasleen jokabideak baloratzean edo araudi bat egotearen garrantzia onartzean, egoera gatazkatsu batean erabaki egokiak hartzean eta gatazka baten protagonisten artean arduraduna edo erruduna identifikatzean.
 - Kontrako muturrean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen talde txiki batek indarkeriazko jarrera batzuen kausak identifikatzearen inguruko kompetentzia garatuta dute, edo beste arlo batzuetan, baita bizikidetzako arauen helburua eta esperientzia pertsonaleko egoerekin helburu horiek duten lotura identifikatzearen inguruko kompetentzia ere.
- *Errealitate soziala* dimentsioaren eremuan ondorio hauek nabarmen ditzakegu:
 - Ikasleen zati handi batek etxeko lanen banaketa desorekatuaren egoerak identifikatzen ditu, eduki sexistako iragarkiak identifikatzen ditu, telebistaren eta bideo-jokoen erabilera arduratsua adierazten dute, baita horiek eragiten dituzten ondorio batzuk ere (hezkuntzarekin, aisialdiarekin, ikaskuntzarekin eta abarrekin lotutakoak); gainera, gai da telebistaren, ordenagailuaren eta bideo-jokoen gain-kontsumoak eragindako ondorio negatiboren bat adierazteko (hezkuntzarekin, isolamendu sozialarekin eta abarrekin lotuta), eta ezagutzen ditu ingurune oinarrizko zerbitzuen erabilera eta funtzionamendu nagusiak.
 - Neurri txikiagoan, ikasmaita honetako ikasleak gai dira hezkuntza-kanpaina bateko mezua interpretatzeko eta zerbitzu publiko bateko beste erabiltzaile batzuen eskubideak errespetatzearen inguruko ondorioak ateratzeko; horrez gain, zerbitzu publikoaren antolaketa hark eskaintzen dituen prestazioekin lotzen du eta emakumezkoak baztertzen dituzten laneko eta aisialdiko egoerak adierazten ditu.